



Segi, Mugartegi

Joxemari Iriondo





Joxemari Iriondo Unanue (Urrestilla, 1938) guztiz ezaguna da euskal kulturgintzaren alor askotan. Baina batez ere, kazetaritzan, bertsolaritzan eta euskal kantagintzan lan handia egin du.

Bere lehenengo lanak fabrika bateko kontularitzan egin bazituen ere, Loiolako Herri Irratian hasi zen lanean, eta hantxe egin zituen hogeita bi urte haundi eta oparo (1961-1983) euskarazko irratsaloak antolatu eta egiten, eta gidolagintza lanean. Hegoaldeko lehenengo euskarazko telesaloak egin zituen Bilboko Telenorten (1975-1983). Eta handik Euskal Telebistara pasatu zen, asteburuetako erredaktoreburu lehenengo eta zuzendari gero. Eusko Irratia S.A. ko eta Radio Vitoria S.A. ko zuzendari-koordinatzaile eta Radio Euskadiko zuzendari izan zen (1987-1996). Eta gero, berriz ere, Euskal Telebistan jarraitzen du gaur egun.

Berrogei urte luze horietan, euskal kulturaren taupada guztiak barri-barrutik ezagutu eta bizi izan ditu, baina lekuko ez ezik eragile eta suspertzaille izanez. Besteak beste, *Ez Dok Amairu* talde ezagunaren sortzaileetartiko bat izan zen, zenbait abeslarirekin batean, kantuen hitzak sortu nahiz euskaratuz. Trikitimunduari sekulako bultzada eman zion, lehenengo irrati eta gero han-hor-hemen jaialdiak antolatuz.

Azpimarratzekoak dira bertsolarien alorrean egindako ahaleginak: ehundaka bertso-jaialdi antolatu, jaialdietarako gaiak prestatu eta aurkeztu du (1962tik 1984ra); bertsolari-txapelketak eratu eta aurkeztu: Bertsolari gazteen sariketa Loiola Irratian (1962tik 1972ra), Bertsolari-txapelketa nagusia (1979-1982), eta abar.

Joxe Lizasoren *Nere aldiko kronika* (Auspoa 275) eta I. Olearen *Ostiraleko Kronika* (Auspoa 278-279) liburuak argitara eman ditu. Eta Eusko Jaurlaritzako Kultura saillean *Estitxu* eta *Basarriri* buruzko liburuxkak.

Euskaltzain urgazle izanik, Euskaltzaindiaren Herri Literatura batzordeko kide da gaur egun.

Segi, Mugartegi



AUSPOA • SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Joxemari Iriondo

Segi, Mugartegi

Auspoa Liburutegia
2003

© Joxemari Iriondo

© SENDOA ARGITARALDIA

ISBN: 84-95378-65-5

Lege Gordailua: NA. 451-2003

Fotokonposizioa eta imprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Lizarra (Nafarroa)

Hitzaurrea

EZ natzaizu hasiko Jon Mugartegiren nondik norako Ezehatzak kontatzen liburuaren atarian, irakurle. Baina zenbait argitasun eman beharko dizudala nago, orrialde bakoitza arretaz irakurtzen duzunerako. Edota sarreran nere diosola eskeini liburuxka honen orrietan murgildu aurretik.

Soldaduzkan gaixotu eta etxera etorri zenean, hura ezagutzen zuen inork ez zuen asko uste Mugartegi berriz plazan kantatzeko gai izango zenik. Ezta berak ere. Lurra jota zegoen animoz. Baina txapelketak bere alderdi makurrak eta onak izaten ditu, eta Mugartegirentzat salbamena izan zela esan daiteke. 1959an Bizkaiko txapelketarako kanporaketa Markinan egitekotan zirela eta bere betiko bertso-lagun Azpillaga haundia han joan zitzaion berriz ere etxetik irteten hasteko garaia zela esanez. Markinako txapelketara biok joan behar zutela. Eta hala, ezetz esan ezin eta berriatuarraren karrera handik hasi zen berriro. Gero, liburu honen azkenaldean Luis Baraiazarra euskalzale eta bertsozale haundiak esaten duen bezala, 1960ko emaitzei begiratuta, Jon Mugartegiren urterik onenak orduan hasi zirela esan daiteke. Eskualdeko txapelketa hura berak irabazi zuen, Markinan. Baita final aurrekoa ere, Ondarroan. Eta Bilboko zezen-plazan egin zen finala ere bai, azkenik. Pentsa gehiago plazara ez azaltzeko erabakia hartuta zegoen batentzat nolako hasiera izan zen.

1960an Euskal Herri osoko txapelketa egin zenean, berriatuar biak joan ziren Bizkaiaren izenean Donostira:

Mugartegi eta Azpillaga. Gipuzkoar gehienentzat ezezagunak ziren artean. Eta, "... bizkaitar oiek zer egin bear ote dute Basarri, Uztapide eta abarren ondoan?" - galdetzen omen zuen bertsozaleak, Txomin Garmendiak dioenez. Baina gazte ausartak izan, eta zerbait baino gehiago egin zuten: Azpillaga hirugarren gelditu zen eta Mugartegi, zortzigarren. Handik aurrera, Gipuzkoako edozein jaialdi eta bertso-saiotan kantatu zuten biek ala biek. Eta handik aurrera, adoretzu eta ausardia osoz, plazaz plaza hasi ziren. Txapeldun edo txapeldungai izan gainera, askotan. Baina harrokeriarik gabe. Gustora bai, baina burumakur. Halare, harrokeria edo autoestima pittin bat gehixeago izan balu, beretzat hobe, seguruenik. Ez da ona harroskoa izatea, ez, baina apalegia denak ere bereak eta asto beltzarenak ikusiko ditu herri honetan. Erdiko ganbara dela tokirik onena esan ohi zuen gure aita zenak. Arrazoi zuen, noski.

Bertsozale, bertso txapelketa askotan epaimahaiko, gai-jartzaile eta aurkezle izan den Abel Muniategik egoki kontatzen duenez, errimaren egokitasuna ekarri zigun Mugartegik, kantaera gozoa, ritmikoa, ahapaldi xamurrak, teknikaren presentzia. Ez zen izan bertsozaleen erregali hutsa Mugartegi eta Azpillaga Gipuzkoan onartu ziren bezala onartzea. Zerbait atsegina ekarri zutelako hasi ziren herrietako jaialdietan programatzen. Inork ezpaitu ezer erregalatzen hutsaren ordainez.

Euskal Herriko txapelketa hura egin zenean, hemen-dik urruti samar nintzan ni; eta berriatuarra ezagutu 1963an ezagutu nuen, Azpillagaren bidez. Bertsoan ondo egiten zuela ohartu nintzan berehala. Baina, batez ere, mutil jatorra eta gaitzik gabeko horietakoa zela. Bertsoa erraz egin, eztarri ederraz kantatu eta zerbait eskatuz gero, hark ez zekiela ezetz esaten. Ezin izan zitekeen hobetik batetik bestera bertso eske zebilenarentzat.

Eta ezagutza hartatik sortu zen 1964ko otsailetik maiatzera Loiolako Herri Irratian antolatu genuen *Bertsolari gazteen hirugarren* sariketarako gonbitea. Jakina denez, gazteak baina izen pixka bat zuten bertsolariak biltzen saiatzen ginen, nahiz eta ez genuen oraingo komunikabideetan hainbat kezka eta larrimin ematen duen entzule-riaren *share* eta *rating* dontsuaren entzuterik. Baina irra-tientzulea erakarri beharraren kezka bazen orduan ere, hi-laren azkenean fakturatu behar zen publizidadea garran-tzitsua zen-eta. Nunbaitetik bizi behar, ba, halako irrati txiki batek ere.

Sekulako arrakasta izan zuen Mugartegik sariketa hartan. Eta urte hartako txapeldun hautatu zuten entzule-ek. Bertsolariak bi-bitara egiten zuten saioa igande eguer-dietan ematen zen irratis. Eta gero, entzuleek bere eraba-kia ematen zuten, entzule bakoitzeko boto bakarra bidaliz irratis. Astean mila gutun edo gehiago jaso ohi genituen. Asko eta asko, bertso politetan gainera. Eta gero, 1965ean, bigarren gelditu zen, Azpillagaren ondoren.

Urteak joan dira geroztik. Eta urte askoan zehar bil-dutako bat-bateko bertso asko, eta azkenengo bi-hiru hila-bete honetan presaka bildutakoak sortatu, eta *Segi, Mugar-tegi* esan nahi izan diogu berriatuarrari, berriz ere idazte-ko animatuko den itxaropenez. Halare, egia esan behar badizut, ez dugu geuk asmatu liburuaren izena. Ez. 1964ko Loiolako sariketa hartako bertso/karta eta botorik bitxienak jaso eta gordetzen saiatu nintzan, beste askotan bezala. Eta lehiaketa hartakorik ezer bai ote nuen begira-tzen hasi eta, zer nolako poza! Aspalditxoan apalan baz-tertuta lo zegoen karpeta zahar bat ideki eta lau-bost ber-tso aurkitu ez ditut ba? Eta horietatik hiru, Mugartegiri botoa eman ziotenak, hain zuzen: Legazpiko Martin Ugarte *Saletxe*, Eibarko Shegundo Iturralde, eta Urnietako Miren Arizmendirenak dira. Hirurak ere euskalzale eta

bertsozale haundiak, baina hirurak hilak dagoeneko. Bestalde, gai-jartzaile ofizioan nenbilela neuk ere behin baino gehiagotan aginduko nion segitzeko, Urnietako antzerkilari, bertsozale eta euskalzale haundiak sariketa amaitu eta hurrengo egunean (maiatzak 18) idatzi zuen bezala: *Eta txapeldunari: Segi, Mugartegi*.

Bat-bateko bertso jaialdietakoak, Santageda eskeko bertsoak eta lagunarteko saioetan botatako beste bertso asko izango du Mugartegik, han-hor-hemen sakabanatuta. Ez dut zalantzarik egingo. Eta horietako asko, hemen jaso ditugunak baino hobeak izango dira, agian. Izango ditu ahaide edo lagunak batek eskatuta egindako bertso jarriak ere. Baina balitz eta balegorekin ezin ezer egin, eta eskuartean genituenak eta Mugartegi berak azkenengo hilabetetan eman dizkigunak Auspoako liburu honetan sortatu ditugu, gehiago ere egin ditzan *segitzeko* esanez.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet Mugartegi familiari, Sendoa argitaletxeari, Euskadi Irratiko Nikolas Aldairi, Abel Muniategiri, Luis Baraiazarrari, Inozentzio Oleari, Jon Azpillagari, Txomin Garmendiari, eta bilketan lagundu didaten guztiei. Eta batez ere zuri, Auspoako irakurle zintzo horri.

Joxemari Iriondo
2002ko abendua



Mugartegui bertsoan. Donostia 1968.

Eskaintza

Aurpegi eman bearra dago
ainbat arazo gogorri.
Erriarentzat mezu txiki bat
bearko nuke igorri.
Jarraitutzea komeniko da
lengo oitura zar orri,
liburuxka bat izango bada
gure pozaren iturri.

Zalantza batek loturik nago,
balitz eta balitzake.
Beti ez dago jarraitutzerik
etenik gabe jo ta ke.
Liburu on bat ateratzeak
badu gero ainbat neke!
Itxurazkoa izan ezkerro
asko poztuko nintzake.

Ainbeste egun, ainbat gau triste
liburu bat egiteko!
Zalantza ori beti buruan
ez ote duten maiteko.
Ordu askoko buruaustea
odolak irakiteko.
Esaterako, bear bezela
ez ote dodan beteko.

Gazte denboran eskolaz ere
ez nintzan asko prestatu,
naiz eta gure goiko Jaunari
otoitz asko errezatu.
Ondo pentsatzen jarri ezker
badaukat zertaz kezkatu...
Baiña alegiñak egingo ditut.
Geiagorik ez eskatu!

Nire izaera ezjakiñaren
alde txarrak eroan du.
Orain ikasten asteko ere
ez al da naiko berandu?
Izkuntzak ditun elbide danak
nik ezingo ditut landu.
Mugartegiren barren estuak
kezka ori beregan du.

Ni ausartu naiz aurpegi emoten
ainbat kezka ta zalantzi.
Aukera eskeiñi dozuelako
eskerrak eta goraintzi!
Utsegiteak izango ditut,
ez eman ainbat garrantzi.
Ezjakin batek sasi-larreak
lozez ezin ditu jantzi.

Mugartegiren sortetxea

Jon Mugartegi Iriondo, *Mugartegi* bertsolaria, 1933ko Abuztuaren 26an jaio zen, oraintxe bizi den Berriatuko Patroikua baserrian, familia haundi batean. Guztira bederatzita anaia-arreba izan ziren, eta bera zaharrena, etxeko maiorazkoa.

Aita, Andres Mugartegi Laka, Andonegi-Etxebarri baserriko semea zen. Eta ama, Maria Iriondo Bastida, Andonegi-Errotako alaba. Auzotarrak biak, bistan denez. Halare, ezkondu zirenean, andre alargun bat bakar-bakarririk bizi zen Berriatuko Patroikua baserrian eta hantxe jarri ziren bizitzen.

Etxe honen benetako izena Patroikua zen eta da, nahiz eta *Astapotxue* izenez ezagunagoa izan den herriko jendearentzat. Izan ere, etxearen ondoan putzu bat bazen aspaldi, eta horri deitzen zioten *astapotxue*, inguruko baserrietako astoak hantxe lotzen baitzituzten edan zezaten. Horrexegatik, bada, bertsolaria jaio zen baserriaren berezko izenaren orde, *Astapotxue* izena erabili izan dute berriatuarrek, askotan.

Patroikua edo *Astapotxue* deritzon baserri honetan jaio zen, bada, Mugartegi bertsolaria. Alabaina, gaur egungo Jon ezagututa ez dirudi halaxe beharko zukeenik, mutikoa bihurri samarra izan nunbait eta olgetan-eta zebilenean askotan kaminora irtetzen zela eta Andonegi-Errotara eramane zuten gerra garaian, hiru-lau urte zituela. Eta hantxe hazi zen aitaita, amona eta osaba-izekoekin,

harik eta hamasei urte bete eta berriz ere Patroikuara etorri zen arte. Bertsotan plazaz plaza ere Andonegi-Errotatik hasi zen, beraz.

Zaharrena etxerako

Bederatzi anaia-arreba izan ziren, lehen esan dugunez. Baina Paskual anaia hil zen, eta zortzi bizi dira orain. Lau arreba: Pilar, Antoni, Julita eta Mari Karmen. Eta lau anaia: Jose Benito, Mateo, Jose Mari eta Jon.

Jon berari tokatu zitzaion Patroikuan gurasoen oinordeko izatea, zaharrena etxerako izatea aspaldiko ohitura izan bait da Euskal Herriko baserrietan. Eta lege edo ohitura zahar horrek eman zion Joni baserrian jarraitzeko aukera eta zoria.

Mugartegitarrak herrian bertan, edo herritik hurbil samar bizi dira, gehienak behintzat: Berriatuan, Ondarroan, eta Zornotzan, hain zuzen. Jose Mari, saski pilotari izan zen eta Milford-era joan zen, jokatzera. Eta hantxe gelditu zen gero bizitzen. Aldian behin etortzen da etxe-koak bisitatzerara, baina berriz ere haruntza joaten da, hantgotar eginda dago-eta. Bizimoduaren legea horrelaxe da.

Bestalde, Berriatuko Patroikua ez da baserri haundia, baina familia galanta hantxe hazi zen, nekazaritzatik eta ortu-lanetik. Bizpahiru esnebehi ere beti eduki izan dituzte, etxerako behar den esnea sortzeko, gainerakoa kalean salduz. Ohitura horri eusten diote oraindik ere. Baina badirudi denbora gutxirako izango dela. Izan ere, baserria kale inguruan izateak baditu bere abantaila eta erosotasunak, baina bai oztopoak ere. Berriatuko herria asko hazi da azkenengo urte hauetan, eta baserri honetako lurrik gehienak etxegintzarako hartu dituzte dagoeneko. Eta lehen baserri txikia bazen, geroz eta txikiagotzen dihoa. Aurki ezkutatuko dala uste du Jonek.

Orain urte batzuk, Andonegi-Errota, Patroikua, bere guraso eta anaia-arrebei jarritako bertso batzuk baditu Mugartegik. Eta atal honetarako egoki datozela iruditu zaigu.

Oraindik ere zutunik dago
Andonegiko errota.
Ama zanaren jaiotetxea
ezin nezake gorrota.
Bertan amamak azi ninduen,
artu bear nuke nota.
Iñoiz aztuko ez zaidana da,
oso gustora nago-ta.

Auzoan bertan dagoena da
Andonegi-Etxebarri;
aita zanaren jaiotetxea
naiko neuke iragarri.
Aita ta ama auzotar biak
maitasunaren egarri,
sentimenaren gozotasuna
eskeiñi nairik elkarri.

Ezkondu eta bizi izaten
Patroikua baserrira.
Andre alargun bat zegon emen
zartzaroari begira.
Nunbait laguntza eskeiñi bear
tokatutzen zan neurrira...
Obe gaur ere guraso asko
orrela bizi balira.

Erri barruan dagoena da
Patroikua deitzen dana;
baserri edo kale-baserri,
bietatik erdibana.
Ez dakit nola eskertu ere
gurasoen iragana...
Sendi aundi bat azi gintuzten
gogotik egiñaz lana.

Bost mutil eta lau neskatilla,
famili arrigarria.
Alde batera tristea baiña
baita ere deigarria,
gaur egunian gertatzen dana
ez al da penagarria?
Orduko erdiak jaio ezker
zaindu liteke erria.

Emen amaitu bearra daukat
nire pozak eta penak.
Niretzat ere urte gozoak
ez dira izan geienak.
Baiña guztiak konpontzen ditu
bide onez dabillanak.
Guraso eta beste guztiei
nire eskerrik umillanak!



Jon eta Urrupiñaren ezkontza
Itziarren, 1967.11.25ean

Guraso zoriontsua

Soldaduzkara joan aurretik ezagutzen zuen gaur egun bere emaztea den Urrupiña Urruzuno, Gorozikako Iramitegi-behekoa baserriko alaba. Baserri hau Berriaturako egiten da udalez; eta elizaz, Ondarrurako. Orduerdiko bidea dago, gutxi gorabehera, baserri batetik bestera, oinez. Eta behin baino gehiagotan joan ohi zen Jon jai ilunabarretan-eta neskari laguntzera gustora asko, gerorako ere lagun ona izango zuen esperantzaz.

Alabaina, soldaduzkatik oso gaixotuta etorri zen, eta hiru urte edo gehiagoan ez zuten izan harremanik neska-mutilak. Dena bertan behera utzita eduki zuten, bada. Hala ere, sendatu zen bezain agudo, lehen ikasitako bide zaharri heldu zion berriro mutilak. Ez zeuden elkarrekin



Mugartegitarrak bere seme-alabekin.
1981.03.02an

ahaztuta, ez. Eta azkenik, 1967ko azaroaren 25ean ezkondu ziren, Itziarko Andre Mariaren elizan. Eta gero, semea eta alaba izan zituzten: Nerea eta Jon.

Nerea, ezkondu eta gurasoekin bizi da gaur egun, Patroikua baserri berean. Eta semea eta alaba izan dituzte, aitona eta amonaren jostailu eta amets: Urtzi mutiko sendoa, eta Oihane ilehoria. Bata baino maitekorrago bestea. Neska-mutikoei buruz hizketan hasitakoan ahoa betetzen zaie zaharrei. Zer nahi duzute, bada?

Urtzi sekulako mutikoa dago, eta ikastolatik irten eta etxera heldu orduko, pilotan ikastera joaten da Markinara. Baina eskuz-eskuzakoa izan nahi du, osaba Jon eta Ameriketako Joxe Mariren saski pilota gustatzen bazaio ere. Oso indartsua omen dator mutikoa, eta pilotan egokia. Beno, aitonak esaten duenari beroarena pittin bat kendu beharko zaio, agian. Baina zerbait izango da. Ez da zalantzarik.

Bestalde, Miamiko pilotalekuan jokatzeko du gaur egun seme Jonek, saskiz. Eta aldi berean behin etxera etortzen danean, aitak egindako bertsoei astindu ederrak ematen dizkie. Besteak beste, aitak eskuz idatzitakoak hartu eta ordenagailuan idazten dizkio, egoki asko. Bertsolari-eskolan ere ibili zen Jon semea garai batean, eta bertso-ofizioa ondo ezagutzen du, eta erruz gustatzen zaio. Aitarekin hutsarteak ondo asko betetzen ditu hark. Eta pilotan, zer esan? Gurasoek erdi lotsatuta baina bidezko harrotasunez kontatzen dutenez, mutil haundia ez da baina bai pelotari fina. Eta ez hori bakarrik: ikasle zintzoa ere bada. Pilotak uzten dion denbora librean, ingeniarietza ikasten ari da, eta karrera laister amaituko du. Aitortzeko ere bada beleak zikindutako hesola hainakoa!

Bertsolari eta pilotazale

Ez genuen ezagutzen Berriatuko bertsolariaren alderdi hori, baina Jon Mugartegi bera ere oso pilotazalea da, betidanik. Gaur egunean dauden erreztasun eta laguntasunak izan balitu, bertsolari bezain pelotari izan zitekeen, seguruenik. Dioenez, sekulako afizioa zuen mutikotan. Eta eten arte hantxe ibiltzen zen herriko pilotalekuan, beste mutikoekin norgehiagoka. Gero, anaia Joxe Mari saskiz pilotan ikasteko Markinara joaten hasi zenean, inbiriz egoten zitzaion begira. Izan ere, berari gustatzen zitzaion ofizioa anaia gazteagoak ikasi zuen. Horra baserri bateko maiorazko izatea zer den askotan! Gurasoen oinordeko izan eta baserriari eusteko zaharrenak sakrifikatu behar.

Urte onak eta zailak pasatzea egokitu zaio Mugartegiri bizialdi honetan. Baina orohar, bere jarrera ezagututa, guraso zoriontsua dela esan daiteke. Bertsolaritzak hainbat plaza, bazter eta lagun ezagutzeko aukera ederra eman dio, urteetan zehar. Baina "etxean baino hobeto inun ez da egoten gizona!", esaten du sarritan. Eta guk sinistu. Familiko gizona da Jon. Emazteari, seme-alabei eta bilobatxoei begira zorionez egoten den horietakoa.

Ondoren datozen bertso hauek, 2000. urtean jarri zituen, biloba Oihanek urtebete egin zuenean. Aitonaren sentimentuak kantatzen ditu, bete-betean.

Bilobatxoa maite dodala
ez naiz guzurretan ari.
Neure barruko sentimentua
eskeintzen diot berari.
Izarren pare konparatzea
ez litzateke mirari...
Nire biotza unkitutzeko
ez al da naikoa ori?

Umeak bere doaiak ditu,
ez dakit zenbat guztira.
Gure bizitza aldatu dozu
itzaletik eguzkira.
Zure irribarre gozoa eta
begi ederren dizdira!
Sentimentua duen batentzat
aztutzekoak ez dira.

Berbetan asi baino aurretik
asi ziñan irribarrez,
oi dan bezala, aldi berean
garraisika ta negarrez.
Une danetan zer nai zendukean
ez dago asmatzen errez...
Amak ondoen gozatzen zaitu
laztanez eta bularrez.

Ume txiki bat ezin da laga
baztertuta, egalean,
zorionean ikusi nairik
guztiok egiñalean.
Amonak berak lokartzen zaitu
maitekiro, magalean,
amets gozotan lo egiteko
seaskatxo zabalean.

Berba batzuek egiten ditu
inoiz, aita edo ama.
Geiago naiko genduke baina
ezin da eskatu dana.
Oi dan bezala, astiro baina
prozesu ona darama...
Dagoeneko jarri diote
sorgin bizkorraren fama.

Oiñez ibiltzen ikasi dozu
suabe ta gozo-gozo.
Iñoiz lurrera jausi ezker
badaukazu zeinek jaso.
Sukaldeari bueltak emoten
moldatzen zara eroso.
Ikusten ere ezin aspertu,
ain da atsegiña oso.

Bertso batzuek abestutzeko
emen daukozu aitona,
atsegingarri izango dala
ustez ala deritzona.
Zein neskatilla dotorea dan
Oihane deitzen zaiona!!!
Ez dago diruz ordaindutzerik
onek duen zoriona.

Bertso batzuek eskeiñitzeko
banuen borondatea.
Itxaropenak zabalduzen dau
itxita dagon atea.
Onenbestekin agurtzen zaitut,
neure billoba maitea!!!
Nai nukena da aurrera ere
zoriontsu izatea.



Biloba Oihane

Beste hauek ere 2000. urtean jarritakoak dira. Baina oraingoan biloba Urtziri jarritakoak. Izan ere, aitona-amonak zoratzeko aski dira Urtzi bezalako biloba sendo eta alaiak. Eta Joni ere horixe gertatu, ez dago irakurri besterik.

Mutiko gazte eder askoa
Urtzi deitzen dioguna!
Bere izaera oso jatorra,
izlari gozo, biguna...
Aittittarentzat biloba ona,
beste askoren laguna.
Zintzotasuna gorde dezala,
orixe da nai doguna.


Zure aittitta noraiño doan
kontuak atara, Urtzi:
biak batera egin nai zaitu,
laztandu eta igurtzi.
Aldi berean zureganako
maitasuna erakutsi.
Trebetasunik ez dozu falta.
Doai eder orri eutsi!

Amar urteko adiñarekin
mutiko ederra dago.
Alperrik ez du ezer galduko,
gustoko onik badago.
Nai duen eran mantendutzen da,
aukera ori non dago?
Baiña geiegi ez da komeni,
nire zalantza or dago.

Kirolaria izan nai luke,
gaiñera eskupilotan.
Orretan ezer egin nai badu
ezingo da egon lotan.
Ez genduke nai derrigortzerik
ezer ez egitekotan...
Baiña norberak nai dun bezala
ez da izaten askotan.

Alegin asko egin bear da
pilotari izateko.
Ez da naikoa prest egotea
jateko ta edateko.
Kirol munduko bide luzea
aurrera eroateko,
asko saiatu bearra dago
maila ona emoteko.

Pilotaria izan nai luke
aundia eta abilla.
Gazte bat ezin liteke joan
asmo obearen billa.
Kirolariak izan bear du
sendoa eta umilla...
Egunen baten zure ametsa
egi biurtu dadilla.



Biloba Urtzi
pilotari-landarea

Jaio eta bizi

Jaio eta bizi, Berriatuan egin du Mugartegik. Eta liburuxka hau egiteko asmoaren berri eman genionean, bere jaioterriari buruz zerbait idatzita bazuela esan zigun. Eskatu genion, bada, eta honako hauxe eman zigun. Argi dago bere herriarekin maiteminduta bizi dela oraintxe ere, benetan maite duela jaio eta bizi den herria. Hitzez hitz, honelaxe idatzi zuen:

Berrittuko herria oso politta da. Baserri girokoa, nahiz eta baserrik gaur egun ez dan jende asko bizi. Gehienak kanpoan egiten dabe biharra, baina baserriak lehengo lekuan jarraitzen dabe.

Sei auzogune ditu, oso dotoriak. Goiko kaleko San Juan ermittia, plaza inguruan. Kale giroko auzoa, eta ondo apaindua. Beheko kalia barriz, Aitte Gurutzekue deitzen dautsogun ermitta zoragarria dauko. Hain zuzen be, neu eta ingurukoak bizi garen auzogune maitagarria da hau. Ederra eta atsegiña.

Eta aurrera jarraituz, hor daukogu Gardotzako Andra Mari, poligono inguruan dagoen ermitta dotoria be. Eta beste baseliza ikusgarri bat hor dago Arantzadiko Madalena auzoan. Ospakizunik haundienak egiten diren auzogunea bera izango da, duda barik. Milloiko San Antolin be hor daukogu. Auzo alaia, bere ermitta ta guzti. Urtero jai haundiak egiten dira, eta jende asko batzen da han.

Amaituteko, Asterrikari buruz zer esan? Erdia Berriattu eta beste erdia Ondarruk osatzen dute auzogune eragarkagarri hau, itsasua aurrez aurre dabela. San Lorentzotan egiten dira bertoko jaiak, eta jendearen aldetik erantzun ona izaten dabe.

Bestalde, industria arloro joanez, Berrittu oso ondo dagoela esango neuke. Esate baterako, Cikautxo izen haundiko kooperatiba hementxe dago. Inportantzia haundiko lantokia da, duda barik. Eta beste batzuk be badagoz:

Kautenik, Kide eta tailer txikiagoak, oso inportanteak darenak.

Garbi ikusten da Berrittuko herria bide onetik doiala. Eta herri txiki bat izateko, askoz hobeto ezin leikeela egon. Nahi gendukeena da urte askuan jarrai dezala holantxe.

Egun batzutan argi,
bestietan itsu,
nai nukeena da beti
aurrera begittu.
Gure erri politak
aukerak badittu.
Egia esan, asko
maite dot Berrittu.

Erri politta dala
au gauza jakiña.
Danon sentimentua
ez da, ez, bardiña.
Alkar ulertzen egin
daigun alegiña.
Ola danok gustora
biziko bagiña...

Ondo begitu ezker
modu apaletik:
ingurune polittak
mendi egaletik.
Baserri-lur ederrak
luze zabaletik,
oso mailla onian
industri aldetik.

Aitte Gurutzekue
dagula zaindari,
ez al da guretzako
naikoa mirari?
Auzogune politta
bizileku sari
eskeiñi dozkulako
eskerrak berari.

Plazan bertsoan

Bertsolaritza, eta batez ere bere bertsozaletasuna noiztikakoa duen garbi esan ohi du Mugartegik, behin eta berri:

Hamabi-hamahiru urte nebazala bertsoa gustatzen hasi zitzaidan niri. Eta nire amona izan zela esango neuskizuke nire lehenengo bertso-sua edo txinpartak biztu zittuena. Koplak eta bertso zaharrak kantatzeko ohitura haundia zuen hark, eta berak erakutsitako koplak zahar asko kantetan hasi nintzan neu be, zazpi-zortzi urte neukazala. Gure amonak oso ederto kantatzen zuen. Eta bai nik gustora ikasi be. Huraz gogua bertsoarako! Eskolarako baino hobia, egia esateko. Ni bertsozalia nintzan eta ez eskolazale haundia...

Eta halaxe, bat-bateko bertsolaritza ezagutzeko aukera etorri zitzaion behin batean. Hamabi-hamahiru urte zituela, Basarri eta Uztapide eraman zituzten Berriatura, herriko jaietan. Etxetik-eta haien entzutea bazuen lehendik ere, baina bere herrian aurrez aurre ikusi zituenean, haiei entzuten egon zen ahoa bete hortz, esaten zuten guztia jaso eta hartuz. Eta sekulako eragina izan zuen saio hark Mugategirengan, berak dioenez. "Pentsatu: ondorengo egunetan, haiek imitatzen ibiltzen nintzan, eskuak atzean jarri eta bertsoak kantatuz. Beno, hala moduzkoak izango ziran. Baina bertsoarako sekulako biharra sentitzen neban nik orduan".

Eta horrelaxe hasi zen bertsolari gaztea. Denak bezala, lagunartean lehenengo, igande arratsetan tabernan, erromerietan eta horrela. Txanda egingo zion lagunik izanez gero, nunahi kantatzeko prest egoten zen.

Plazan ere laister hasi zen, nahiz eta hori salto haundia zela jakin. Hamasei urte zituen Mugartegik lehenengo aldiz plazan kantatu zuenean. Pasaian jaio eta Berriatuko Torre baserrian bizi zen Jon Azpillaga ondo ezagutzen zuen ordurako, eta beraxe izan zuen lehenengo bertso-lagun. Gero, ehundaka aldiz kantatu dute biek elkarrekin. Eta ondo baino hobeto konpondu izan dira ume-umetatik, ezaguna denez. Ez da harritzeko. Izan ere, bata baino bestea mutil hobeak, bihotzaundigoak baitira. Hasarrea eta petralkeria zer den ez dakitenak.

Egiazko jendaurreko debuta, Amorotoko plazan egin zuten biok. Izan ere, 1949. urtean Basarri eta Uztapide eramán zituzten Amoroton bertso-tara, San Martin zaindariaren jaietan. Baina gero, 1950ean, Berriatuan bi gazte bazirela tabernatan-eta bertso-tan ondo moldatzen zirenak-eta, haiexek eramatea erabaki zuten herriko Luistar gazteek. Ohikoa zenez, ez ziren oso harro ibiliko diruz-eta, jaiak antolatzeko. Mugartegik 16 urte zituen. Azpillagak berriz, 14. Eta Basarri eta Uztapide baino modu hobexean eramateko ere aukera-aukerakoak ziren, beraz.

Amorotoko egunari buruz, hauxe dio Mugartegik:


Azpillaga eta neu giñan bertso-tan egun hartan. Eta Angiozarko Itsua - Felix Aranzabal - eskusoinua jotzen. Ez dakit ezagutuko dozun, baiña oso soinu-jole ona da hura. Guk udaletxeko balkoitik kantatu genuen, batere mikrofono eta altaboz barik. Jendea dena begi eta dena bedarri egon zan han, errespeto itzalean.

Baiña, badakizu zer pasau zitzairen hango gazteei? Ba, bi mutiko bertsolari haientzat ez egoala txakurtxiki bat be; eta saioaren ostean txapela pasau eben jendearen artean, bertsolariantzat txanpon batzuk batzeko, nahiz eta bazekiten jende gazteak oso diru gutxi izaten zuela orduan. Eta pentsatu nolako giroa zegoan han: 400 pezeta batu ei eba-zen! Diru asko ordurako, Amoroto bezelako herri txiki ba-

tean. Bertsolari bakotxarentzat 200 pezeta, alajaiña! Eta ordurako diru asko bazan, guretzat lehenengo journala, pentsaizu. Jon Azpillagak esan zidanez, egunian 6 pezeta irabazten zituan berak tailerrean.

Hala behintzat, 200 pezeta izan zan gure lehenengo journala bertsotatik. Ondo hasi giñan, ikusten dozunez. Gero beti neurri horretan jarraitu izan bagenu...

Amorotoko lehenengo saio hura pasatu eta handik 50 urtera, Mugartegi eta Azpillaga berriz eraman zituzten Amorotora, bertsotara. Eta lehengo baldintza beretsuan kantatu behar izan omen zuten: mikrofono eta altabozik gabe, eta udaletxeko balkoi beretik. 2000ko uztailaren 4an, San Martin egunez, egin zen jaialdi hori. Hamabost minutuko saioa egin zuten, eta gai libre-librean. *Hasi, Azpillaga* (Auspoa 272) liburuan jasota daude bertso hauek:



Mugartegi eta Azpillaga
Augustin Zubikarairen omenaldian 1988

- Mug: Asierako agurraldia
izaten da gogorrena.
Saio polita eskeiñitzea
dogu gauz orren urrena.
Emen aitortu bearra dago
memorira datorrena.
Entzule danoi opa dizuet
agurrik maitekorrena.
- Azp: Jaungoikoaren borondatea
izan dedilla zuekin.
Berrogei ta amar urte badira
emen giñala alkarrekin.
Bitartean zer egingo gendun
inork ez leike, ez, jakin...
Eskerrak goiko Jaungoikoari;
eskerrak zuri, San Martin.
- Mug: Berrogei ta amar urte bete da
bertsotan asi giñala.
Arrezkeroztik, erri ta erbeste,
egin degu egiñala.
Une onetan zer sentitzen dan
ezin esan beriala...
Esango nuke: usterik gabe
urteak joan dirala.
- Azp: Esan dezaket: gelditzen dira
marka guztiak autsita,
orduan emen egon ziranak
gutxi ditut ikusita.
Makinatxo bat erri jatorri
egin diogu bisita,
Euskadi dana ikusi dogu
Amorototik asita.

- Mug: Zer esan ere ez dakigula
ainbeste lagun jatorri,
oraindik ere eltzen diogu
lengo oitura zar orri.
Zuek aurrean ikustea da
gure pozaren iturri.
Joan zirenak ondo joan ziran,
datozenai ongi etorri.
- Azp: Orduan beintzat izan genuen
kantatutzeko aukera.
Berrogei ta amar pasatu dira,
eta urteak aurrera.
Gaurko moduan egonez gero
emendik amar urtera,
zuen gustoa izan ezkerro
pozik etorriko gera.
- Mug: Gazte denboran ibiltzen giñan
orain baiño ariñago.
Urteak ere joan dira ta
alde piska bat badago.
Baiña oraindik zartzaro orrek
badu ainbeste abaro;
oraindik ere bizi gera ta
zer bear degu geiago?
- Azp: Sasoia beti onena bada
egundaiñoko islada,
guk badakigu gaurko gazteak
ondo ibiltzen dirala.
Gaur daduzkagun bertsolariak
eiten dute egiñala.
Faillo txiki bat guk izan gendun:
formalegiak giñala.

- Mug: Gure arteko eztabaida au
ez da benetan ariña.
Laister isillik egon bearrak,
orrek ematen du miña.
Baiña oraindik gorde nai dogu
barruan kantatu griña;
lengo bidean segiko gendun
gazteak izan bagiña.
- Azp: Franko denbora genduen eta
ez giñan oso tristiak...
Ezin zitezken balkoitik esan
pentsatutako guztiak.
Baiña orduan bertsoaritzan
zabaldu ziran atiak.
Guk egin gabe utzitakuak
ein ditzatela gaztiak.
- Mug: Ez da erraza gauza guztiak
bide onez eramaten;
aldizka nonbait okerrak ere
ortik badira joaten.
Baiña alegiña egin dezagun
barrun doguna ematen,
orrez gaiñera danen aurretik
euskaldun onak izaten.
- Azp: Goguan daukat Amorotoko
egun artako gradua:
don Jose zegon emen abade,
gustatzen jakon ardua.
Guk'e orduan tabernan sarri
egiten gendun tragua...
Mozkorren fama gendun guk baiña
geu baiño mozkorragua.

Mug: Artu dogunez noizbait zabaldu
izan da gure atia,
irudipenak illundu eta
ausardiaren katia.
Baiña nik emen eman nai nuke
gaur orren errematia:
ez dago ondo erri aurrean
dana garbi esatia.

Azp: Egia esan ederto neukan,
eta etorria era;
gaurko egunez eman nai nuen
bertsoaren bukaera.
Bertso elkarte ta bertso-eskolek
jarri didate barrera.
Beraz, ni sano nagon bitarte
jarraituko det aurrera.

Mug: Alabearrez, isildu bear
ta da guztien kaltian.
Itxaropena lagun arturik
emen ibilli gaitian.
Gazte denboran naiz ta egondu
arrazoi orren fuertian,
jarraitu daigun bertso kantari
bizi geran bitartian.

Azp: Berrogeita amar urte badira
bi saiotan giñan jardun;
ta gaur goizetik dogu bakarrik,
zer suertea daukogun!
Baiña gauza bat faltan artzen dot:
orduko ainbeste lagun...
Eta saiua bukatutzeko
puntuatan egin dezagun.

- Mug: Puntu batzuk alkarri
jarriaz aurrena,
Azp: jendearentzat oi da
gauzik ederrena.
Mug: Aitortu bearra dago
berez datorrena.
Azp: Oraindik ezagun dago
sasoiko gaudena.
- Azp: Gorputzak tente beintzat
ondo estaliak,
Mug: ala komeniko zaigu
ona etorriak.
Azp: Entrenamentu gabe
puntuan jarriak.
Mug: Orretzek dira benetan
gauz ikusgarriak.
- Mug: Alkarri lagun egiñez
biotzak alaitu.
Azp: Aurreko jendeak barriz
pozez jartzen gaitu.
Mug: Orrek ainbeste ta geio
merezi baiditu...
Azp: Onekin ez bedi buka,
aurrera jarraitu.
- Azp: Amoton sarri izan
gera bertsuetan,
Mug: neska laguntzen ere
noizbait, batzuetan.
Azp: Kantak jarri litezke
gure pausuetan...
Mug: Azpillaga inoiz galdu zan
zuen auzuetan.

- Mug: Neska laguntzen joana,
beraz, garai batian?
- Azp: Ori ez zan izaten
neretzat kaltian.
- Mug: Ni, barriz, itxaroten
tabernako atian.
- Azp: Bapo jartzen ziñan zu
jan ta edanian.
- Azp: Batek joan bear bazuen
neu joan bear ko.
- Mug: Ortako ni ez nintzan
ez eder ta guapo.
- Azp: Iñork ez zuen artzen
txikia zalako...
- Mug: Gauza guztiak beti
neure kalterako.
- Mug: Pikardiaren falta,
ez zegon besterik.
- Azp: Oso mutil lotsakor
izan zan gazterik.
- Mug: Orregatik ez nago
gaurkoan tristerik.
- Azp: Zartuta nor daukogu
olako trasterik?

Eta azken agurra, honelaxe egin zuten, Amorotoko plazan:

Mug: Berrogei ta amar urte luzetan
jarriak bertso kantari,
geure ustetan sekula ere
faltatu gabe iñori.
Ondo pentsatzen jarri ezkerro
ez al da naikoa zori?
Orain gureztat omenaldia
eskertzeko bada ori.
Ondo izan eta agur ta erdi,
eskerrik asko danori.

Azp: Istoriakin ikusten da, bai,
urrutira goazena.
Baiña oraindik ez da amaitu
bertsoaren almazena.
Egia esan, zuzena izan da
guk ibillitako sena.
Agurtutzen det emen bildu dan
jende zar ta gazte dena...
Guri etzaigu inoiz aztuko
Amorotoren izena.

Etenaldia bertsotan

Amorotoko plazan egindako lehenengo saioaren ondoren, Gorozikan, Eubako Pasiotarren ikastetxean, eta beste herri eta auzo askotan ibili zen Berriatuko bikote gazte modakoa. Bizkaian, Kepa Enbeita eta besteren bat kenduta, ez baitzegoen beste bertsolaririk. Eta hutsarte hori oso ondo bete zuten gazte bion artean.

Baina, urteak aurrera joan eta soldaduzkara joateko garaia etorri zitzaion Mugartegiri, beste gazte askori bezala. Baserriko lanak, familia, andregaiia eta lagunak agurtu, eta joan egin behar, hutsaren peskisan:

Bai, hara be joan nintzan hutsaren peskisan, zoritxarrez. Alperkeria beste zereginik ez, baiña beharko joan! Orduan ez zegoen ezetz eta horrelakorik esaterik. Ez daki asko hori orduko giro petrara ezagutu ez zuenak. Danak utzi, eta joan egin behar, ezer ez egiteko! Lana galdu, dirua kastatu. Hutsaren hurrengoa!

Eta oraindik okerragoa. Nik ez nuen suerte haundirik izan. Soldaduzkara joan eta gaixotuta, oso gaixorik etorri nintzan etxera. Lur jota. Eta hiru bat urte egon nintzan etxetik iñora urten barik. Oso jota nengoen, ezertarako gogo eta animorik barik. Urte txarrak pasatu nituen, egia esango dizut. Ez nuen pentsatu ere egiten handik urtengo nintzanik. Eta gutxiago barriro bertsoan hasiko nintzanik. Baiña munduak buelta asko emoten ditu, eta...

Horrelaxe da. Berriz ere etxetik irten eta plazan hastera behartu edo eramán zuen bere lehenengo bertso-lagunik onenak, Jon Azpillagak. Ez zaio batere gustatzen *behartu* hitza. Baina ondo gogoan dauka Mutrikukoak oraindik, 1959ko Bizkaiko txapelketarako Karmengo jaietan Markinako kanporaketa zetorrela-ta nola joan zen bere lagunaren bila, biok presentatuko zirala eta animatzeko esanez. Nola edo hala, animatu zuen behintzat. Eta horrelaxe hasi zen berriro. "Nik egin ezpanu, beste norbaitek animatuko zuen, seguru asko. Izan ere, Bizkai aldeko edozein bertsozale eta bertsolarik zekien berriattuarra mutil jatorra eta bertsolari haundia zela. Baina neri tokatu zitzaidan, eta gustora nintzan joango zela agindu zidanean! Ezagutu ere inork baino hobeto ezagutzen nuen nik Mugartegi. Pentsatu, alkarrekin hasi eta alkarrekin ibiltzen ginan. Eta beti ondo konpondu izan gera gainera. Zein

izango nuen bera baino lagun hoberik txapelketa hartarako be?”, dio Azpillagak.

Lagun asko

Mugartegik badaki ondo lagun asko eta Euskal Herriko bazterrak eta herriak ezagutzeko aukera eman diola bertsolaritzak. Eta beretzat oso lagungarri izan da guzti hori. Jakina, poz eta penak denetarik emango zion bertsolaritzak, baina ez dauka behin batean bertsotan hasitako damurik. Berriz hasi behar balu ere, berdin-berdin hasiko litzakeela dio: bertsotan gozatuz eta sufrituz, eta duena emanez.

Bertsolaritzan hurbil-hurbiletik ezagutu dituenen artean, Azpillaga haundiarekin hasi eta Joxe Mari Arregi *Altsu* herritarra, Markinako Juan Igarzabal *Buztarri*, Roman eta Modesto Maiz *Okelar* anaia biak eta Mañukorta ezagu-



Mugartegi, Azpillaga, Lizaso, Uztapide, Basarri, Lasarte, Lazkano, Egileor eta Agirre. Eibar 1963.11.17

tu zituen lehenengo. Eta gero Enbeitatarrak, Lopategi, Amuriza, Basilio Pujana, Joan Ormaetxea *Taket*, German Uriguen *Etxagiña*, Faustino Etxebarria, Julian Martitegi eta Bizkaiko beste bertsolari denak, plazan kantatzen zutenak behintzat. Gipuzkoan, Uztapide eta Basarri ezagutu zituen lehenengo, Berriatuan. Gero, Joxe Lizaso, Jose eta Bittor Agirre, Lazkano, Lasarte, Mitxelena, Lazkao Txiki, Etxebarria, Jesus Alberdi *Egileor*, Txomin Garmendia, Koxme Lizaso, Iraola, Joxe Insausti eta horiek denak ezagutu eta denekin kantatzeko aukera izan du, urteetan zehar. Nafarroako eta Ifarraldeko bertsolariekin ere sarri kantatu zuen garai batean: Arozamena, Andres Narbarte *Xalto*, Xalbador, Xanpun, Mattin, Ezponda etab.

Frantzisko Aranberri *Berriatuko Ezkerra* zeritzon bertsolari bat bazen herrian. Eta haren entzutea izan zuen, baina ez zuen izan ezagutzeko zoririk, 1934an hil zen-eta.

Bertsolaritzak ibilian-ibilian emandako oroitzapen on asko dauka bihotzaren erdi-erdian gordeta. Eta tartean bestelakoak ere izan dira, noski. Gutxitan, zorionez. Baina kontatzen hasiz gero, bertso saio guztiak ez dira berdinak izaten, bertsolariaren aldarte eta entzulearekiko lotura eta konexioa ere ez. Ezta jaialdi eta gai askoren egokitasuna ere. Baina, paseak pasa, beti aurrera egin du, bertsolaritzan jarraitzeko erabakia hartu zuenez gero. Eta onak eta txarrak neurtuz gero, txarra baino on gehiago eman diola uste du urte hauetako lanak. Behin batean, disketxe ezagun batekin kasette bat grabatzeko tratua nola egin zuen ere gogoan dauka oraindik. Tratua egin zuten, eta baita kasettea grabatu ere, emandako hitza betez. Baina ez zen bere mesederako izan. Aurrez bai hitz eder eta dotoreak, hainbesteko ordaina izango zuela etab; baina ez zuten bete emandako hitzik. Izan ere, "hartzekodunak azkar azaltzen dira hemen, baina zordunak, beti urrun ibiltzen dira", dio.

Aipatu dugun kasetteak harrera ona izan zuen, eta oraindik ere salgai dagoela ikusi dugu, zenbait dendatan. Ez zen saldu ezaren aitzakiaz izango, bada.

Bizkaiko txapelketak

Gerraosteko urteak pasatu eta artean giroa asko gozatu ez bazen ere, gerraosteko bertsolarien txapelketak beregain hartu zituen Euskaltzaindiak, Euskal Herri guztian. Eta horrelaxe, Bizkaiko bertsolarien lehenengo txapelketa, 1958ko abuztuaren 24an egin zen, Bilboko Areatza-Arenalean.

Bertsolariak baziren, noski, Bizkaian. Baina sekula ez zuen inork antolatu txapelketarik, ausardia faltaz edo nork antolaturik izan ez zelako, seguruenik. Alfonso Irigoien zena bertsozalea zen. Eta, azkenik, lanari berak heldu zion. Bizkaiko bertsolari onenak bildu zituen, eta inongo kanporaketarik egin gabe, gaiak eta puntuak prestatu eta Bilboko Areatza-Arenalean egin zuen lehenengo Bizkaiko bertsolarien txapelketa. Euskaltzaindiaren izenean antolatu zuen, aldi hartako beste txapelketak bezalaxe. Eta sekulako arrakasta izan zuen. Zortzi bat milla bertsozale bildu omen ziren Arenalean. Eta hori ez du esaten A. Irigoienek, orduko *La Gaceta del Norte* egunkariak baizik.

Alfonso Irigoienek idatzi zuenez, "Euskaltzaindiak antolatuta, aurten Bilbo-ko jaien barruan egin da Bizkaiko bertsolarien lehenengo sariketa. Ama Virginiaren egunean, agustuko amabostean egitekoa zen baiña euriagatik atzeratu egin behar izan zen eta agustuko 24-an egin zen, Arenala puntatik puntara beterik zegoela. Eta Bizkaiko txapeldun Valentin Embeita jauna gelditu zen, eta Bizkaiko Diputaziñoaren kopa eta iru milla peseta eman zitzaizkan."

Bizkaiko bertsolarien bigarren sariketa 1959an egin zen. Baina ez lehengoa bezala, onenak edo ezagunenak bakarrik aukeratuta. Bigarren neurketa hura era zabalagoan antolatu zuen Alfonso Irigoienek, berriz ere Euskaltzaindiaren babesean. Eta lehenengo, kanporaketak egin ziren, herrialdeka. Gero finaleko jaialdi nagusia, Bilbon egin zen berriz ere, bertsozaleek ondo erantzuten zutela ikusita.

Herrialdeka egin ziren bost kanporaketak honelaxe banatu zituen Euskaltzaindiak:

- Ekainaren 13an, San Antonio egunez, Urkiolan.
- Ekainaren 28an, Mungian, San Pedro bezperan.
- Ekainaren 29an, Bermion, San Pedro egunean.
- Uztailaren 18an, Markinan, Karmengo jaietan.
- Abuztuaren 15ean, Zeanurin.

Bertsoaren gose-egarria eta giroa ere onak ziren Bizkaia guztian barrena, zinez. Eta txapelketa honen inguruan beste jaialdi eta saio asko ere antolatu zuten, "giroa egiteko". Baita jendeak ondo erantzun ere. 1959ko uztailaren 18an Markinan egin zen kanporaketan jendetza haundia bildu zen. Eta txapeldun Jon Mugartegi izan zen. Abuztuaren 16an Ondarroan egindako saioan ere sekulako jendetza izan zen. Eta han ere Mugartegi txapeldun. Bigarren saria Jon Azpillagari eman zioten. Hurrengo egunean Bilbon kantatzeko aukeratuta zeuden bertsolariak ere ekinaldi bikaina egin zuten Gernikan, elkar proatu eta lehiaketarako prestatzeko.

Azkenik, Bilboko saio nagusia heldu zen, 1959ko abuztuaren 17ean, Udalak prestatu zituen jai nagusietan. Alabaina, garai hartan beti zerbait izaten zen horrelako jaialdietarako eta altaboz arazoak izan zituztela esan zuten. Eta jaialdia astebete atzeratu behar izan zuen Euskaltzaindiak. Beharbada, ez zen komeniko halako festarik

Bilboko jaietan. Zer egingo zen, bada? Pazientzia hartu eta segi aurrera. Halare, hamar milla lagun edo gehiago bildu ziren hurrengo igandean Arenaleko bertso-saioan. Bertsozaleak ez zuen etsitzen inola ere. Euskeraren eta bertsozaletasunaren kontzientzia esnatzen eta indartzen hasita baitzegoen, isilka egindako hainbat lan esker.

Bizkaiko txapelketa nagusiko jaialdiaren ondoren, ohar bat zabaldu zuen Euskaltzaindiak, gazteleraz eta euskeraz, denei eskerrak emanez: *“Euskaltzaindiak Bizkaiko Bertsolarien bigarren sariketaren amaieran, esker beroak emoten deusiez Bizkaiko Diputaziño, Bilboko Ayuntamiento, Bizkaiko Ahorro-Kaxa, txapelketak egin direan errietako alkate jaun, eta baita euren ekintzeagaz gure izkuntzaren edertasun oneri bizia emoten alegindu direaneri be.*

Gure erriaren aberastasun au gordetan alegiñak egin doguz orainarte, eta komeni danean, barriro be bardin ekingo deusagu, izkuntzea zabaldu teko, gordeteko eta aberastuteko benetako gogoia eminirik. Gura geunke gure ekintza onek euskaldun guztiak batuteko balio daien, edozein dala bere pentsetako modua eta bizimodua, guztiona dalako gure aurretikoengandik artu dogun aberastasun paregabea...”

Bizkaiko txapeldun

Soldaduzka ondorengo gaixoaldia gainditu, eta berriz ere plazaz plaza hasi zen Berriatuko bertsolaria, 1959an Markinan egindako kanporaketari esker. Eta lehen aipaturiko norgehiagoka guzti horietan parte hartu zuen. Baita saio asko irabazi ere hasita berehala. Hala nola:

- 1960ko uztailaren 18an Markinan egin zen Bizkaiko txapelketan garaile izan zen.

- 1960ko abuztuaren 16ean Ondarroan egin zen txapelketan, berriz ere txapeldun.

- 1960ko irailaren 11an, Bilbon egin zen Bizkaiko txapelketa nagusiko finalean, berriatuarra hautatu zuten txapel-dun.

Txapelketa honek zeresan haundia izan zuen bertsozaleen artean. Eta baita garai hartako egunkarietan ere. 1960ko irailaren 13an, asteartea, honako artikulu hau argitaratu eman zuen Bilboko El Correo Español – El Pueblo Vasco egunkariak Rafael Ossa Echaburuk izenpetuta, Bizkaiko txapelketa amaitu ondoren:

Juan Mugartegui (Berriatua)
nuevo campeón de Vizcaya
(por sólo medio punto)

En la tarde del domingo, en el ruedo de Vista Alegre, ocho hombres sencillos que aportaban el mensaje popular, amistoso de sus lugares de origen – Berriatua, Ondarroa, Munguia, Ceánuri, etc – en su condición de bardos de la vieja lengua, lidiaron al toro del ingenio en una justa poética que vino a demostrar la gran expectación despertada por el Tercer Campeonato de Vizcaya de Versolaris organizado por el Ayuntamiento de Bilbao en colaboración con la Academia de Lengua Vasca, con la atención expresa de la Diputación de Vizcaya y estímulos materiales de la Caja de Ahorros Vizcaína.

Los vigorosos acentos del habla secular cobraron nuevos bríos en los versos de Valentín Embeita, Juan Azpillaga, Ireneo Ajuria, José Alberdi, Basilio Pujana, Deunoro Sarduy, Juan Ormaechea y Juan Mugartegui. Campeón y subcampeón del año pasado, los dos primeros, y finalistas los restantes de eliminatorias previas que se señalaron la representación de la diferentes comarcas de la profesión.

Gracia y agudeza en la improvisación

La improvisación rimada de estos hombres graciosos en el decir, sujetos a temática impuesta por el jurado, arrancó aplausos de un público numeroso que siguió con interés y entusiasmo los habilidosos quiebro que cada versolari hubo de hacer para salir airoso de las tarascadas dialécticas del contrario. Cada uno en un papel figurado, concreto: la doncellita casadera, el viudo galante, el "arrote" vividor, el criado mal retribuido... Dentro de un estilo vario y conforme a mayor o menor perfección en el manejo del vascuence. Siempre por modo suave en la expresión, sin excluir una tremenda intencionalidad en el propósito.

Los finalistas

Dirimidas las pugnas previas, el Jurado determinó la eliminación de seis versolaris. A nuestro juicio, una medida demasiado drástica que restó oportunidades, e incluso hizo desmerecer, en cierto modo, al espectáculo. Los dos finalistas seleccionados con arreglo a méritos contraídos en las actuaciones anteriores, fueron Juan Azpillaga y Juan Mugartegui.

La buena planta de Azpillaga, su voz fresca, potente, su condición de subcampeón, su prontitud y agudeza en las contestaciones, eran particularidades que acaso subjetivamente predispusieron al público en su favor, dándole ganador por anticipado. En particular los muchos ondarreses que para alentar a su paisano no quisieron estar ausentes en tan importante suceso. Sin embargo...

No obstante, a título de referencia, debo hacer notar que inmediatamente después de haberse dado a la publicidad el fallo del Jurado, un sacerdote salió de entre el público y, dirigiéndose a los componentes del Jurado, expresó claramente su disconformidad con el veredicto.

Hubo discusiones para todos los gustos. Discusiones y no disputas. Diferencias de criterios que ponen de relieve que es-

pectáculos semejantes encuentran un grande eco en estas provincias vascongadas que, desde el andamiaje orográfico de los Pirineos ofrecen merced a su habla milenaria y a sus danzas y costumbres y usos deportivos, las variantes mejor perfiladas dentro de la riqueza folklórica de nuestra España. Y esto es meritorio. – Rafael Ossa Echaburu.

Los miembros del Jurado

El certamen comenzó a las 4,30 de la tarde y terminó dos horas después. El jurado estuvo integrado por don Nazario Oleaga, don Eusebio Erquiaga, don Sabino Berasaluce, el Padre Marcelo Andrinúa (pasionista), don José Echeandía, párroco de Santa Ana de Durango, y don Alfonso Irigoyen. Los intermedios fueron amenizados por el Grupo de Danzas Vascas "Dindirri", que actuó con la habilidad de costumbre. Asistió bastante público, y aún pudo haber asistido mucho más si los organizadores no hubieran hecho coincidir esta interesante justa poética con cierto partido que se jugaba en San Mamés. Insistimos en lo de la escasa popularidad que alcanzó la eliminación a rajatabla de seis versolaris. Todos – casi todos – esperábamos la clasificación de cuatro, de entre los cuales elegir después a los finalistas. Acaso la premura de tiempo – ya que había de desalojarse el coso taurino para ceder a los preparativos de la inmediata representación de "Don Juan Tenorio" en el mismo lugar – indujera a tan severa decisión que a muy pocos satisfizo.

Orohar, 1960-1970ko hamarkada, oso emankorra eta aberatsa izan zen Jon Mugartegirentzat. Jo batera eta ekin bestera ibili zen, etenik gabe. Eta joaten zen tokietan ahogozo ona uzten zuen, zinez.

Loiola Irratiko hirugarren sariketa

- 1964ko otsailaren 16an hasi eta maiatzaren 17ra bitartean, Loiolako Herri irratiak antolatu zuen *Bertsolari gazteen hirugarren sariketan*, Lopategi, Manterola, Odriozola, Uztapide II, Ibarbia, Insausti, Bittor Agirre eta Mugartegik parte hartu zuten, igande eguerdian bi-bitara irratiz kantatuz. Eta urte hartako lehen saria Mugartegik irabazi zuen, entzuleen botoak eta horretarako berezi antolatzen zen epaimahai berezi baten iritziaren arabera. Eusebio Eizmendi *Txapel*, Jesus Lete *Ibai-ertz*, Inozentzio Olea, Patxi Larrañaga *Barbero*, eta Juan Goikoetxea jesuita ziren urte hartako epaimahaiko.

Loiolako irratiko sariketa hura, sariketa berezia zen oso, bestalde: irratiz egiten zen lehena zen, eta bertso saioaren epaile, irratientzuleak izaten ziren, batez ere. Eta sekulako ezustekoak gertatu ziren guretzat, hasiera-hasieratik. Milaka entzule botoemaile izaten zen igande eguerdiero. Eta bertsozale asko eta askok, bere iritzia eta erabakia bertso baten bidez eman ohi zuen. Garai hartan aukeratu eta gorde nituen gutun asko Loiolan izango dira, seguruenik. Baina 1964ko sariketako hiru bertso hauek aurkitu ditut paper zaharren artean, eta esanguratsuak diralakoan nago, momentu honetan. Honelaxe zioten asteroko hiru entzule leial hauek, bakoitzak bere aldetik:

Loiola, artu dezun bidetik
aurrera ere zuk segi,
dena eginda ere ez ezpaita
iñoiz izango geiegi.
Oraintxe ere bertsolariak
zenbat arrazoi ta egi!
Nere iritziz gaurko onetan
txapelduna Mugartegi.

Saletxek

Legazpi, 1964.04.12

Urtean bein sariketa
ez balitz geiegi,
Loiola, zuk olaxe
etsi gabe segi,
jendea bertso gosez
baita emen beti.
Eta txapeldunari:
segi, Mugartegi.

Miren Arizmendik.

Urnieta, 1964.05.18

Bertso bat jartzera nua,
ta orra nere botua:
bakarka eta biñaka ere
egiñak naikua.
Ona zan igandekua,
saioa eder askua!
Baiña onena nere iritziz
Berriatukua.

Shegundo Iturraldek

Eibar, 1964.05.11



Loiolako 4. sariketan
Etxeberria, Insausti, Bittor Agirre, Mugartegi eta Azpillaga. 1965



Mugartegi eta Azpillaga
Loiolako sariketa. 1965

Aldi hartan, irratian egindako lanak ere balio izan bait zion, 1964 urtea oso urte oparoa izan zuen berriatuar-
rrak. Abuztuaren 17 goizean Gernikan egin zen Bizkaiko txapelketa nagusian, bigarren saria eman zioten, oker ez-pagaude. Eta egun berean, arratsaldean Ondarroan egin zen norgehiagokan bigarren gelditu zen berriz ere, Jon Lopategiren ondoren. Ez zegoen gaizki, ez horixe.

Eta 1963ko irailaren 22an Bilbon egin zen saio batean, Bizkaiko bertsolarientzat kopa jarri zuten bederatzi puntukoan bertso-rik onena kantatzen zuenarentzat. Jon Mugartegi izan zen garaile, berak gogoratu digunez.

1966ko urriaren 30ean, Durangoko Astarloa aretoan goizean, eta arratsaldean Andre Mari elizatarian, Bizkaiko bertsolarien txapelketa nagusiko finala jokatu zen, bestalde, Euskal Liburu eta Disko azoka zela-ta. Jose Mari Arregi *Altsu* eta Abel Muniategi hautatu zituen epaimahaiak azkenenean Lopategi eta Mugartegirekin jokatzeko. Egun hartako txapela, Jon Lopategik jantzi zuen, eta Mugartegiri bigarren saria eman zioten.

* * *

1962ko abuztuaren 20an, Bizkaiko bertsolarien txapelketako kanporaketa egin zen Gernikan. Arregi, Pujana, B. Enbeita, Ajuria, Lopategi eta Mugartegi ziren bertso-tan. Gai-emai-
le eta zuzendari, Alfonso Irigoien. Bertso denak ezin-eta, Balendin Enbeita eta Jon Mugartegik egindako saioa jasoko dizut hemen. Gaia: *B. Enbeita, mutilzaharra da. Mugartegi, neskazaharra.*

Enb: Beti ez dira aukera denak
 nai degun legez lurrian.
 Igarri barik urtiak doiaz
 emen gabizen tokian.
 Emaztegai bat billatutzeko
 aspaldi nabil ustian...
 Ai, zer bodak nik eingo ditudan
 aurkitutzen dodanian!

Mug: Neska zartua urria dago
 bere gorputz eta agoz.
 Orregatikan iñork ez dio
 oni begiratutzen gogoz.
 Nere arrazoa botako dizut
 egia da ta, lelengoz:
 Neska zartua nork artuko du
 gaztiak sobran badagoz?

Enb: Badezpadan be neskazarra itzi,
 ez eizu larrei tentatu.
 Olako batek gizatar danak
 barruan sentitzen ditu.
 Urte joanak eukiagatik
 ez naiz ondiño damutu.
 Eta zurekin ezkontzeko be
 ondiño enaiz zoratu.

Mug: Neskazar onek ez du billatzen
 iñoiz bere atzezpenik.
 Mutilzartuak au esan gabe
 gaurkoaz ez dauka onik:
 ez pentsa gero aldameneko au
 gaur zuretzako dagonik!
 Zarrak nik nola artuko ditut
 gazteak sobran egonik?

Enb: Lora gaztien artian onek
beti egiten du amets,
usterik ori errez lortuko
dabela dabil ala ustez.
Olakoeri jasoten jake
mutilzar askori legez:
etxeondokoa inork eraman
eta kanpoan topau ez.

Mug: Ez du merezi gaizki esaten
neure ustean asterik,
ta gutxiago apaindurian
lujo onean janzterik.
Gazte dagon bat aukeratzia,
ez du pentsatzen besterik...
Formalidadesz ibilli bazan
ezkonduko zan gazterik.

Lopategi eta Mugartegi aukeratu zituen mahiak aurrerako. Eta puntuak, lau oinak eta bertsoaren azkena emanda, eta bakarka kantatzeko gaia emanda neurtu ziztuzten berriro. Lopategiri eman zioten egun hartako txapela. Mugartegiri, bigarren saria.

Mugartegiri bi bertsoarako gaia eman zion Irigoienek azkenik: *Mutil zahar batek bere buruari.*

Urtez aurrera joan ta gero
ez dago zorionikan.
Gaztetatikan ondo oitua
eta egin ez lanikan...
Ez det pentsatzen mundu ontako
ori komeni danikan.
Orrelakorik ez al da izango
gaurkoan emen, Gernikan.

Zartuarentzat itz egiteko
badaukat ainbeste gogo.
Mutilzarraren izenez auxe
esan gabe ondo ez nago.
Zartuta dagon gaixoa bera
ezpaita ondo egongo...
Gazte maiteak, akorda bitez
zaartu baino lenago.

Honako bertso hauek, 1960ko irailaren 11an, Bizkaiko txapelketa nagusiaren azkenengoan Azpillaga eta Mugar-tegik Bilbon kantatu, eta handik laister *Bertso berriak* zerit-zon bertso-paper batean Bilboko *Gráficas Sigman* argitaratu zituzten. Handik laister eskuratu nituen nik. Bertso-tarako gai hauxe zen: *Azpillaga, mutil zaharra da; eta Mugar-tegi, neska zaharra.*

Azp: Urte batzuek pasa ezker
ezta izaten lotsarik,
gaurko kaleak ikusten dira
neska zarrakin beterik.
Itxura danez eztadukate
lenako zarren legerik.
Zer darabiltzu sasoi orretan
gona motz-motzak jantzirik?

Mug: Atzerritikan moda berriak
ekartzen ditugun errira,
ta mutil zarrak engañatzeko
kontuak auexek dira.
Ikusten ditut oso zartuak
dotore jantzitzen dira.
Orregatikan zu beti zabiltz
neri atzetik begira.

Azp: Begiratzeak kunplitutzen du
mutilzar on baten gala.
Zuk badakizu zuek baiño askoz
ondrauaguak gerala.
Ta neska zarrak ortxe dabilta
zer egin eztakitela.
Auts ta pinturan gastatzen dute
aste guztiko jornala.

Mug: Mutilzar onek tentatutzen nau
sarritan amets gozotan.
Onenbesteko tristurik ezta
sortu neronen auzotan.
Oker zabilta nere ondoren
egin dituzun pausotan.
Zu baiño askoz gaztiaguak
ibiltzen ditut besotan.

Azp: Gezur batzuek esanda emen
mutil zarra nai engaiña.
Gaztetutzen da pinturarekin
atzazkal eta ezpaiña.
Eztakit nora pausoa bota,
ain jarritzen da apaiña!
Berandu samar akordatu da
oindik ederra da baiña.

Mug: Zartuta gero ezta izaten
orretan ilusiorik.
Apaindutzeko nik eztet artu
sekula afiziorik.
Len ederra dan batek eztauka
ondutzeko desiorik.
Mutilzar onek besterik eztu
olako desafiorik.

Azp: Lenago etzan orrelakua,
mudatu da azkenian.
Gabaz kalera ateratzeko
preparatu egunian.
Denbora gutxi pasatutzen du
bere etxeko lanian.
Gure errian zelako festak
au ezkonduzen danian!

Mug: Gazte giñala ibili giñan
ezkonduzko asmotan.
Orain olako gauzarik ez tet
iñoiz neronen gogotan.
Mutilzar auek sinestu danok
oker dabiltzala ortan.
Ni ez nintzake zugaz egingo
gaizki bizi izatekotan.

Eta saio hura amaitzeko, elkarri puntuak jarriz honela kantatu zuten:

Azp: Len gazteak giñan ta
zartuak gerade.

Mug: Oraindik eztaukagu
ainbeste edade.

Azp: Baiña gera estimazi-
o larregi gabe.

Mug: Bakarrik bizitzia
askoz degu obe.

Mug: Iñoiz izandu ditut
ezkontzeko ideiak.

Azp: Baiña beste batera
buelatu begiak.

Mug: Ortan eztira izango
iñoiz gure deiak

Azp: Len etzan baiña edertu
du au pinturiak.

1963ko irailaren 22an, Bilbon jaialdi haundia antolatu zuten Azpillaga, Arozamena, Mugartegi, Uztapide, Enbeitza eta Basarri bertsolariekin. Honatx Irigoien jaunak Mugartegiri jarritako puntua:

*Astakumeak atzo
zerri bi egin ditu.*

Mug: Baserritarra ezta
ain txarto aurkitu.
Bere sasoiari gobernatutzen baditu,
beste batzuek ere
egin bearko ditu.

Lehen esan bezala, Bizkaiko Foru Aldundiak kopa eder bat jarri zuen saio hartan bederatzi puntukoan bertso onena botatzen zuen bizkaitararentzat. Saria Mugartegik irabazi zuen honako bertso honekin. Gaia: *Bazkaltzen konejua jan dozue. Baiña, janda gero konturatu zerate, buztan luzea eukala. Eta, zer izango, eta katua izan.*

Gai bat jarri didate
oso sekretua.
Au entzuna ez nago
ni damutua.
Bazkari baten ola
egon naiz batua,
konejua jatera
an inguratua.
Gero gertatua,
au zan pekatua:
txarto tratatua
izan da katua.
Alan da ere utzi det
ondo pagatua
alan da ere utzi det
ondo pagatua.

Elorrioko alkate eta Bizkaiko Aldundiko diputatu zen Altuna jaunak eman zion kopa Mugartegiri. Eta bere agurra honela kantatu zuen.

Jaialdi on au ikusirikan
agurtzen nai nuke asi.
Biotzez auxe eskaini gabe
ez naiz joango igasi.
Gure izkuntzak gutxiagorik
oraintxe ez dau merezi.
Goiko Jaun onak eman daigula
zoriona ta ainbat grazi...
Agur, euskaldun biotzekoak.
Danok ondo ondo bizi.

1964ko martxoaren 8an Urdulizen jasotako bertsoak dira ondorengo hauek. Alfonso Irigoien zen jaialdiaren aurkezle eta gai-emaille. Eta gai hauxe eman zien Mugartegi eta Deunoro Sarduiri: *Hemen aurrean magnetofono bat daukagu. Eta sarri, bertsolariak kantetan dabezan bertsoak horrela jasotzen ditu, nik eztaikit hemendik hogeit urtera ematekoedo. Mugartegi, bertso guztiak magnetofonoz hartzen ibiltzen dan grabatzailea da. Sardui, bertsolaria. Hasi Mugartegi.*

Mug: Gure gogoa beti izaten da
bertso gozoak artzia.
Gero bertatik nai nukena da
bertso oiek zabaltzia.
Euskalerrian komeni zaigu
piska bat azaldutzia...
Nik nai dodana: bertsolariak
bertsok ondo kantatzia.

Sar: Bertsoa nun dan magnetofonoz
aurrean oi jaku jartzen,
eztakit zelan nundik gabiltzan
jakitea dauan lortzen.
Ezta berau be mikrofonuaz
sekula ere bildurtzen.
Ezjakiña da ta argatik dabil
gure jakintzak bildutzen.

Mug: Bertsolaria sekula ez dau
galdu izan ezjakiñak.
Itz egiten dan bezela bardin
artzen du nere makinak.
Egin itzazuz ondo egiten
emen zeure alegiñak,
landare oiek artu daitezcan
Euskalerriko jardiñak.

Sar: Zeuk diñozunez artuten dozuz
bardin berba, zein abestiak...
Sarritan barre egiten dautzu
makiña orretzaz jendiak.
Guk esandako guztiak artu
eiten ditu orren trastiak.
Olakuari deitu oi jake
gure artean alkahuetiak.

Mug: Bertsolaria, artu egizu
nere esana goguan:
zure bertsuak azaldu bear
badira bear dan lekuan,
orregatikan makiña ori
nik artzen dot gaur onduan.
Baiña beldurrez nago berorrek
apurtuko ete dauan.

Sar: Nork esan dautzu nere aurrean
makiña ori jartzeko?
Eskubiderik eztozu iñundik
nere bertsuak artzeko.
Radiotikan botatzen dozuz
dirua irabazteko,
ta nik bertsuak botatzen dodaz
barrua askatutzeko.

Beste bertso hauek ere egun hartakoak dira. Azpilla-
ga eta Mugartegiri gai hauxe eman zien Irigoienek: *Mu-
gartegi, senarra da, beti soseguz ibilten dana, alperra. Azpilla-
ga, emaztea. Langillea, beti senarrari beharra eragiten ibilten
dana. Mugartegi hasita.*

Mug: Emaztea, zuretzat
nator zuzenian,
estimatzen bai zaitut
nik al dedanian.
Konformatu zintezke
nere esanian...
Ni beti ibilten naiz
patxara onian.

Azp: Pentsatutakua esan
digu beriala:
au da senar zintzoa,
ona ta apala.
- Emaztea maite dut! -
esaten du ala...
Falta txiki bat dozu:
alperra zerala.

Mug: Senarra ta emaztea
eztabiz justuak.
Nik ezin ditut bete
andrian gustuak.
Okerrerako dira
gure apustuak,
gaizki artutzen bai nau
ni andre gaiztuak.

Azp: Erritan eginda ere
etzaio ajolik.
Gizon onek eztauka
ez nerbio, ez odolik.
Nik gero ezin jarri
arrautza ta okelik...
Aspaldi ez daust emon
asteko jornalik.

Mug: Onek eztu aitatzen
nere alderdirik.
Eta ez du esaten
batere egirik.
Etzazu illun jarri
nitzat aurpegirik.
Zugandik ez dot jazten
erropa garbirik.

Azp: - Erropa zikiña dut! -
ori du esana.
Kulpak jartzen etzaitez
eldu neregana.
Au da gizon bat mailla
iristen eztana.
Nitzaz erruki zaitez,
Jaungoiko laztana.

Mug: Beste bertso bat ere
badaukat goguan.
Itz egin bear dizut
bear dan moduan.
Zorionikan gabe
gu gaude munduan.
Askozaz'e obe nun
artu ez banuan.

Azp: Nik'e ori artzean
neretzat galgarri.
Bizimoduan ia
bizi naiz ain larri.
Ez degu umerikan
mundura ekarri...
Oera joanda ere
beti lo bakarrik.

Lau bertsolari aukeratu, eta *nork guzur haundiagoa esan* jarri zituen Irigoienek, Lopategi, Mugartegi, Azpillaga eta Sardui. Hotz ikaragarria egiten zuen goiz hartan, bertsotan ageri denez.

Lop: Gaur egun ia ezta otzikan
gure euskaldun errietan.
Argitasuna ugari dago
emen nere begietan.
Nere erritik kanpora ibili
naiz ni aspaldietan...
Gu gagoz emen illunetan ta
zuek or barriz argitan.

Mug: Egia zenbait esan nai nuke,
au ez da gero guzurra:
salto batean autsi izan dot
nere lepoko azurra.
Orregatikan daukot bizkarra
lurrari jota, okerra.
Urduritzeko ere badaukot
pixka bat ondu bearra.

Azp: Ainbeste egi esango ditut
ta etzazue artu min.
Erri onetan ez dot ikusten
sekula gaur ainbeste grin.
Guziak nai zuten dantzatu ta
iñork pausurik ez egin...
Eguzkiaren berotasuna,
ta elurrik ez du egin.

Sar: Iru baillena dodaz etxian
legorrear eanduta.
Eta oillo bat gaur ikusi dot
konejuaz buztartuta.
Ez da arritzeko, egi onexek
neuk ditudaz probatuta.
Boda joateko egon naiz eta
Alfontso ei da ezkondata.

Eta azkenik, bi bertso botatzeko gai hauxe eman zion
Mugartegiri: *hainbat tokitan ibili diran zure zapata zaharrei,*
bi bertso:

Jendeak beti izaten ditu
bere alderdi tristiak.
Barre eragin dizue denoi
zapata auek ikustiak.
Kilometro asko egiñak dira,
ez dira oso gaztiak...
Azpitik ere zulatu dira
ta oiñak ditut bustiak.

Auxe da gaia polit askua
bertsoz ondo luzitzeko!
Gu're ez giñaden mundura jaio
zapatakin bizitzeko,
baizikan abarka zarrarekin
lurren gaiñez ibiltzeko.
Lengoak zarrak, ta ez dirurik
barririk erositzeko.

1964ko abuztuaren 17an, Bizkaiko txapelketarako Ondarroan egindako kanporaketatik Azpillaga eta Mugartegik elkarrekin kantatu zuten saio batetik hartu ditugu ondorengo bertsoak. Irigoien jaunak Mugartegiri jarritako bi puntu lehenengo:

*Askok faltak atera
ta gutxi lanian*

Mug: Ori pasatzen zaigu
gaurko egunian.
Ni ere argi nago
zure esanian...
Ez gera bela bizi
gu zorionian.

*Txakurra ta katua
elementu onak!*

Mug: Ez dira konpondutzen
asarre egonak.
bata besteari zorrotz
aurpegiz emonak.
Orrek bildurtzen ditu
baita're gizonak.

Ondoren, ofizio hauxe eman zien bioi: *Idi proba batean gaude. Juan Azpillaga, idia da. Mugartegi, akuiluarekin dagon nagusia.*

Azp: Beraz au degu itzaia eta
ni berriz animalia.
Premia gabe artutakoak
zentzun gabeak badia.
Bientzat naiko izanda batek
eaman nai luke arria...
Ez ote da au ni ona eta
au berau berriz obia.

Mug: Animalia au gaiztoa da ta
nik gaur ezin det zuzendu.
Urte askoan baba emanaz
ondo egin det mantendu.
Alan da ere bere eskerra
beti oker ematen du.
Probatan ez da ezer'e baiña
janari asko jaten du.

Azp: Indarran faltan ni nagoela,
ori esan du gogotik.
Ia balantzan probatutzeko
atera nau ukuillutik.
Beonek arriai ikuturik ez,
neri kolpeak atzetik.
Onelakuak aurrean jarri
ta askozaz obe kasik.

- Mug: Animali au alperra zala
lendikan ere banekin.
Eta ezin det burutu gaurkoz
nik animali onekin.
Oker joatia pentsatutzen du
beti bere buruakin.
Itzai onikan ez da izaten
olako idiarekin.
- Azp: Arri aurrian ni gogor artu
ta ibiltzen nau zalapartan.
Jan ez ta biar asko egin bear,
zer sufrimentua dedan!
Oso nagusi gaiztoa dala
aitortutzen det, benetan.
Neretzat diran pentsu diruak
gastatze'itu okelatan.
- Mug: Len indarrean gogor zegon ta
orain jeitsi da erdira.
Nik emandako baba guztiak
ortakoz alperrik dira.
Alperrik nabil bere ondoan
mantendutzen ta begira...
Biar bertatik eramango det
nik au, bai! mataderira.

Ondoren, lau oinak eman eta honela kantatu zuen
Mugartegik:

Ardiak, erdiak, erbiak, argiak.

Mug: Ondarruko erriak
baditu ardiak.
Geure barrutikoak
bai dira erdiak.
Bizkor ibiltzen dakite
emengo erbiak...
Izan ditezela beti
olako argiak.

Lehen itzulian binaka egindako saioaren ondoren, lau bertsolari bereizi zituen epaimahaiak: Mugartegi, Lopategi, Azpillaga eta Jose Mari Arregi. Zotz egin, eta Lopategi eta Mugartegik elkarrekin kantatu behar izan zuten. Lehenengo, ohitura zuenez, puntuak jarri zizkien Irigoienek.

*Itxurosuagoa
obea banintza...*

Mug: Gai orren bidez nai det
bertso on bat mintza,
biotzetik egiñaz
danori eskeintza
Ondarroa izan dedin
guztiren itza.

*Ondo bizi nai bada
gorde ondo neurriak.*

Mug: Ori egiteko baitut
gaur asmo berriak.
Gaizki ez dira ibiltzen
ona etorriak;
danok ondo artzen ditu
emengo erriak.

Ofiziotan egiteko gaia eman zien ondoren:
Lopategik ardoa edaten du. Mugartegik, ura.

Lop: Neure biotza jarria daukat
Erriojako arduan.
Mozkor erdi bat artuko dot nik
gaur bertan be, Ondarruan.
Baiña etxera zuzen noa ni
gero bide ondraduan.
Zapaburuak urtengo dautse
oneri tripa barruan.

Mug: Ardo geiegi edaten dunak
ez dauka osasunikan.
Gauza orrekin ez da etortzen
neretzat zorionikan.
Ez det pentsaten ur ona baino
ezer oberik danikan...
Nik orregatik memori ona
daukat gaur be emendikan.

Lop: Ardaua nitzat izan daitela
oneri ura emanik.
Orra or, bada, geure gustuba
gaur zuentzako esanik.
Gure laguna triste samarra
dabil iturritik edanik.
Edaritatik ezin lei esan
au bertsolaria danik.

Mug: Ardo ederra txarra danikan
ez det sekula esango.
Baiña neronen osasungarri
gaur ere ez det eramango.
*Zuk esan arren ona degula
batere ez degu edango.*
*Berak'e geiegi edaten badu
ez da etxera joango.*

Lop: Ardoa edanda pausuak ondo
lenengo eta azkenak.
Egirik ez du gaur azaldutzen
nire albuan dauenak.
Beti tristerik ikusten degu
galduta itxaropenak.
Mozkor erdiak kenduko dautzuz
barru orretako penak!

Mug: Ardozalea ez da izaten
etxean mesedegarri.
Andreak asko ekarri arren
ordu danetan egarri.
Geiegi edaten badu gainera
etxe dana barregarri.
Zorionikan mozkor txar batek
ezin leiteke ekarri.

Ondoren bakarka jarri zituen bi bertsolariak, gai bat emanda. Mugartegiren gaia: *Itsasoari bi bertso.*

Itsas barruan ikusten dira
mariñel ta ainbat ontzi,
nekealdiak artuagatik
eramaten pazientzi...
Ori izan da arrantzaliak
berekin daukan erentzi.
Antiguako Aman bitartez,
etzazu odolik iruntsi.

Ekaitzaldiak izaten ditu
beti itsaso zabalak.
Bertan lanean saiatu bear
emengo gizon argalak.
Andikan artzen dituzte eurak
etxeratzeko jornalak...
Ama maitea, gorde itzazuz
Ondarruko mariñelak.

Ondarroako Arrantzale Egun hartako lehen saria Lopategiri eman zion epaimahaiak; eta bigarrena, Mugartegiri. Neurketa askotan gertatu ohi denez, eztabaida eta txistuak izan ziran epaileentzat orduan ere. Anoetakoa ez zen lehenengoa, beraz.

Beste txapelketak

Mugartegiren bilduma osatzeko eskuartean genituen paperak begiratzean, beste txapelketa/neurketa askotan ere eskuhartu zuela berriatuarrak ohartu gera. Azkenengoa, gure datuen arabera, 1982an Euskaltzaindiak antolatu zuen Txapelketa Nagusian izango zen.

Edozein bertso saiotan ere gogor sufritu behar izaten du bertsolariak, ondo dakigunez. Alabaina, berriatuarrak neurritz gain sufritzen duela iruditu izan zaigu beti. Izatez ere urduri samarra da, noski. Eta mikroaren aurrean etorri ahala kantatzen hasten denean, bere sufrimentua bistabistakoa da. Halare, txapelketan ala edozein bertso saio arruntetan, gehiena nun sufritzen duen galdetu eta zera erantzun zidan behin:

Egia esateko, ez dago alde haundirik, niretzat. Bietan ere bardin samar sufritu izan dot, lehen eta orain. Neure burua ikaragarri estutu izan dot nik, eta kale edo bale botatako bertso asko, sufrimentu horren ondorioa izaten dira. Gainera, ez dakit hasieran baino ere gehiago ez ote dodan sufritzen orain. Askok horrela uste ez badu ere, sekula ikasten ez dan ofizioa da bertsolarien hau.

Sinesten diogu. Oso-osorik sinestu ere. Ez da jolas hutsa bat-batean bertsoa inprobisatzea. Eta lan hori egin behar duena berez urduria, nerbioa bada, atera kontuak.

Dena den, Euskal Herri osoko zenbait txapelketetan jasotako Mugartegiren bertso batzuk bildu ditugu jarraian, zuk ere irakurri eta kanta ditzazun.

1960ko Bertsolari txapelketa nagusia

Kanporaketak herrialdeka egin ondoren, 1960ko Bizkaiko txapelketako azkena irailaren 11an egin zen. Eta lehen esan bezala, Juan Mugartegi izan zen txapeldun, eta Azpillaga bigarren. Hala, bada, Euskal Herriko txapelketarako biak aukeratu zituzten.

Irakurleak gogoan izango duenez, Euskal Herri osoko txapelketaren azken saio nagusia Donostiako Victoria Eugenia aretoan egin zen 1960an. Eta honako bertsolari hauek izan ziren kantari: Uztapide, Mitxelena, Mugartegi, Azpillaga, Xalbador, Mattin, Narbarte eta Perurena. Egun hartako epaimahaia Antonio Arrue, Koldo Mitxelena, Aingeru Irigarai, Mitchel Labegerie, Antonio Zavala, Bordari, Antonio Pagola, Migel Goitia, Pedro Migel Diez de Ulzurrun, Juan Mari Lekuona eta Martzel Andrinuak osatu zuten. Eta aurkezle eta gai-emaile, Alfonso Irigoien izan zen.

Honatx Andres Narbarte *Xalto* eta Mugartegik gai librean egindako saio bat:

- Mug: Euskalerrriak sortu dituan
lorerikan mardulenak
seguru asko izango dira
gaur Donostian daudenak.
Au ikusita kenduko ditu
askok biotzeko penak.
Orregatikan poztu gaitezen,
zorioneko euskaldunak.
- Nar: Pentsatutzen det emen geienak
geradela euskaldunak,
esate bateko nola baigeran
auzo bateko lagunak.
Biotzez gera batek bestia
ondo maitatzen degunak.
Gaur, jaunak, ez du gutxi balio
olako anaitasunak.

Mug: Bertsolariak dirala eta
 beterik be eta goiak.
 Isil-isillik jarrita pozez
 bete ditu gure deiak.
 Au ikusita negar malkotan
 isurtzen ditut begiak...
 Esker beroak emoten nator,
 gure euskaldun anaiak.

Nar: Ni Donostian oso gutxitan
 izana naiz oraindikan.
 Biotz barrendik gaur'e ez daukat
 etortako damurikan.
 Neure denboran eztet ikusi
 onelako lorerikan...
 Gaur mundu ontan ez da izango
 leku ederragorikan.



Mugarategi Donostiako txapelketan
Atzean, Azpillaga eta Mitxelena

1965ko Bertsolarien txapelketako finala

1964ko Txapelketa nagusiaren azkenengo jaialdia, final handia, 1965eko urtarrilaren 1ean egin zen, Donostiako Anoeta pilotalekuan. Sekulako jendetza bildu zen, goiz eta arratsalde. Bertso giro ederra bertso-egun handi hartakoa. Entzulea bero eta sutsu zegoen, eta bertsolariari oso adi eta erne. Goizeko saioan, Mugartegi, Arozamena, Garmendia, Narbarte, Lazkao Txiki, Xalbador, Mattin, Mitxelena eta Lopategik kantatu zuten. Hona hemen Mugartegiren lehen agurra:

Agurtutzeko lelengo aldiz
gu emen gaude jarriak,
beste lan gabe bertsotarako
nola geran etorriak.
Aseko al doguz, anai-arrebak,
dituzuen egarriak...
Badakizute zorion bana
daukala urte barriak.
Nere bertsoa entzun dezala
Berriatuko erriak.

Aurkezle eta gai-emaile Alfontso Irigoien izan zen, garai hartako txapelketa gehienetan bezalatsu. Eta honako lau oinok eman zizkion Mugartegiri: *laratza, ardatza, garratza, baratza*.

Gure sukalde barruan
badago laratza,
zintzilik edukitzen
duena ardatza.
Esnea egosita
minduaz garratza.
Fruta naikoa artzeko
badaukat baratza.

Puntuak:

*Gaur degu urtearen
lenengo eguna*

Mug: ... gure Jaunak zerutik
eskeintzen diguna.
Sortzen asi danian
etzegon illuna;
lurrari argi egiteko
au bear doguna.

*Esaera zarra da:
gauza ona iraunkor.*

Mug: Guk ere jarraitu bear
geure bidez, jator.
Donostia agurtzera
ni biotzez nator.
Ta entzuleak erantzun
dute gaurkoz gogor.

Ofizioan bertsoan egiteko eman zien gaia Mugartegi eta Arozamenari: *Juan Mugartegi, pilotaria izango da. Arozamena, bere alde dirua jokatu eta dena galdu duena.*

Mug: Gaur Donostira etorria naiz
partidu bat jokatzera.
Urte berrian zorion bat nik
eraman nai nun etxera.
Nunbait etzaigun komeniko ta
erori gera galtzera...
Baiña, laguna, nitzaz jokutzen
zu zertan etorri zera?

Aro: Nik'e gogua lendik baneukan
onera iritsitzeko,
pelotan zer mouz jokatzzen zendun
begiez ikusitzeko.
Gezurrikan etzazu esan orain
iñor engaiñatutzeko...
Kanpuan zeorrek esan zenidan
zure alde jokatzeko.

Mug: Pelotariak partidurako
bagendun gogo naikoa,
ta lagun bati au esatia
ez degu arritzekoa.
Zu izan zera jokalaria bat
guztia jokatzekoa.
Nere errukiz nik ez det galdu,
kontra neukan Jaungoikoa.

Aro: Nik pentsatzen det lan egiteko
etzendula gogorikan.
Ikusi zaitut bi-iru aldiz
gerrik ezin makurturikan.
Bote ederra egiten zion,
etzun egin nai korrikan...
Nere diruak onentzat dira
partidua galdurikan.

Mug: Lagunen kontra itz egiteko
zu etzaude atsegiña!
Sinestu zazu joko legea
ez dala izaten berdiña.
Nik izango det neure erruaz
gaurko ontan utsegiña...
Zuk etzenduen ezer galduko
etxian egon baziña.

Aro: Enun pentsatzen ni gaur onuntza
zuregana etortzerik.
Eta enintzan etorrikore, ez
bazendun jarri biderik.
Ez det pentsatzen nik zure alde
geio inun jokatzerik!
Pelotariak ez dute ematen
disgusto txarra besterik.

Bakarka hiru bertsoarako gaia Mugartegiri: *Gaur, gure elizetan lelengo aldiz entzun dira euskeraz ebanjelioa eta epistola. Zure iritzia eman behar dezu, hiru bertsoan.*

Mug: Nere barruan jarria dago
Jaungoikoak dakarrena,
ta zorionez bilduak gera
Donostian elkarrena.
Elizgizonen laguna naiz ni
ta ezta izango txarrena;
euskeraz bertan mintzatutzia
da legerikan zarrena.

Fedeko itzak ondo autortzen
egingo det alegiña,
Ebanjelio ta epistola
nola zeuden gaur, jakiña.
Jesukristoren legea degu
eginkizunik aundiña.
Zerua irabazi nai bada
izan zintzo eta fiña.

Anai t'arrebak, danok daukagu
guk aita baten odola.
Jesukristoren erentzia da,
ezin ukatu inola.
Euskalerrian ebanjelio
euskeraz, ta epistola...
Aurrera ere segi dezala
jarraitutzen, bai, orrela.

1967ko Bertsolari txapelketa nagusia

Bertsolarien txapelketa nagusia bi-hiru urtez behin antolatzen zuen Euskaltzaindiak. Eta 1967ko azkena, ekainaren 11an egin zen, Donostian, ohitura zenez. Sekulako jendetza izan zen egun hartan ere, Euskal Herri guztitik etorrita. Goizeko saioan Mattin, Lopategi, Gorrotxategi, Xalbador, Garmendia, Arozamena, Mugartegi eta Madariagak kantatu zuten. Arratsaldean berriz, Lazkao Txiki, Lopategi, Gorrotxategi, Xalbador eta Uztapidek.

Goizeko saiotik (Auspoa 67) jaso ditugu ondorengo bertsuok. A. Irigoienek honela eskatu zion Mugartegiri: *Jon Mugartegi: Narbarte bertsolari laguna, gaixorik dago. Gaur emen egon behar zuen, baiña etxean gelditu da. Agurtu ezazu.*

Mug: Narbarte lagun biotzekoa,
 erruki zaitut benetan.
 Zu baiño mutil oberik ezta
 izango mundu onetan.
 Orain gaixorik aurkitzen zera
 naigaberik txarrenetan.
 Gure artera etorri zaitez
 bertso kantatuz onetan.

Txapelketako legeari jarraituz, bi puntu Mugartegiri:

*Zartziak ezer ere
gauza onik eztu.*

Mug: Naigabea gauza ortan
 sarritan gaiñeztu.
 Baiña oraindik iltzerik
 nik ez det sinistu.
 Luzaro bizi nai degu,
 ortan nago gaiztu.

*Iñork eztu gogorik
gazterik iltzeko...*

Mug: ... baizik mundu onetan
ondo ibiltzeko.
Euskalerra maitea
nago serbitzeko,
euskeraz dakiten dana
adierazteko.

Berriz ere txanda etorri, eta ofizioa eman zien Mugar-
tegi eta Madariagari: *Zu, Mugar-tegi, automobillean zoaz; eta
bidean, auto-stop egiñaz, neskatxa gazte eder batek besoa jaso
dizu. Neskatxa hori Madariaga da. Gelditu zera, eta neskatxa
igo da zure automobillera. Hasiera Madariagak emanda.*

Mad: Ai, Mugar-tegi, nere ibillerak
ordu onetan eztira.
Pentsa bezela gertatutzia
modu guztiak gaitz dira.
Gaur egunean ibiltze ori
nere iritziz garesti da.
Zure kotxian eamango al nazu
Bilbaotik Donostira?

Mug: Eskabidean datorren bati
ez diot ezer ukatzen.
Kotxe barruan ibillitzen naiz
ta enaiz asko nekatzen.
Onek bidean besoa jaso,
eta asi naiz geratzen...
Neska galdu bat ote zeraden
asia nago pentsatzen.

- Mad: Nere iritziz gaurko munduba
eztu ezagun jendiak.
Bein bear eta gertatu zaizkit
neri olako aldiak.
Atzo agindu eta gaur iges
nere nobio aundiak;
bide onetan tratua ia
gaur egiten degun biak.
- Mug: Neskatxa, ez det ontzat artutzen
gaurkoan zure esana.
Gustora egingo dizut serbitzen
nik egin al detan dana.
Nobiuakin bizi zerala
agertzen dezu afana...
Neregatikan libre zagoz ta
juan languarengana.
- Mad: Lenguak tranpa asko zeukala
asi naiz manifestatzen.
Zazpi urtian ark malizian,
ez naiz ibilli jostatzen.
Zure kotxia, zu majuago,
gaur zutikan naiz jostatzen...
Pentsa, neskatxa gaztia naiz ta
pinturik ez det gastatzen.
- Mug: Neskatxa gazte polita zera
baiña dana alperrikako.
Zer uste dezu: ez dizutala
zer zeraden igarriko?
Zure eskua biurturikan
ez nazu errez jarriko...
Lengoa ona izan balitz zu
etziñaden etorriko.

Hiru bertso kantatzeko gaia Mugartegiri: *Bertsolaritza eta euskera*.

Itzal aundiaz gordetzen zaitut,
izkuntza berdingabea.
Bertsolari ta zure izatea
gozoa ta suabea...
Euskaldunentzat euskera baiño
zer da izpide ohea?
Galduko zaigun bildurrez nago,
ortan daukat naigabea.

Gure izkuntza zoragarria,
maitatzen zaitut barrutik.
Etzaitu askok ezagutuko
bear bestian aurretik.
Pixka bat alde eginda zaude
gu sortu giñan lurretik!
Lengo lekura etorri zaitez,
etzazu izan beldurrik.

Bertsolaritza eta izkuntza
daukagu oso betea.
Gaur Donostian, ori dala-ta,
dago euskaldun jendea.
Pena artzen det gu utzi eta
beste batera joatea.
Pixka bat ori zuzendu dedin
lagundu, ama maitea.

1979ko Bertsolari txapelketa nagusia

Ezineko zerbait bazirudien ere, urte askotako etenaren ondoren, berriz ere bertsolarien txapelketa nagusia antolatu zuen Euskaltzaindiak, 1979ko udazken-neguan. Ez zen lantegi erraza izan, baina ekina egina izan, behin eta berriz. Bertsolariekin banaka-banaka hitz egin, eta

lehiaketarako prest zegoen hamaseiko taldea aukeratu eta egin zen, azkenik ere. Eta bertsoaren gose-egarriz zegoen zaletuak ondo baino hobeki erantzun zuen, han-hemen egin ziren neurketa-jaialdietan. Inola etsi nahi ezta egin zen ahaleginak balio zuen behin eta berriz.

Saio denetatik zerbait hartu behar-eta, 1979ko abenduaren 23 arratsaldean Arrasaten kantatutako zenbait bertso jaso dugu hemen. Zortziko haundian hiruna bertso kantatzeko gai hauxe eman genien Xabier Amuritza eta Jon Mugartegiri: *Zuek biok, Bingo atarian topo egin duzue oraintxe. Amuritza, jokatutako guztiak galdu eta etxera doa, triste. Mugartegi, Bingora doa, irabazteko esperantzaz beteta.*

Amu: Bingo etxean dana dirua
 ta jokalari korrua.
 Itxaropenez sartu naiz eta
 egin dut ainbat orrua.
 Galtza ta lumak or galdu ditut,
 urduri daukat barrua.
 Zuk ere orra sartzen bazera
 galduko dezu larrua.

Mug: Jokoetxe bat bisitatzeko
 badaukat ainbeste gogo;
 diru piska bat irabazteko
 leku oberik nun dago?
 Nere lagun au, galdu dula-ta,
 bildur aundiaz bai dago.
 Ni barrurantza banua eta
 jakin nai zein dan geiago.

- Amu: Zein dan geiago jakitekotan
dirua bear da bota.
Nire lagunak or somatzen du
nik ez nuena: epoka.
Aberasteko esperantzakin
atez barrura dago ta,
gero berari kenduko diot
buruan aitzurrez jota.
- Mug: Jokoetxe baten aurkitu gera
lagun biok beriala.
Esango nuke gure artean
komerik asko badala.
Joan aurretik izan bear da
diruaz oso zabala,
ta nere ustez au gertatu da
diru kontuan makala.
- Amu: Galtzaille eta irabazleak
infernua orretan berdin.
Esperantzakin ustel atera,
orrexek ematen du min.
Jokatu dut nik, dena galdu dut.
Etzait izan ez atsegin.
Aurrerantzean obe izango zait
bizitzeko lana egin.
- Mug: Kontu pixka bat artu dezagun
gure arteko auziaz.
Nik ere garbi jokaturten det
lengo zarrak ikusiaz.
Diru pixka bat moldatzen badet
Jaungoikoaren graziaz,
mundualdi au pasatuko det
jokoko irabaziaz.

Mugartegiri bi puntu:

*Kattalin gorri-gorri,
nora zoaz, nora?*

Mug: Ori zer dan jakiteko
badago denbora.
Gaur Mugartegi dijoa
bere ingurura...
Berakin batera sartu
nai luke zerura.

*Zer egiña badiat
esposatu gabe*

Mug: Baiña ni enaiz aurkitzen
zori orren jabe.
Ezkondu gabe banintza
neuretzako obe.
Aurrean lore politak
emen badirade.

Mugartegi eta Patxi Iraolak egin zuten saiorako gaia:
*Haizea eta orbela zerate zuek, airean batera eta bestera zabiltzate.
Hiruna bertso zortziko txikian, Mugartegi hasita.*

Mug: Gai polita daukagu
ta enaiz arritu.
Bion artean auxe
nai det erdibitu.
Aize zakarrak badauka
ainbeste meritu,
orbel ariñak errez
errenditzen ditu.

- Ira: Aizeak ala dio:
indarra duela.
Nik ere ongi dakit
garaia nuela.
Aizearen aurrean
nabillen orbela...
Eztakit merezi nun
tratu au orrela.
- Mug: Indar aundia dator
nere ingurura,
ta esan bearrez nago
dakidan modura.
Aizea errez juaten da
orbela ondura.
Laister bidaliko det
emendik zerura.
- Ira: Orra, aizeak nai nau
ni orbela galdu.
Aizeak kalte asko
egiten ez al du?
Aizeagatik ezta
emen gutxi galdu...
Gauz onak ezkutatu
ta txarrak azaldu.
- Mug: Gai polit au nai nuke
kontuz erabili.
Aizeak ez du galtzen
ainbeste famili.
Otza dagon garaian
beroa estali...
Baiña, orbela, zu beti
kontuan ibilli.

Ira: Esaten dizut, aizea,
alper zabiltzala.
Zuk egiñagatikan
zere egiñala,
badakit garaitikan
pasatu giñala...
Udaberriak ordaiñez
nik nuen itzala.

Kartzelako gaia Mugartegiri: *Bihar Gabon. Doiñu eta neurri librean, hiru bertso.*

Gaiak onela agindutzen du.
Asi nai nuke lanean.
Entzule asko begira dago
aurre ta aldamenean.
Gabon eguna badatorrela
danok gaude jakiñean...
Sendi artean pasatu daigun
guztiok zorionean!

Gabon eguna gai artu nai det
lendabiziko itzeko.
Egun politak izaten dira
bake onez ibiltzeko,
guraso eta anai-arrebak
alkarregana biltzeko...
Batak bestean maitasunean
gau eder bat pasatzeko.

Nere barrena lasaituko du
piska batean egonak.
Gure artean gertatzen dira
onelako zorionak.
Zorionean alkaturikan
aitonak eta amonak,
ondo igaro, entzule danok,
nere partetik Gabonak!!!

1979ko Txapelketa hartan, baina 1979ko abenduaren 30 goizean, Gernikan kantatutako zenbait bertso. Zortziko haundian hiruna bertso botatzeko gaia Azpillaga eta Mugartegiri: *Irakaslea -Azpillaga- eta ikaslea -Mugartegi- zerate zuek. Irakasleak sekulako belarrondokoa eman dio ikasleari. Irakaslea hasita.*

Azp: Ni irakasle ipiñi naute
gure erriko izkeran,
ta barrunbeko jokoa dago
gu bioren goraberan.
Mutil argi ta jator askuak
nerekin ditut aukeran.
Belarrondoko au eman dizut
ia listotutzen zeran.

Mug: Irakasle au jakintsu asko
egin zuen Jaungoikoak.
Badakizute, danok ez gera
sortzez mailla ortakoak.
Baiña nik ere gordetzen ditut
garbi neure gogokoak.
Nere bururik ez du argitu
zure belarrondokoak.

Azp: Ikastegian eman zitzaizun
lekua eta babesia.
Mutil onekin zerbait aundia
eiteko nuen ametsa...
Belaunbikoka ibilli zaite
ta Jainkoari erreza.
Izan'e au da mutil koskor bat
tontua ta aldrebesa.

Mug: Nik uste nuen era orretan
zu etziñala asiko.
Nere irakasle au ez da gaur
ikaslearen graziko.
Zure bitartez gradu aundirik
ez degu irabaziko...
Modu orretan baldin bazabiltz
ez det asko ikasiko.

Azp: Beti borrokan ibilitzen da
iñor bada aldamenian.
Gogorkerian artu bearko,
ezer ez dago onian.
Orregatikan ipiñia det
belaun koskoen gaiñean.
Bi musu berdin emango'izkitzut
portatutzen zeranian.

Mug: Ikasle batek egin nai dizu
gaurkoan onez abisu:
zure oiñetan ikasitzeko
bidean jarria nazu.
Baiña zergatik ematen dezu
orain ainbat amenazu?
Askoz geiago ikasiko det
gozo artutzen banazu.

Zortziko txikian hiruna bertso botatzeko gaia, Mu-
gartegi eta Jon Enbeitari: *Ezinezko maitasuna da zuena: ura*
eta ardoa zerate. Mugartegi - ura - hasita, hiruna bertso.

Mug: Uraren etorkizuna
ez degu illuna,
goizetik berarekin
asten da eguna.
Gure artean au da
maitatzen deguna...
Munduko zikin guztiak
garbitzen dituna.

- Enb: Ala be zikin asko
dabiltza igeri.
Nigan industri asko
egin dek eseri.
Zapaburuen poza,
umeen edari...
Gizon jator guztiak
biltzen jataz neri.
- Mug: Ura, zugana badet
orrenbeste grazi.
Gauza ederragorik
ez leike erosi.
Zure garbitasunak
ditugu lenbizi...
Urik gabe ez daukagu
ainbeste malizi.
- Enb: Gaur be pozez ainbatek
egin nau kutzitu.
Zuk aurraren sabelak
bakarrik garbitu.
Nik gizona berotu
eta zuk otzitu...
Gure diferentziak
alde auek ditu.
- Mug: Urak beregan badu
bere etorkizuna,
nunbait garbitzen duna
zikin ta lizuna.
Nere oparia au da
eskeintzen zaizuna:
ura degu munduko
garbi ta osasuna.

Enb: Guk gure egin bearrak
 ditugu beteko.
 Ta esatera noa,
 ez daiten kalteko.
 Aurrerantza be dudik
 gaur ez izateko.
 Ura garbitzeko ta
 ardoa edateko.

1982ko Bertsolari txapelketa nagusia.

1982an Euskaltzaindiak azkenengo aldiz antolatutako txapelketa nagusian eskuhartu zuen berriro Mugartegik, beste bertsolari askorekin batera. 1982ko urriaren 22an Gernikan egindako saiotik jaso ditugu ondorengo bertso hauek. Hasteko, Mugartegiren lehen agurra:

Agur ta erdi, entzule denoi;
ta zorionak gaiñera.
Nere agurra bidali nai det
Euskalerra on danera.
Baietza eman genduen eta
etorri gera lanera.
Zuek txaloaz erantzun ortik
ondo portatzen bagera.

Agurraren ondoren, bertsolari guztiak bi-bitara jarri genituen lanean. Baina Mugartegiri hirukoan kantatzea egokitu zitzaion, honako gai honetan: *Lazkano, Lopategi eta Mugartegi orain. Lazkano, tailerreko nagusia da. Lopategi, langilea. Eta Mugartegi, hartzekodunaren - akreedorearen ordezkaria. Eta ordaindu ezin duten makina eramatera dator gaur, zorrak kitatzeko. Ana bertso zortziko nagusian.*

Laz: Gauzak biurri zijoazen ta
 azkena gendun jakiña:
 au izandu da krisis gaiztoak
 ekarri dun eragiña.
 Ustu didate nere fabrika,
 eman didate makiña.
 Len diferentzi piska bat bazan,
 orain biona berdiña.

Lop: Gu langilleok flako gabiltza
 eta nagusia mardo.
 Olako zerbait gerta leikela
 pentsatzen nengon lenago.
 Beti zintzo ta fin lan egin det,
 badut ortan naiko grado.
 Ni lanerako gertu naiz baiña
 nere makiña non dago?

Mug: Nere barrenak sentitutzen du
 orain une berezia.
 Ta biontzako eman nai nuke
 erabagi, sententzia.
 Emen autortu bearra daukat
 neure begiz ikusia:
 biak nagiak dirade emen,
 langille ta nagusia.

Laz: Obe genduen makina ori
 lendikan gorde bagendu.
 Ori gabarik gure martxarik
 ezin baileike mantendu.
 Artzeko zale gendun bankuak
 beti ori egiten du:
 eguzkitako aterkia eman,
 euria danean kendu.

- Lop: Era orretan gure fabrika
ez ziteken joan gora,
nagusi onek beraneatzen
pasatzen baitu denbora.
Alako baten erreminta oiek
fabrikatikan kanpora...
Eta azkenian miseri denak
langillearen lepora.
- Mug: Egiak irten bearra zuen
orain edo geruago.
Nik neure barrena askatu arte
neure onian ez nago.
Langille txarrak ez ditut maite,
eta onak gutxiago.
Nagusi txarra dagon lekuan
langille onik ez dago.
- Laz: Ni ere noizbat lotu bai nintzan
inbiriaren katean,
eta burruka egiña daukat
ogeita bost bat urtean.
Azkenik dena gertatua zait
neronentzako kaltean.
Nere ametsa bukatuko da
Mixekordiko atean.
- Lop: Gauza oiekin komeniko zan
gogoratzea len garaiz.
Nagusi jauna ezta azaltzen
orain itxura ain alaiz.
Euskalerrian olako gauzak
gertatutzen zaizkigu maiz.
Familitxoa nola aziko det
lan gabe gelditzen banaiz?

- Mug: Nik ere asi bearra daukat
neure egiak autortzen.
Olakorikan gertako zanik
emen ez nuen pentsatzen.
Orain asi naiz zuen utsekin
ni neure kontuak artzen.
Gutxienian jakin zazute
alkar errespetatutzen.
- Laz: Utsa urteak pasa banitu
guztiz eroso ta lasai!
Egoaldi ona nai nuen baiña
ekaitza zegon nere zai.
Lenago lagun ziranak ere
orain jarri zaizkit etsai...
Errian eztet zer egiñikan,
Anbotora noa artzai.
- Lop: Bear bezela eztu eraman
negozio karruzela,
ta ona emen makiña billa
beste au etorri dela.
Nola batek ta ala besteak
jokaturik edozela,
bien artean da langillea
Kristo kurtzean bezela.
- Mug: Nik nagusiak izaten ditut
errespetuz ta aintzako.
Len ere biotz ona nedukan
zerbait zuri eskeintzeko.
Baiña ez dezu burutasunik
bide ortan ibiltzeko,
ta azken orduan diran guztiak
izan dira neretzako.

Bi puntu Mugartegiri:

*Jendea asetzeko
badago premia.*

Mug: Ortarako esan bear
nork bere egia.
Neuk ere argi samarra
daukat gaur begia,
emen dagola jende
bertsoen zalia.

*Obeto bizi nai ta
urteak aurrera...*

Mug: ... ortarako etorri
bai giñan lurrera.
Eraman bearra degu
daukagun karrera.
Zartzaroan obeto
biziko al gera!

Kartzelako gaia, bi-bitara kantatzeko: *Hamarreko txi-
kian, launa bertso kantatu beharko duzue. Hain zuzen, pilota
partida jokatzan ari zerate biok. Mugartegik hemezortzi tantu
ditu; eta Etxeberriak, zazpi.*

Mug: Pelotarien kontuz
asi naiz oartzan,
nola etorri geran
pelotan jokatzan.
Ori gertako zanik
ez nuen pentsatzan...
Ni asi naiz lagunai
negurriak artzan,
ta orregatik asi
da ori bildurtzan.

Etx: Nik ez nuke egingo
zuk nai aiña grazi,
baiña pelotan ez naiz
oso ondo asi.
Nik zazpi tanto dauzkat,
ta zuk emezortzi...
Neregandik aurrera
or zoaz igesi.
Baiña jokua eztezu
oindik irabazi.

Mug: Aldakuntza badator ¹
doiñuz edo kantuz...
Neuk ere itz egin nai
nuke pulamentuz.
Ni aurrera nijoa
egindako tantuz,
nola argi nabillen
gorputz ta talentuz.
Nere onduan beti
egon zaitetz kontuz!

Etx: Desapioa zorrotz
neri arpegira,
geiago're orrekin
konturatu dira.
Mugarategi, etorri
bear dan tokira,
ta errespetoz eman
jokoai segira.
Partidua biontzat
dago oita bira!

- Mug: Nik eztet iñoiz galdu
gorputzeko almenik,
iñoiz eztet egiten
okerreko lanik.
Neure jokobidea
ondo eramanik,
ogeita bi tanto gaur
egingo ditut nik.
Iñoiz etzazu uste
ni ainbat zeranik.
- Etx: Bikotea ez gera
jokoan berdiña:
bat oso astuna da,
bestea ariña.
Zu aurretik gaur errez
or zoaz, bai, baiña
ezagutuko dute
bai nere eziña.
Beti irabaztun da
galdutzen dakiña.
- Mug: Gure artean dira
egundoko lanak!
Geure almen guztiak
ditugu emanak.
Lenago ere ola
ziraden izanak.
Gu gera emen gaurkoz
negurtu geranak...
Irabazi dezala
obeago danak.

¹ Etxeberriak lehenengoan hasitako doinua aldatu bait zion

Etx: Biontzako berdiña
bai degu bidea,
naita ala ez izan
daukagun idea.
Zu, Mugartegi, zera
nere senidea,
pake nai det zurekin
zu ala bazea.
Esku alkarri emanda
goazen etxea.

Mug: Nere lagun maitea,
etzabiltza illun,
lagun jatorragorik
nik ez daukat iñun.
Geure jokoa garbi
emen egin daigun,
ta ez degu galdu nai
ainbeste euskaldun.
Galdu naiz irabazi,
biok gera lagun.

Santa Ageda eskean

GArai bateko bertsolari gehienak bezalaxe, Santageda Eskean ere ibili zen berriatuarra. Eztarri eta etorri errezeko koplaria izaki, santaeskeko zereginak oso ondo betetzen zituen. Plazan eta antzokian baino gehiago nekatu bai gorputzez eta eztarriz, baina bera askoz ere lasaia- go ibiltzen zen, bertsoa baino errazagoa da kopla-eta.

Esan digunez, lehenengo santaeskeak bere herrian egin zituen, eskolako beste zortzi-hamar mutikorekin batera. Amonak erakutsitako koplak kantatzen zituen, bereziki. Santa Agedaren bizitzari buruzkoak eta horrela. Inguruko baserrietara bakarrik joaten ziren, jakina. Eta ez zuten diru pila haundirik batzen, baina gustora ibiltzen ziren, baserri bakoitzean saioa egin ondoren gelditu eta txanponak behin eta berriz kontatuz. Ume-umetatik ezagutzen zuen ohitura hori ikaragarri gustatzen zitzaiola dio.

Baina gero koskortu zenean, Berriatuan, Motrikuko Olatz auzoan, Ondarroan eta horrela ibili zen. Inoiz, barka; eta beste batzutan Roman eta Modesto Maiz *Okelar* anaiekin. Biekin gainera, urte ezberdinetan badare. Orduko koplak oraindik ere entzuten omen ditu irratiren batean, baina ezin izan ditugu eskuratu, zoritxarrez.

1993ko otsailaren 4an, erdi makalik-edo zebilen Azpillaga urteroko koplaria omendu zuten Mutrikun. Eta aspaldiko bere bertso-laguna eraman zioten santaeskean elkarrekin kanta zezaten. Egun hartan saio ederrak egin ziztuzten, elkarren lehian. Azpillagaren *Hasi*, *Azpillaga* liburuan (Auspoa 272) jasota dauden *Ametza* tabernan biok txandan egin zuten saio hauxe aukeratu dugu eredu:

Azp: Gabon Jainkoak! oitura zaarrak
esaten dun esanera.
Erri guztia pasa ondoren
bagatoz Ametzanera.

Mug: Au da etxe bat jator askua,
deitzen diote Ametza.
Ondo portauko dirana emen
badaukagu esperantza.

Azp: Santaeskean asi giñala
oita bosgarren urtia.
Neuk asi nuan, baten bada ere,
artu nai nuen partia.

Mug: Indar berritzen zu jarri ziñan
bai Mutrikuko erria.
Ta erantzunez eman nai dogu
zure ongi etorria.

Azp: Bat baiño geio egon omen da
ni ilko naizelakuan.
Lata emoten oraindik segi
nai nuke urte askuan.

Mug: Azpillagaren sentimentuak
gaur datozkit barrenetik;
Santa Agedak gorde zaitzala
luzaro osasunetik.

Azp: Promesa neukan kantatutzea
olakoxe leku baten,
oraindik ere sendo nagola
auzuak jakin dezaten.

- Mug: Gizon aundia degu biotzez,
argia beti memoriz.
Gaur ere asko bizi dirade
Azpillagaren inbiriz.
- Azp: Etxe onetan ondo dakigu
zer eginkizun daukagun:
Pakita degu denon amona.
Bera koplatu dezagun.
- Mug: Nik izan nai det itzaren bidez
Azpillagan lagun fiña.
Onebestekin agurtzen zaitut,
Pakita, zu lagun miña.
- Azp: Urte mordo bat bada senarra
mundu ontatik joan zala.
Gizon ona zan eta Jainkuak
zeruan gorde dezala.
- Mug: Senar maitea joan zitzaizun
zuri zeure ingurutik.
Eta gaur gure koplak entzuten
egongo al da zerutik...
- Azp: Munduko partez gero zeruan
izan zaitezen batera;
aingeruekin irtengo zaizu
zeruetako atera.
- Mug: Baiña neroni ez dit egiten
neroni bat'e grazirik.
Zeruan ilda baiño naiago
mundu onetan bizirik.

- Azp: Joserrak dio erri onetan
dago tabernari abil.
Jose Luis ori emen ez dago,
eta nun kristo ote dabil?
- Mug: Saioa ainbat luzatu zanik
emen ez nuen usteko.
Ia ordua izango degu
limosna eske asteko.
- Azp: Baiña Jose Luis kankaillu bat da,
garbi dago ikusita.
Edozer gauza jan ta edaten du
rejimenari utzita.
- Mug: Ez naiz sartuko rejimen ortan
bestearen alorretan.
Azpillaga ere gogor jardun zan
berdintsu bide orretan.
- Azp: Bai, Jose Luis, ez al dakizu
ezin litekeela ola?
Nik ere azkar utziak ditut
tabakua ta alkohola.
- Mug: Au da gizon bat zezenak bezin
indartsu aundia izana.
Baiña gaurkoan bete beariko du
sendagillien esana.
- Azp: Baiña Mirentxu koplatsu gabe
ezin gantzake aldegin,
bera dalako auzo guztiko
edertasunen atsegin.

Mug: Asi danean Azpillaga au
aurkitzen zaigu berritsu.
Nik ez det ondo ezagututzen,
non ote dago Mirentxu?

Azp: Larogeita amar kilo inguru
izango ditu barrena.
Gure errian aurkitutzen dan
emazterik ederrena.

Mug: Istori zarrak esaten duna,
ez det esango noizkua,
baiña orrekin seguru dago
pekatu aragizkua.

Azp: Berandu dala esaten dute,
luzatutzea kalteko.
Pena da baiña bukatu bear
Apaillunera joateko.

Mug: Santaeskeak berekin ditu
eginkizun ta istori.
Eman dezuten guztigatik
eskerrik asko denori.

Usadio zaharrak berrituz otsailaren 4an, urtero etxez-
etxe ibiltzen den talderen bat baino gehiagorentzat bertso-
ak/koplak ere idatzi izan ditu Jonek. Izan ere, dozenerdi
bat koplaren eske etorri izan zaizkio askotan eta ezin, ba,
ezetzik esan.

Baina, betiko leloa: ez du izan egindako bertsoak gor-
detzeko ohiturarik, eta asko galdu ditu sekula betiko, zo-
ritzarrez. Etxeko armario-bazterrak miatzeko eskatu ge-
nionean, bakarren bat edo beste aurkitu zuen halare.
1996ko Santaeskerako Markinako kuadrila batek eskatuta

egindako hauexek, hain zuzen. Seme Jonek makinaz txukun-txukun idatzi zizkion, eta hauek gorde zituen behintzat. Bizkaiko Santaeskeko doinuaren neurrian idatzita daude, irakurlea laister ohartuko denez. Honatx:

Agur egiñez abesti gozoz
eskale fiñen antzera
Santa Agedak ekarri gaitu
kopla batzuk eskeintzera.
Eskabidean bagatoz ere
ez goaz iñor mintzera.
Bere bizitzak beartzen gaitu
pake giroz ibiltzera.

Santa Ageda bezpera dogu
otsaillaren laugarrena,
Euskalerrian ospatutzen dan
istoriarik zarrena.
Alkar pozturik talde eder bat
batu gara alkarrena,
doiñu sakonez gozatu nairik
entzule danen barrena.

Aurtengoz ere Santa Agedak
kalera atara gaitu;
egun danetan eskabidean
ezin liteke jarraitu.
Nai doguna da erri osoa
baretu edo lasaitu.
Diru pixka bat eskuratu ta
zuen biotzak alaitu.

Markina erri apraposa da
bere obra sakonetan.
Kantu giroko zaletasuna
badago erri onetan.
Alaitasuna eskeiñitzeko
zuen ate onduetan...
Oitura zar au gorde nai dogu
erriko inguruetan.



Mugartegi Urkiolako elizan

Orretaz badu zer ikusirik
oraiñak ta iraganak.
Oraindik ere badira batzuk
bakez ibiltzen diranak.
Kontuan artzen baldin badoguz
esanak eta izanak,
askoz geiago sufritu zuen
martirioan il zanak.

Seriotasun andiagoaz
ez gatoz iñor nekatzen,
zer ondorio ekarri leiken
orrek baigaitu kezkatzen.
Umore onez asi gaitzean
diru pixka bat eskatzen.
Ondo ordaintzen dakienari
guk badakigu eskatzen.

Zer asmorekin etorri geran
ez dago esan bearrik:
diru pixka bat eskuratzeak
badu alderdi ederrik.
Zuen laguntza galdu ezkeron
guk ez daukogu indarrik.
Beste gauzarik ez degu eskatzen:
borondatea bakarrik.

Ez genduke nai zuen etxetan
jartzerik ainbat ernegu.
Armoni ona artu dagigun
gizartearen eredu.
Zuen limosnak eskertu eta
onez joango gara gu...
Ondo bagara urrengo urtean
bisitatuko zaitugu.

Bat-bateko bertsolaria

EZ dizut ezer berririk esango, noski. Betiko bertsolaria, bertsolari tradizionala, bat-batekoa izan da, batez ere. Iturriak ura bezala, etorri ahala bertsoa ematen duena. Idazteko baino bat-batean kantatzeko erraztasun gehiago duena. Lehen ere inoiz kontatu izan dudana datorkit burura: bertsolarien txapeldun haundi bat ezagutu nuen gaia jarri eta hitzetik hortzera zirt eta zart agudo erantzun ohi zuena. Baina behin batean, lau-bost bertso idazteko eskatu nion, eta ez dakit zenbat ordu egin zituen aurrean zuen paperari begira. Ez etortzen ezer berak nahi bezala idazteko modukorik. Bertso onak egin nahi, eta ezin ezer asmatu, berak esaten zidanez. Hura estuasuna eta amorrazioa! "Hau eztek neretzako egiten!", esaten zidan.

Ez nizuke esan nahi hau Mugartegiren kasua denik. Baina, bertsotan bat-batean errezero egiten duela jokatu-ko nuke idatziz baino. Halare, papera hartu eta hasten de-
nean, bertsoa errez samar etortzen zaio. Baina ezin jarri da idaztera. Izugarritzko pereza ematen diola idazteak. Zi-rikatzaile bat inguruan balu, sikira!

Dena den, han eta hemengo jaialdietan bat-batean kantatu ahala jasotako bertso batzuk aukeratu ditugu orain hemen emateko. Eta pozik irakurri eta kantatuko di-tuzula nago.

Hasteko, 1964ko udaberrian, Txomin Agirre (Ondarroa 1864 - Zumaia 1920) idazle haundiaren mendeurrena zela-eta, bertso jaialdi bat antolatu zuten Ondarroan. Ba-lendin Enbeita, Basarri, Uztapide, Juan Ibarzabal *Buztarri*, Urtubizako Peru, Jon Azpillaga, Jon Lopategi eta Jon Mu-

gartegik kantatutako zenbait bertso jaso eta argitara eman zituen *Boga Boga* aldizkariak, bere *maiatza-ekaina '64* alean. Eta Beatriz Zubikarai andereñoari esker eskuratu genituen, duela gutxi. Mugartegik honelaxe kantatu zion Txomin Agirre idazleari, mirespen haundiz halare:

Txomin Agirre, zuk beti zendun
euskaldunaren gogoa,
euskal idazle biurturikan
biotz, gogo ta aboa.
Ondarruako seme argi bat,
ezinda abillagoa...
Fede aundiko idazle ona,
bertsotan ederragoa.
Jaungoikoaren ordezkaritzan
Kristoren ondorengoa.

Zure izkuntza ederra zer zan
ta zure biotz umilla!
Bizi guztia igaro zendun
fedeko itzaren billa.
Bizkaierazko jakintsuena,
gipuzkoeraz abilla...
Gure Ondarrun auxe esaten
dutenak badira milla:
zu bezelako beste seme bat
lenbailen sortu dedilla.

1964ko abenduaren 20an, bertsolari txapelketarako saioa egin zen Bilboko Capitol antzokian. Eta amaituta gero, alde zaharreko Gorbea jatetxera bildu ziren bertsolari batzuk, bazkaltzera. Mugartegi eta Mitxelenak saio luzea egin zuten bazkalondoko beroan, gai librean. Handik hamar-hamaika egunera berriro Donostian elkartzekoak ziren, txapelketa nagusiko azkenengo jaialdia zela-ta. Honatx bazkalondo hartako bertso batzuk.

- Mug: Argia daukat almena
esateko al dena.
Emen azaldu bearra dago,
egin aal dena.
Gauzarikan ederreña
bildutzia alkarrena...
Lenago ere jardunak gera
biok, Mitxelena.
- Mtx: Leno egindako lana
aztuta zeukagu dana,
ta eztiago oso galdua ere
elkarren afana.
Nabil eskutatik joana,
daukat txarrezko kanpana.
Gure burua erakusteko,
dozenerdi bana...
- Mug: Parkerik ezta izaten
ta asiak gaude esaten:
pazientziaz ez dago errez
dana eramaten.
Gaizki zabiltza zu aurten,
gora ezin dezu irten.
Obetuago kanta zenduen
bein Lizargaraten.
- Mtx: Neri bertsuak naute poz.
Beti izan ditut gogoz.
Baiña aspaldi onetan nabil
oso zorigaiztoz.
Gorabera txar bat zalakoz
txartu nintzan ni nerbioz.
Ezkeroztikan naigabe danak
neregana datoz.

Mug: Beste gauza bat nai esan
gaur nik al nukien gisan.
Zuk badakizu, abilla ez naiz
ni sekula izan.
Erantzungo dizut prisan,
jarriak gaudela mesan.
Jakin nai nuke zer pasatu zan
lenguan Tolosan...

Mtx: Tolosaz nai det itz egin.
Ez det askorik utsegin.
Gezurra esanda nere burua
jarriko det zikin.
Neronek zeukat naiko min.
Nerbio txarrak neduzkin.
Asmoan faltik ez nian baiña
ez nin ezer egin.

Mug: Asmo onez ziñan jarri,
ta etzegon parregarri.
Bertsoak botatzen ari ziran
onenak elkarri.
Bata Iztueta ori,
ta Garmendia besteari.
Bien aldetik zu irugarren.
Txarrena berori.

Mtx: Tolosan nedukan malda.
Karga zidaten espalda.
Egun aretan ez bainedukan
biotzeko galga.
Mitxelena beti formal da.
Eindako lana jornal da.
Beste egun bat obiagua
etorriko al da...

- Mug: Garbi naiz neure ustian,
zarrenaz eta gaztian.
Beste bat jarri bearra daukat
nire albistian.
Ez nago estura tristian,
argia nago bistian.
Baiña gaur ibilliko da
ori Donostian.
- Mtx: Donostiko korapilla,
danok gabiltz orren billa.
Gu ikustera joango dira
iru edo lau milla...
An egon bear dut trankilla.
Nor dek ortako abilla?
Egun orretan zorion bat nitzat
iritsi dedilla.
- Mug: Ala bearrez samiña,
ez da ondo itzegiña.
Besteak ere egingo dute
euren alegiña.
Egun bat ez da berdiña.
Ni nago gaur utsegiña.
Naiago nuke zu Donostian
txapeldun baziña!
- Mtx: Zutzat milla errespeto.
Zer esanikan gaur ezto.
Zu zedorrek'e biar zenduke
ortan maiorazko.
Onelako zenbat bertso
Mugartegindikan dago...
Eskeiñi nauzun gauzogatikan
eskerrikan asko!!!

- Mug: Eman dezu aditzera,
lagun onak serbitzera.
Nik'e bertsotan eztet egingo
sekula atzera.
Biok anaiak bagera
bildu elkarren aldera!
Txapela neonek kenduko dizut
diskuidatzen bazera.
- Mtx: Bertsua bertsuan truke
izango ditugu guk'e.
Ta Donostiko lanak badauka
makiña bat neke.
Txapeldun nai neonek'e,
ta beste edozeiñek'e.
Zuk aterako baldin bazendu
poz artuko nuke.
- Mug: Biok gera adiskide
ez izan arren senide.
Baiña buruak badu oraindik
milla argibide.
Donostia degu bide.
An izanduko naiz ni're...
Danen burua ez al da izango
aurten Uztapide?
- Mtx: Gure Uztapide zarra
lenago gendun bezala
eongo da, noski, bere barrengo
mami ta azala.
Badakit gaixorik dala.
Badauka naiko itzala.
Nere partetik, premiz da-eta,
eraman dezala.

Mug: Nago esan bearrean
gaur neronen indarrean:
Jaunari esker enaiz aurkitzen
ni zoritxarrean.
Denok elkarren urrean
edertasun ederrean...
Besteak ere badira eta
segi urrenean.

Mtx: Bertsoetan ari gera,
baiña eman akabera
zuk, Mugartegi, betiko emen
asi ez baigera.
Urren Donostiz jobera
degu urtez aurrenera...
Bertsuarekin eman dezagun
urte asiera.

1964ko abenduaren 26an, *Urtezaharretako feria* zela-ta, bertsolariak izan zituzten Elgoibarren, urtero bezala. Prudentzio Egiguren *Artañola* zen aurkezle eta gai-emaile. Eta lau bertsolariei gai haxe eman zien: *Famili bat egiten dezute zuek. Basarri, aita da. Mugartegi, seme zaharrena. Lazkao Txiki, beti santuei errezatzen ari dan ama. Eta Azpillaga, seme gaztea. Lana baiño erromeria gehiago maite du honek. Seme zaharrak, baserrirako gogorik ez eta kalera joan nahi du. Baiña aitaren iritziz, baserrian ere bizi liteke, saiatu ezkeru.*

Bas: Ainbeste urte munduan pasa
ta oraintxe mixerian!
Negar malkuak jaiotzen dira
aita zarran aurpegian.
Seme batek lurrik maite ez,
bestia erromerian...
Ara zer martxa negargarria
dagon gure baserrian!



Jose Mari Arregi eta
Jon Mugartegi

Mug: Ezagutzen det, aita, zuk dezun
biotzeko zabalera.
Bestela itz bat egin bearrez
dago amaren magalera.
Etzait gustatzen seme gazteak
damakien ibillera...
Ni ia sobre artzen naute ta
laister banua kalera.

Ltx: Aita ta ama uzten dituzu
biotzetikan minbera.
Jaio ziñaden tokia utzi
ta juan nai dezu bera.
Baiña zer dalata, seme zarra,
juan nai zenduke kalera?
Lengo etxeari eutsi zaiozu
seme zintzoa bazera!!!

- Azp: Sendi batean ondo izanik
sortu zeiken iskanbilla!
Gazte naizela ta erromeria
gustatzea al da zailla?
Seme zar au da kalezalea
ta baserritar oskilla...
Guk baserrian segiko degu.
Bakarrik joan dedilla.
- Bas: Seme gaztiak erromeritan
oiua ta irrintzia...
Asentatuko zera oraindik,
kunpli zazu kutizia.
Eta zarrari damutu biar
zaio etxia uztia!
Gauza eskasa izaten baita
piontzako irabazia.
- Mug: Seme zar onek egiten ditu
beti lanikan latzenak.
Ta ondo dakit zer esker diran
aita eta amarenak...
Nik ortan kastatu izan ditut
gorputz guztiko almenak.
Gaurtik aurrera ez det egingo,
egin dezala gaztenak.
- Ltx: Aizu, senarra, orain jarri naiz
au artutzeko asmuan.
Ikusi dezu zarrenak nola
nai luken kalera juan.
Eta gaztia erromeritan
beti or dabil kanpuan...
Bera ezkondu bearko degu
aizeak juandakuan.

Azp: Amak duena lan ederra da:
errosaiua birritan.
Ta anai zarrak kalea dauka
buruturik pikarditan.
Ta aita zarrak zer kastatzen dun
probatan eta peritan!
Seme gazteak egingo ezpalu
lur danak zeuden sasitan.

Bas: Ama onek ere kulpak baditu,
emen eztago txisterik.
Onen jokarak ikusi eta
ni egoten naiz tristerik.
Biar bezela semerik onek
etzun gogortu gazterik...
Bere denboran ezpaitu egin
errezatzia besterik!

Mug: Aita pixka bat gogorra degu,
ama ez errukarria.
Auen artetik zer sortuko zan
lendik nengon igarria.
Nik egindako dana txarra da,
auxe da negargarria!
Neregatikan libre zaudete
zuek eta baserria!!!

Ltx: Senarra, zeu're zerekoi zera.
Bai'ituzu aldi illunak.
Semeantzako ez dituzu uzten
jai eta peri egunak.
Eta azkenik kalera nai du
nere semetxo kuttunak.
Azken ori merezi al zuen
bularra eman zizunak?

- Azp: Seme zar onek gurasoak ta
anaia utzi nai bakarrik.
Baserri baten lan egiteko
ez du doai ta indarrik.
Bere garaian etzun etxera
andre gazte bat ekarri...
Pulamentuan ibilli ta etzan
kalera jeitsi bearrik.
- Bas: Oso poliki bizi giñanak
orain kolpera galduak.
Gure ondasun guztiak daude
arrasto gabe aulduak.
Zartuta gero eraman biar
era ontako traguak!
Geu eskasak izan bagera
semiak eskasaguak.
- Mug: Zure erruak dirade, aita,
ta batere etzaitez mindu,
nere denboran lana egiten
zintzo bainaiz alegindu.
Esker gaiztoa alanda ere,
orain kanpora agindu!
Ama maitea, erruki zaitut!
Baiña zer egin bear dut?
- Ltx: O, nere seme biotzekoa,
min det ori entzutian!
Zu izan zera orain artean
baserrirako ustian.
Biotza bein ta berriz mintzen zait
gauza oek ikustian...
Baiña laguntza egingo dizut
bizi naizen bitartian.

Azp: Ikusten degu irukote au
kalerako egarrían.
Ajola al da ni apurtxo bat
ibiltzea errómerían?
Pena ematen dit pentsaturíkan
nola bizi bear dian!
Dijoaztela berauak, baiña
gelditzen naiz baserrian.

Ez zen ganadurik izan Elgoibarko feria hartan, ganadua plazara eramatea galerazita baitzegoen, naparmina zela-ta. Horregatik-edo, Artañolak *Elgoibarko feria* gai eman zionean, honela kantatu zuen Mugartegik.

Bi bertso kanta bear nituzke.
Nago ezin asmatuta.
Egingo al det gure Jaunari
laguntza bat eskatuta.
Feririk ere gaur egunean
etzaigu zelebratuta,
San Antoniori eskatzen diot
biotzez errukituta:
ganadu danak utzi ditzala
gaixo gabe, sendatuta.

Santu on baten argibidea
ona degu memorían.
Feria danak ikusten ditut
oso daudela erorían.
Ezin gintezke bizi baserrian
era ontako komerían!
Eskabide bat egin bear det
otoitz egiñez ferían:
gaixorik gabe bildu gaitzala
danok urrengo urtían.

1965eko urtarrilaren 31an, bertso-jaialdia egin zen Ondarroako Onbide zinetokian. Balendin Enbeita, Azpillaga, Lopategi, Lazkao Txiki, Arregi eta Mugartegi eram zituzten bertsoara. Gai-ematea eta aurkezpena neuk egin nuen. Beste gai asko jarri genien bertsolariei, baina Mugartegik *Ondarroaren omenez* kantatutako hauek aukeratu dizkizut oraingoz.

Badakizute bizi naizela
emendikan bi pausora;
nere erritik sarri begira
egoten naiz itsasora.
Zein ez litzake pozik batuko
onako leku gozora?
Ni beti pozak zoratzen nator
zuen erriko auzora.

Zenbat alditan txalo beroak
nagon barruan entzuna?
Ori dalata gaur ere argi
iristen zaigu zentzuna.
Badakizute zer izaten dan
bertsoaren erantzuna...
Opa dizuet aberastasun
ta betiko osasuna.

Agur Ondarru maitagarria,
auek dira gure itz fiñak.
Pena bat daukat lenagotikan
geiagorik ez egiñak.
Lurrekoak ta itsasokoak
ez dira beti berdiñak...
Lagundu zaizuela beti, bai
Antiguako Ama Birjiñak!!!

1965eko ekainaren 9an, Berriatuan elkartu ginen Azpillaga, Mugartegi eta hirurok, irratirako bertso batzuk grabatu nahi nizkien-eta. Mokadu bat jan, eta bien artean, txandaka, bertso hauexek kantatu zizkidaten.

Azp: Alkar biltzean kontatzen dira
gure umore ta penak;
zuk badituzu bertsotarako
indarrak eta kemenak.
Bertsoz ia nik bajatu ditut
bertsolari-talde denak.
Baina neretzat zu zera beti
bertso lagunik onena.

Mug: Aspalditxoan ez gera bildu
lagun, gu elkarrengana;
ni desiatzen nengon zuretzat
itz egiteko al dena.
Zuk esan dezu nik badetela
indarra edo kemena;
gaztetatikan zeuk kendua det
nik dadukaten geiena.

Azp: Len esan dizut ta orain berriz
bea'izut berri-berria,
jaiotzatikan izan dezula
bertsolari-jatorria.
Zure kaskarra autatutzen det
eta nere eztarria...
Bi gauza oiekin egin diteke
egitan bertsolaria.

Mug: Mingaiñetikan egoki zaude
eta burutik argia;
leenago ere eman zenidan
sarri ortako bidia.
Nik ondo dakit zu zeradena
gaur bertsolari aundia;
zure mendean izan bear du
oraindik Euskalerria.

Azp: Zenbat alditan gu elkarrekin
gaztetatik gera ari
ta jendiantzat jarria degu
makinatxo bat komeri.
Lendabiziko zu asi ziñan
ta ni zugana etorri...
Zuregatikan izan ezpalitz
ni ez nintzan bertsolari.

Mug: Nik banekien zure izateak
argi izan bear zula;
zuk bazenduen buru argia
eta biotza mardula.
Euskalerriko oiturarentzat
utzi ez egin sekula.
Gure bitartez euskera ori
beti indartu daigula.

Azp: Bertsolariak etorkizuna
berekikua daukate,
len ere sarri esan det baiña
entzun auxe esan arte:
Bi bertsolari Euskalerrian
gorengo mailan dauzkate.
Nere iritzian bi oiek dira:
Mugartegi ta Lasarte.

Mug: Gure izenik ez da aitutzen
Azpillagarena beste
naiz ta sarritan guregan egon
bertso berriaren eske.
Gure izatia ona balitza
auxe egin genezake:
gu geiagorik ez gera ezer,
geure legezkoa bete.

- Azp: Ez dit batere grazirik egin
zure oraingo esatiak,
oso laburra izaten baita
bertsolari izatia.
Baiña biziro ezagutua
da bertsolari jendia;
oi bai dala urretxindorra
kaiolan preso egotia.
- Mug: Ni ere zerbait gogoratzen naiz
orain zure esanian.
Gu ez gerade ezagututzen
ez, Euskalerra danian.
Txoriak legez preso artuak
gaude gu bertso-lanian,
zerbait geiago egingo degu
libratutzen geranian.
- Azp: Ez ote dira naiko oraingoz
orain arteko kontuak?
Bertsoak ere izan bear dute
labur eta kontatuak.
Bota ditugu orain artean
burura gogoratuak...
Pittin batean entzun ditzagun
orain arte kantatuak.
- Mug: Azkenengoa ez da izango
eta nai nuke itz egin
adituzera eldu diranak
artu dezaten atsegin.
Agur egin ta zuen aurretik
gaur ezin degu aldegin...
Beste saio bat gero egingo,
pixka batean itxogin.

1972ko abenduan *Urolako Topaketak* saioak egin ziren Azpeitian. Hitzaldiak, erakusketak, kantaldiak eta beste kultur ekintza askoren artean, bi bertso-jaialdi antolatu zituen Landetako kuadrilak. Horietako bat Izarraitz pilotalekuan egin zen, eta Joxe Lizaso, Lasarte, Muñoa, Igarzabal, Mattin, Lazkano, Gorrotxategi, Larrañaga, Agirre, Xalbador, Egileor eta Mugartegik kantatu zuten. Aurkeztu eta gai-emate lana neuk egin nuen.

Jesus Alberdi *Egileor* eta Jon Mugartegiri hauxe jarri nien, teman egin zezaten: *Egileor, tongo egin duen aizkolaria da; eta Mugartegi, apustuan dirua galdu duena.*

Mug: Aizkolari bat ikusia det
jokoan gaizki asia.
Gaztetatikan artua dauka
ortarako malizia.
Tongoen bidez joko txiki bat
badezu irabazia...
Eta nik berriz emen galdu det
ekarritako guztia.

Egi: Ez al dakizu fin egiñetik
ezer ez dala etortzen?
O, Mugartegi, ikasiko dek
bizimoduan asmatzen.
Ez al ninduzun orain artian
ondo samar ezagutzen?
Gazte giñala ikasi gendun
tontuak espabilatzen.

Mug: Zuregandikan artua nago
oso arazo tristiak.
Zer balio du tongoen bidez
jokoa irabaztiak?
Martxa orretan ikusten ditut
gaur eguneko gaztiak...
Negar eiten du nere lagunak,
baita ere emaztiak.

Egi: Diru pixka bat ekarri zula
beraren almazengan...
Galdu dittula ikusirikan
tristura du azkenian.
Zuk nere martxa etzendun ikusi
oso bide zuzenian.
Irabazten'e asiko da au
ezagutzen nauenian.

Mug: Bide txarrean ikusten zaitut
urruti zerala juna.
Neretzat oso txarra izan da
emen ikusi deguna.
Betiko izurratua dezu
zedorren lagun kutuna...
Sinistu zazu, geiago etzaitut
maitatuko nik, laguna.

Egi: Errespuesta, o Mugartegi,
emango dizut atzera.
Joku batian tongo ein nula
ta asarretu al zera?
Gizonak danak ikasi beitu:
irabazi ta galtzera...
Eskarmentuan sartuko aiz, bai!
sarri juntatzen bagera.

Eta bakarka kanta zezan gai hauxe eman nion jarraian, Azpeitiko jaialdi hartan: *atzerrian bizi dan zure anaiari karta egin behar diozu.*

Anai jator bat nik ere badet
atzerrian bizi dana.
Bere bizia ateratzeko
bertan egiten du lana.
Karta maite bat bidali naian
aurkitzen naiz zuregana,
esanaz: pozik artuko neuke
dolar sorta bat, al dana.

Kartaren bidez artu itzazuz
zeure anaiaren esanak,
urte askuan nola geraden
alkar-maiteak izanak.
Orain ez degu beste gauzarik,
artu nere zorionak.
Eta zuk ondo igaro zazuz
laister datozen Gabonak.

1974ko martxoaren 3an, Azpeitian hiru herritar -Joxe Lizaso, Joxe Agirre eta Imanol Lazkano - bertsolariak omendu zituen Karmelo Etxegarai Ikastolak. Lazkao Txiki, Larrañaga, Igarzabal, Gorrotxategi, Mugartegi eta Lasarte izan ziren bertsoan. Gaiak eman eta aurkezpena egin, neuk egin nituen. Lehen agurra egitean, honela kantatu zuen Mugartegik:

Maitasunezko agur bero bat
eskatzen digu egunak.
Erri bateko semeak dira
omendutzen ditugunak,
Euskalerriko erri danetan
maiteak ta ezagunak...
Lizaso, Agirre eta Lazkano,
benetako euskaldunak.
Biotz osoa opa dizue
bizkaitar zuen lagunak.

Gero, Gorrotxategi eta Mugartegiri gaia: *Gorrotxategik dirua behar omen du; eta Mugartegi, dirua nun eta nola kolokatu ez dakiela dabil.*

Gor: Eguna juan, eguna etorri
ta odolak irakinda.
Orain nik detan bizimodua
nere biotzantzat min da.
Mugartegi au zorutzen dabil
diru askok eraginda...
Eta ni berriz ogi-koskor bat
aora craman ezinda.

Mug: Gorrotxategi, ikusten zaitut
odol danak irakiten.
Gizon guztiak munduko berri
ondo ez dute jakiten.
Jakin bear da nundikan nora
zuzenbidez ibilliten...
Dirurik gabe aurkitzen da au,
lanik ez du-ta egiten.

Gor: Ai, Mugartegi, ez dauzkat ontzat
emen entzun ditutenak.
Amar ordutan osatzen ditut
lantegi baten barrenak.
Lan asko egin ta jornal gutxi,
ortik datozkigu penak.
Sobreik aundina jasotzen dute
gutxi egiten dutenak.

- Mug: Lanaren zale etzera iñoiz.
Beti zaude alperrian.
T'orregatikan aurkitzen zera
oso era biurrian.
Dirurik gabe aurkitzen zera
oso estadu larrian.
Zu bezelako asko daukagu
gaur egun Euskalerrian.
- Gor: Eldu zan euskal langille danak
oinperatutzeko intza.
Jornal geiagon eske ez leike
emen langillerik mintza.
Askoz obia izango nuen
jornala eta bizitza
fabrikan sartu nintzan garaian
militar sartu banintza.
- Mug: Gorrotxategi, zure aldera
luzatu nai det begia.
Sinista zazu, gaur nere partez
esango dizut egia.
Zuretzat ere lanean ortxe
artu zindezke bidia:
lanaren bidez lortuko dezu
eguneroko ogia.

Bakarka egiteko gaia: *Jon, andrea ez hasarretzeko, zer egin behar da?*

Andre bat artu nuen
pixka bat zartuta,
ordurako nengoen
asko nekatuta.
Berak'e ala nindun
oso maitatuta,
neuk ere maitatzen det
beti besarkatuta.

Emakumea ez da
errez kontsolatzen,
gizonaren esanik
ezpaitu onartzen.
Ni gau eta egun nabil
ondo serbitutzen...
Ala ere ez nau ark
beti maitatutzen.

Esan bearrez nago
neure iritzia.
Garbi azaldu nai det
nik kontzientzia.
Emakumientzako
auxe da auzia:
gau eta egun beti
ondo serbitzia.

1973ko maiatzaren 16an, Joxemiel Barandiaranen omenez bertso jaia egin zuten Ataungo Altzanipeko zelaian. Herriko gazteek antolatutako gaiak Inozentzio Oleak jarri zituen gau atsegin hartan. Lasarte, Arozamena, Lazkao Txiki, Igarzabal, Xalbador, Lopategi eta Murgategik kantatu zuten. Honatx Murgategiren lehen agurra:

Badakizute lan ontarako
nola gauden etorriak,
ase bearrez aurkitzen gera
bertsoaren egarriak.
Bizkai aldetik etorri gera
Lopategi ta ni, biak...
Biotz-biotzez agurtzen ditut
ataundar maitagarriak.

*Gaia: Zazpi bertsolariok biña bertso kantatu bear duzue.
Zuek zerate Euskalerrriaren zazpi adar. Mugartegirenak baka-
rrik jasoko ditugu hemen.*

Gaurkoan nola ikusten diran
arbol zarrak igartuak,
oiek berritzen bere adarrak
bai gaude gu beartuak.
Itxura onez artu ditzagun
aurrera pentsamentuak...
Arbola zarrak lortu ditzaten
berriro ere frutuak.

Arbola zarra galtzen dala-ta
ez gaitezen urrikaldu,
gure barrenak estutu gabe
baizik biotzak zabaldu.
Jaun zerukoak milagroren bat
arren!, egingo ez al du?
Nere maiteak, itxaropenik
beintzat etzazute galdu.

Beste gai hau, Mugartegi, Arozamena, Lasarte eta Xal-
badorri eman zien hiruna bertso kantatzeko: *alkartasuna*.

- Aro: Kantu lanari ekingo diot
 agindu duten bezala.
 Nik bezelaxe geiok dakite
 gu gaur oker gabiltzala.
 Zoritxarrean sortu zitzaigun
 leku txarreko ezpala...
 Maitasunikan ezteu izango
 laguntasunik eztala.
- Mug: Gure itzeten agertu bear
 degu zerbait maitasuna.
 Jaungoikoari eskatzen diot
 lenbizi argitasuna.
 Gizonak beti ez du izaten
 berak nai dun naitasuna...
 Gaur egunean falta zaiguna
 auxe da: alkartasuna.
- Las: Gu gauza orren bearrez gera
 beti edo geienez.
 Nere biotza kontsolatzen da
 au nerekin dedanean.
 Anai maiteak, alkar arturik,
 asi gaitezen lanean...
 Alkartasuna gauz ederra da
 baiña ez dago danean.
- Xal: Mundu zital au eginik dago
 nahaskeriaren labe.
 Alkartasunik non ikusten da
 denak berextera trebe?
 Baldin alkartzen bagina noizbait
 berexkuntzarikan gabe,
 ni seguro naiz: egin ginaizke
 gure ondasunen jabe.

- Aro: Mereziz ez tuten gauza pranko
aritzen gera famatzen.
Bide okerrez ote gabiltzan
jarria nago pentsatzen.
Sos batzungatik ari gerade
geure anaiak saldutzen.
Alkartasunikan eztaukana
eztet gizontzat juzkatzen.
- Mug: Nik ere ez tet gaizkitzat artzen
zuk emen esan dezunik.
Au ikusteko argibide bat
lendik artua daukat nik.
Alkartasunik ez tan lekuan
ezta sortzen zorionik.
Bide ortatik ez gentzake egin
guk ere lan premiñarik.
- Las: Ez bagerade denok alkartzen
ezta egingo bertsozirik.
Anai maiteak, txarkeriari
zuek ez egin kasozirik.
Alkartasuna eska dezagun
biotzak gora jasozirik...
Alkartasunik ez tan lekuan
beñere eztago gozozirik.
- Xal: Beha dezagun adar guztikin
osatua den arbola.
Haize gaiztoak haren gain ez tu
okerririk egin nehola.
Guk alkartzeaz izan dezagun
gehienikan axola,
jakinez gure indar guztia
alkartu eta dagola.

- Aro: Eztakit noraiño geraden gu
gauz onekin iritsiko.
Baiña egia esan bitarte
eztet pakean utziko.
Bata bestean alkaturikan
ez ote gera biziko?
Alkartasuna galdutzen bada
galduak gera betiko.
- Mug: Alkartasuna sortzeko beti
ez da egokitzen era.
Gaur eguneko bizimoduak
nola eskatzen dun bera.
Guk ere zerbait egin bearra
badegu oraindik aurrera.
Egin gentzake pixka bat danok
ondo alkartzen bagera.
- Las: Alkartasuna bearrezko da,
ori nai gendun azaldu.
Ez gaitezela, al baldin bada,
bide orretan argaldu.
Gazte maiteak, alkartasunez
zuek ere gogor eldu.
Ezkontzeko're lendabiziko
alkartasuna biar du.
- Xal: Bakotxa bere alde ibiliz
aizu ezten negurrian,
deus onik ikusten eztuena
errez galtzen da bidian.
Alkartasunak ezartzen gaitu
indar ikaragarrian...
Alkar gaitezen etxean, eta
alkar gaitezen herrian.

Bakarkako saioan bi bertsoarako gaia ondoren Mugartegiri Ataungo jaialdi hartan: *pagoa*.

Garai bateko mendi aldeak
ziraden pagoz josiak,
ta orain berriz galdu dirade
lenago ziran guztiak.
Piñu beltzakin ikusten dira
lurralde danak jantziak.
Ta orrek neri sortutzen dizkit
negarrak eta antsiak.

Euskalerriko oitura zarrak
asi zaizkigu galdutzen.
Lengo arbolak ikusirikan
nola dauden igartutzen,
itxura onik ez diot iñoiz
mendi gaiñari artutzen...
Euskalerria ez ote degun
asita nago pentsatzen.

Xalbador eta Mugartegiri gaia: *Basajauna eta morroia zerate zuek. Elkarrekin hasarretu zerate, eta morroiak begia galdu dio basajaunari.*

Xal: Harkaitz azpian bizitzen naiz ni
nahi baduzue jakin.
Leku asko da harkaizpean, ta
nere artaldearekin.
Begi bakarra baizik eztaukat,
Jainkoak ala nau egin...
Eta burni gorriz morroiak
hori kendu baitit begin.

- Mug: Morroia gaizki tratatzen dezu
nagusien indarrean.
Neu ere neure negurri onak
nago artu bearrean.
Lana eginda esker gaiztoa
ondorena det zarrean.
Augatik burnia sartzten diot
bere begi bakarrean.
- Xal: Nausi ona naiz, zerorrek aitor
didazu len bakarretan.
Baina egun erori zera
zu intentzio txarretan.
Uste det orain ordain on baten
ote zauden beharretan...
Hobeko duzu ez erortzea
zuk ene hatzaparretan.
- Mug: Nik ere beti gogoan daukat
baizik zuk gaizki egiña.
Nagusia, zuk lendik badezu
zuzendutzeko premiña.
Nik alperrean egiten ditut
emen neure alegiña.
Eraso txarrik enun egingo
zuzen ibilli baziña.
- Xal: Zu beti etzera zuzena,
egintzetan da nabari.
Eta oraintxe pentsatzen nuen
leno entzun detanari.
Beleak ere bere umeak
hazi zituen ugari...
Eta gero umeak begiak
atera zizkan amari.

Mug: Zer esanikan asko badago
neronen biotz minduan.
Nagusiari esan nai diot
zenbaiten erratu duan.
Artu itzazu zure morroiak
esandakoak goguan:
zu bezelako nagusi asko
daukagu gaurko munduan.

Bakarka kantatzeko beste gaia Mugartegiri Ataunen:
*Hortz bakarreko agure zaharra zera zu. Eta jendeari deika ari
zera. Bi bertso.*

Auxe da gai polita
zerbait esateko!
Ezta erreza zer dan
bera igarteko.
Kanpai zar bat artuko
nuke bitarteko,
nola egoten dan beti
deia egiteko,
mezatako orduan
ara juateko.

Agure zar bat degu
ta ortz batekua.
Nunbait izango degu
naiko jandakua.
Bestek eragin gabe
zarata aundikua.
Bera errian nabaitzen
ez al da naikua?
Olakua ote da
gaurko Jaungoikua?

1974ko maiatzaren 25ean, *Ohorezko euskaltzain* izendatu zuten Manuel Olaizola *Uztapide* bertsolari haundia. Hori zela-ta, berebiziko omenaldia egin zioten Eibarren. Gaiak neuk jarri nizkien bertsolariei. Eta, besteak beste, Mugartegi eta Mitxelenari hauxe eman nien: *dibortzioaren alde eta kontra zaudete zuek. Kantatu txandan.*

Mug: Mundu onetan zer eginikan
asko sortua da gaurko.
Nik dadukaten eginkizuna
ez det ondo negurtuko.
Au entzutean Mitxelena au
ez ote da bildurtuko?
Ni ezkontzari uztera nua
aspertua naizelako.

Mtx: Pentsamentu oik artu baituzu
zure buruen kaltian,
fede on ori galdu ber dezu
munduarekin batian.
Kontzientzia argi ezazu
gero emendik joatian.
Juramentu oi kunplitu zazu
arnasa dezun artian.

Mug: Ni ere gogor buztartu nintzan
baiña berela bigundu.
Sinistu zazu emaztiakin
ezin naiz ondo konpondu.
Bide txarrean aurkitzen gera,
bide onik ezin atondu.
Zu're aspertuko ziñan andrea
gaiztua artu bazendu.

Mtx: Naiz ta ura bera txarra izandu
zu porta zaitez ondratu,
gizontasunak izaten baitu
beste ezerk ainbeste gradu.
Nai dan bezela bizitutzeko
suerterik iñork bai al du?
Eta zerua irabazteko
emen sufritu bear du.

Mug: Zuk, Mitxelena, neure esanak
artu itzatzu gogotan:
ni ezkondua oso aspertu
izana bai naiz askotan.
Beti bakarrik, laguntzarik ez,
orrela egoten naiz lotan...
Bakar-bakarrik askoz da obe
orrela izatekotan.

Mtx: Zu, Mugartegi, kontu orrekin
badezu zerbait gezurrik.
Zuk bota dezun arrazoiari
e'iot billatu itxurik.
Zenbait egun ta gau nola or zuk
pasatzen dezun bakarrik...
Orla bazaude ez dadukazu
zuk separatu bearrik.

Eta ondoren, zortzikoa ez zen beste neurri batean, bi bertso eskatu nizkion Mugartegiri, gai librean. Honatx Eibarko saioan bota zituenak:

Uztapide au goratu asmoz
nator bide baten onez,
naiz eta bere ondoan oso
lasai ta gozo egon ez.
Euskalerrriak maite du beti
biotzetik zorionez.
Bertsolaritzan aundia degu,
aundiagoa gizonez...
Au bezelako euskalzaleak
bear gendukez odolez.

Gure Manuel goratu asmoz
guztiok gera etorri;
gaur Eibarrera beste asmorik
iñork ez degu ekarri.
Gure artean biltzeko bera
izan dezagula sarri.
Ondo da beti ezbearretan
lagundutzia alkarri.
Ta bide batez, milla esker ta
milla zorion, Eibarri.

1981eko abenduaren 21ean, Bilboko Areatza-Arenalean jasotako bertsoak dira, AEK-k antolatutako jaialdi batean. Lazkao Txiki, Amuritza, Lopategi, Jon Enbeita, Ezponda eta Mugartegik kantatu zuten egun hartan. Eta Txomin Ezponda, Jon Enbeita eta Mugartegiri gai hauxe eman zien aurkezleak: *Jakingo duzuenez, Santo Tomasetan, urteoro zozkatzen dute hemen zerri haundi bat. Mugartegi dogu zerria; Ezponda, matarifea. Enbeita, zerria tokatu zaiona.*

Mug: Badakizute zer gertatzen dan,
au ere esateko nago:
nere alboko lagun maite au
aragiz ondo ez dago.
Ta ni zerritzat artutzen naute
gizenduta nagolako,
etxe batean ilda jarririk
janari asko dedalako.

Enb: Misericordin, ene zerria,
neri begiraten daustak?
Ta aragia franko daukala
oindik atzetik diñostak.
Gabon jaietan izango dira
beintzat nere etxean festak!
Aurten debalde jango ditugu
lukainka ta odolostak.

Ezp: Zerri maitea, Bilbo auxe
egun dezu ikusia,
ta orai bukaturen zaizu
zure izate guztia.
Gizagaizoa, ezpaizinen zu
azitarako azia...
Ederki gizendua zinen ta
ek kentzen zuri bizia!

Mug: Gure izate nabarmenean
azaldu nai det argira:
emen jendea gustora dago
zerri gizenai begira.
Ta Gabonetan jai egiteko
auek poztuak bai dira...
Sinestu gero gizonak beti
kriminal batzuek dira.

Enb: Kriminalak be ibilli bear
 jana nundik eta ara!
 Beintzat suertez betea daukat
 aspaldi ontan bolara.
 Apari eitea zerria iltzean
 gugan dago ta modara,
 emen zautenak inbitaurikan
 zagoze zerri-bodara.

Ezp: Zerri maitea, zure iltzeko
 tenorea etorri da-ta,
 ni ortarako mandatu naute,
 ori ezta nere falta.
 Gabonak ondo pasako dira
 aragi freskoa janta...
 Zu baiño suertetsuagoa
 egun izan da Enbeita.

1984ko abenduak 9. Bertso jaialdia Ondarroan, Kresala taldeak sortutako bertso eskolako zenbait gazte eta Garmendia, Peñagarikano, Mugartegi eta Mañukortarekin. Honatx Mugartegiren lehen agurra:

Ondarrutarrak auzo bezela
beti ditut ezagunak.
Lagundutzeko maitagarriak,
biotzez oso bigunak.
Gaur zuengana inguratu nau
sentimentuzko jardunak.
Milla zorion ta eskerrik asko,
Ondarruko euskaldunak.

Txomin Garmendia eta Mugartegik, bi-bitara egin zuten saioa. Gaia: *Txomin Garmendia, kale ertzean dagoen eskalea da. Mugartegi, lanik gabe dagoena. Biok topo egin dute.*

Mug: Lan eskasia gaurko munduan
guregan oso da urbil,
ta beste batzuk berriz burrukan
nai duten ainbat jende il.
Gure artean ezker a bizi
oso zintzo eta umil...
Au're eskarian aurrean dago,
baiña itxura onez dabil.

Gar: Aterik-ate ni ortxe nabil
gauza asko ikusteko.
Zerbait nerekin beti izaten det
barren aldea pozteko.
Onen nagusiak adurra izan zun
au lanik gabe uzteko...
Ai zer nolako pareja gauden
biok eskean asteko!

Mug: Lanik gabeko ta eskalian
badago diferentzirik...
Gai orretan gaur ez al da ikusten
orrelako alderantzirik?
Ni lanik gabe bizi naiz eta
umil antzean, tristerik.
Ta eskalea markesen gisan
oso dotore jantzirik.

Gar: Len esan dizut nola nabillen
txukun ta errespetoaz,
ta ez pentsa gero asi nintzala
nere barrengo gustoaz.
Azken urtetan ainbat lantoki
emen itxitzen dijoaz...
Ta zeñek emana faltako da
danok eskera bagoaz.

Mug: Arrazoi on bat eman nai diot
eta ondo merezita.
Eskalearen arrera onez
ni enaiz jarri etsita.
Aterik-ate egun askotan
egiten badu bisita,
ate guztiak billauko'ituzu
zabaldu gabe, itxita.

Gar: Ni joan izan naiz erdi maillako
ta aberatsen etxera.
Egia esan, gertatu izan naiz
uste gabeko trantzera.
Guztiak berdin eskertu eta
iges joaten naiz atzera...
Zuk ere zerbait egingo dezu
ola portatzen bazera.

Jarraian, Mugartegi eta *Txispas* jarri zituen lanean gai-emaileak. Gaia: *aita-semeak zerate. Eta gaur goizean, sekulakoa gertatu zaizue. Mugartegi goizean goiz lanera zihoala, une berean parrandatik hor dator semea. Atarian topo egin duzue.*

Mug: Seme jator bat etxean badet
begiz dut ondo ikusten.
Ta saiatzen naiz al dan ondoen
bizi berri erakusten.
Baiña seme au aitak dadukan
kontuetan ezta jausten.
Au ortxe dabil parranda gisan
neskatxar batzuk erosten.

Txi: Ni maite naute, segurua baten,
asko aitak eta amak,
ta onak ez dira ala ta guzti
gaur artu ditudan famak.
Baiña zuri be sarri ezin esan
an egitekotan danak.
Gabaz nik ortik egiten ditut
etxean ez dauden lanak.

Mug: Aitak nai dio seme maiteai
gauza asko erakutsi.
Baiña oraindik nere esanetan
etzera ondo iritsi.
Damutasunak izango dira
emen biar edo etzi:
euskaltasunai nere semiak
ez diola naiko eutsi.

Txi: Egia esan gustora ez nabil
ni or dagoen lanean.
Izardi asko ez dut botako,
ez nago orren afanean.
Baiña egia esan bear da
emen guztien aurrean:
aita ni baiño txarrago izan zan
gazteagoa zenean.

Mug: Ustekabean au iristen da
munduko egaletara.
Baiña ez taki samur biurtzen
gurason magaletara.
Aitak ta amak ez tu bidali
au iñoiz lan orretara.
Ia noizbaten biurtzen zeran
aitaren esanetara.

Txi: Egia esan, aita ta ama
benetan dira jatorrak,
baiña esanak bete bearra
ote dira derrigorrak?
Gazteentzako oitura orrek
gaur dira naiko gogorrak...
Nere aldetik jarri nai ditut
kanpoan neure rekorrak.

Bakarka, honako gai hauxe eman zioten Mugartegiri:
Gazteei droga saltzen ari diranei, pare bat bertso.

Gazteri drogazalean gaiñez
nai nuke abotsa pasa.
Pentsatu gero ondo erabakiz
eztala gauza jolasa.
Euskalerrriak galduko badu
bear besteko arnasa,
gutxienean gorde dezagun
garbiro geure arraza.

Gaitz orren bidez piska bat dago
nasturik gure erria.
Ondo pentsatzen jarri ezkerro:
au gauza penagarria!
Ondoren onik ez dator ortik,
ongi nago igarria.
Gorde dezagun arbaso zarren
oiñarri ta jatorria.

Ondarruko jaialdi hartako azken agurra honela kantatu zuen berriatuarrak, azkenean.

Ondarruko erria
beti degu maite;
ezingo gera bizi
zugandik aparte.
Zureganako degu
ainbat borondate,
zabaltzen dezulako
ainbat euskal arte!
Ondo izan guztiok.
Agur, gero arte!

1986ko apirilaren 26an, Bilboko Udala eta Santutxoko bertso eskolak antolatu zuten *Bertsolaritza eguna* jaialdian jasotako bertsoak dira honako hauek. Azpillaga, Mañu-korta, Mugartegi eta Areitio ziran bertsoan. Mugartegiren lehen agurra:

Bertsolaritzan eguna dala
nai genduke iragarri.
Nik pentsatzen det jende bat dala
bertso goxoen egarri.
Ta gure bide orri eustez
gogor nai genduke jarri,
zuen biotzak izan ditezen
bertsolarien oinarri.

Mugarategi eta Areitiori gaia: *Hurrengo asteburuan, "zubi" egingo du jende askok. Zuek ere horrela egiteko asmoa duzue, baina elkarrekin. Non eta nola, zeuen esku.*

Mug: Oporraldi bat igarotzeko
batu gera elkartean.
Beti ez gera gu aurkitutzen
zorion eder batean.
Alkarrengana bildu gaitezen
geure izakera maitean,
ta oporrak ondo pasatu biok
euskaldun erri batean.

Are: Iritzi ori bota diguzu
emen plazaren erdira.
Egun ederrak badatoz eta
nengon orrexeki begira.
Euskalerrian zear egin lei
ortan makiña bat jira!
Baiña naio det lana egiten
joan zure baserrira.

Mug: Ni ziur nago alkarte ori
gaizki ez degu eramango.
Ta lagunaren iritzi ori
txartzako ez tet emango.
Euskalerriko oitura zarra
itzez iñoiz ez tet jango...
Erderaz eiten duten errira
ni enaiz iñoiz joango.

Are: Erdal erriak euskaldun batek
nola ezin leikez maita?
Zure esana ongi dagota
nago ola iritzi ta.
Euskalerrian bazterrik bazter
lendik nago ibillita...
Euskera itz egin nai duanantzat
Berrittu toki polita.

Mug: Lagunak ere toki aldrebesa
eztu orain aukeratu,
eta nik ere bere bidean
nai det orain aurreratu.
Gure baserri txiki orretan
zuk nai zenduke geratu.
Sagardo pixkat edanda gero
bertso politak kantatu.

Are: Egun batzuek igarotzeko
ai, ze aukera bikaiña!
Mugartegiren baserri ortan
lendik nengoen jakiña.
Bertso batzuek kantatu eta
euskeraz goxo egiña,
eta gaiñera edango degu
sagardo ta txakoliña.

Jon Azpillaga eta Jon Mugartegiri gaia, zortziko txikian kantatzeko: *Eztaukagu zer egiñik eguraldiaz. Euria eta euria, beti. Mugartegi, baserritarra, nazkatuta dago. Eta Azpillaga herriko apaizarengana doa, laguntza eske.*

Mug: Baserritar bat dator
naiko kejurik.
Apaiza daukat emen
laguntzat arturik.
Onek eztu sinisten
nire pekaturik,
nola eztagoen gaur
ni ainbat nekaturik.

Azp: Gusto guztiak ezin
au ez al da lana?
Egunero jausten da
euria gozo, mana.
Goizero errezatu
Aitagure bana,
ta pozik artu eizu
Jainkuak emana.

Mug: Baserritarrak eztu
bear dun indarrik.
Lanean ibiltzen naiz
etxean bakarrik.
Ta, apaiza, zuk etzazu
emen jo adarrik...
Apaizentzat ez dago
eguraldi txarrik.

Azp: Egualdia onduko
jaku urrenguan.
Euri-jasa ikusten
da nola dagan.
Sikatea badator
eurien onduan...
Beti negarrez zabiltz
udan ta neguan.

Mug: Baserritarrarentzat
beti arazuak.
Gure soro bazterrak
eztaude jasuak!
Batzutan negarra ta
bestetan bertsuak...
Ez gaitu meioratzen
zure errezuak.

Azp: Batean tomatea,
bestean patata.
Baserritar onekin
ez leike aguanta.
Oraingo errezuak
zuretzat dira-ta...
sinismenik eztauka
ateua da-ta.

Mug: Zer esan bear zuen
aurretik banekin.
Arrazoi orri segiz
itzaz nai det ekin.
Ateuen klasera
jarri da nerekin...
Onek eztu sinisten
Jaungoikoarekin.

Azp: Baserritarra beti
dabil afanian.
Abade jaunagana
juan da azkenian.
Euri asko jausitzen
da lurrari gainean...
Jainkoaz akordatzen da
premiña darian.

Mugartegiren azken agurra:

Erantzun bearrean
ainbeste gogori,
gaitzik ein gabe beintzat
al bada inori.
Zuen barruan gorde
euskaltasun ori...
Agur entzuleak, ta
agur Bilbaori!

1986ko ekainaren 15ean, *Ziolar* bertsolaria omendu zuten Itziarren. Olalde, Aittola, Azpillaga, Mugartegi, Sebastian Lizaso, Uztapide II eta beste bertsolari asko izan ziren jaialdi hartan. Mugartegi, Sebastian Lizaso eta Uztapide II-ri gai hauxe eman zien Muruak: *Itziar inguru honetan lantegiak egiteko poligono berria egitekotan omen dira. Mugartegi dugu poligono horretan lantegia antolatu nahi duen na-*

*gusia. Uztapide II, Itziaroko udaleko alkatea. Eta S. Lizaso, baila-
da honetan bizi eta lanik gabe dagoena.*

Mug: Itziar ontan gain ederrean
lurralde ederrak dagoz,
ta aspaldian alkateakin
ni jarria nago ados.
Baiña ez det uste izango danik
au langille danen gogoz...
Eguneroko ogibide bat
jartzera noa lelenoz.

Uzt: Oso gogorra nere kargua,
gezurrik ez det esango.
Pobreak ez du berriro ere
lanik egin gabe jango.
Lanaren eske datorren bati
nola etzaio emango?
Udaletxean partetik ez da
oztoporikan izango.

Liz: Entzun ditugu nundik doazen
alkatearen ordenak.
Orrek pixka bat arintzen ditu
barruan ditudan penak.
Segi aurrera ta antolatu
lanposturikan geienak,
ogibide bat izan dezagun
orain lan gabe gaudenak.

Mug: Lanposturikan ez da sortutzen
ez bada sortzen jaberik,
ta nere ustez ez da munduan
galerazteko legerik.
Alkateak'e ez du jarriko
orretan gaizkibiderik.
Eguneroko ogibidea,
zer dago ederragorik?

- Uzt: Beraz, albotik eskatu dute
ainbat lanentzat eskea?
Neuk artuko det garbitasuna
egiteko're nekea.
Jarriko det nik ur garbia, ta
deseginduaz, ai!, kea
danorentzako jarri dezagun
naiko lana ta pakea.
- Liz: Egia balitz nere ametsak
izan ditezke beteta.
Nagusia ta alkateari
artu bearko arreta.
Kezka batekin orain illuntzen
asia daukat kopeta:
promesa utsak ez ote dira
auteskundetan gaude-ta?
- Mug: Langabe dagon orrek badauka
egunaren egarria...
Ta bizibide berri bat nai du,
ongi nago igarria.
Jarriko det nik guztiontzako
emen lanbide berria,
danon artean egin dezagun
geroko Euskalerria.
- Uzt: Betetakorik ez da ezer'e,
bakarrikan zan esana.
Orain lau urte itz ona pranko
guri bazigun emana...
Ikusia da: esandakoa
gezurra izan zan dana.
Felipen partez Itziar ontan
nik jarri bear det lana.

Liz: Nagusiaren planak al bada,
zuk alkatea, babestu.
Lenago ere pasia baidet
makiña bat une estu.
Lantegi berri batzuek jarri,
ogibidea erreztu;
ta langilleak artzerakoan
erritarrakin ez aztu.

Bertsoaren bukaera eman zion ondoren:
*Ez al du horrek hori ta geio
aspaldi irabazia?*

Mug: Ez da erreza ondo negurtzen
bertsolarien grazia,
euskaldun batek aspaldi ortan
erein baitzuen azia.
Ta zorionez Euskalerrriak
ondo dauka ikusia...
Ez al du orrek ori ta geio
aspaldi irabazia?

Bi-bitara, Mugartegi eta Uztapide II jarri zituen lanean ondoren, gai honekin: *Uztapide, baserritarra zara. Eta Mugartegi berriz, Europako Elkarte Ekonomikoan sartu gerala, eta handik honera okela ekartzen ari dena.*

Uzt: Baserritarrak oituak daude
gradu aundian luzitzen,
baiña nik neronen begi onez
gaur ez ditut ikusitzen.
Zuen okelaz bakarrik emen
ez dago errez bizitzen...
Ikas zazute lan egiten eta
zekor obiak azitzen.

- Uzt: Lege berriak jarri zizkigun,
berdin kale ta baserri...
Ikusitzen da nola gabiltzan:
estuasuñetan sarri.
Begiak ateratzen astea
falta zaiguta alkarri.
Bertan sobrian daukagu eta
kanpotikan ez ekarri.
- Mug: Ez nago ados, baserritarra,
esaten dezunarekin.
Eta zuk berriz oso kontrako
gaurkoan nere lanakin.
Baserritarren artean zer dan
garbi nai genduke jakin:
lanik ein gabe bizi nai, eta
alper-alperrik auekin.
- Uzt: Gero ta larriago dijua
baserritarraren kaja,
ta ezertako ez dute aitzen
guk egiten degun keja
Inpuestoak igo dizkute,
esne ta aragia baja...
Au da *Merkado Komunak* guri
ekarri digun bentaja.
- Mug: Ez da erreza ondo negurtzen
lurralde danen egala,
ta zaillagua gauza guztiak
konpontzia beriala.
Baserritarrak esango dute
etsai gogorrek gerala;
baiña saiatu bearra dago
irabazteko jornala.

Uzt: Gauza guztiak naastutzeko
 sortu ziñaten mundura,
 ta ain gutxi artutzen dezute
 albokuaren ardura.
 Jende guztia eroria da
 zer pasatzen dan kontura:
 makiña bat gaur bizi zerate
 baserritarren kontura.

Jon Mugartegiren azken agurra Itziarren.

Neure barren samurra
noa zabaltzera,
ta alperrik ez nator
denpora galtzera.
Iritsiko banintza
zuen biotzera,
agur! ta joan gaitezen
denok bazkaltzera.

Idatzitako bertsoak

Bertsoak idazteko, bertsopaperak egiteko nahi haina asti badu orain berriatuarrak. Baina horretara jartzea kostatzen da egiten zaiola dio. Egunero, edo denborapasa dagoenean, zerbait idazteko disziplina falta duela. Izan ere, bilobaxoe-kin jolas egin/zaindu, baserriko lanak egin, herriko bazter-
rak ikusi, bertsoak entzun... Beste zeregin asko juntatzen zaiola. Badakigu hori aitzakia hutsa dela. Miami-ko pilotalekuan jokatu eta aldi berean behin gurasoak eta herria bisitatzera etortzen den semea etxean balego, sikira. Haren anpa-roan zerbait idatziko lukeela dio, baina bestela ezin duela.

Halare, lehendik eskuartearen nituen bere bertsopaper batzuk, eta orain eman dizkidanak batu ditudanean, sorta ederra osatu dugulakoan nago. Eta Mugartegik idatzi ere zerbait idatzi duela ikus genezake.

Hasteko, 1982an IZ - Donostia - disketxean argitara eman zuen kasettea aurkitu dut gurean. Eta zinta honen kontua aipatu diodanean, Jon hasarre samarrrik dagoela ohartu naiz, ezpaizioten ordaindu agindutakorik. Prezioa berek jarri zioten, baina hura ere ordaindu ez gero. Hutsaren trukean egindako lana, beste askotan bezala.

Dena den, hementxe dituzu Mugartegik kasette hartan grabatu eta publikatu zituen bertso guztiak. Lehenengo, artean bost-sei hilabete zituen Nerea alabatxoari eskeinitakoak datoz:

Aingeru txiki polit bat zera
munduaren edergarri,
aita ta amaren itxaropena,
bizitzarako pozgarri.
Gure odolaren doaiz sortua,
ondorenguen oiñarri...
Neke astunen eruapena
zu izaten zera sarri.

Aingerutxu bat badet etxean
bost illabete dituna,
zeruko izarrak bezin argia,
argi egiten diguna.
Ordu txarreko naigabietan
asko alaitzen gaituna...
Zuri begira ezin aspertuz
nago, aingeru kuttuna.

Egun batean munduratu zan
ondo bide zuzenean.
Lagundutzeko izango al da
zartzera guazenean...
Bera besoan artuta gabaz
oerutzen naizenean,
otoitz txiki bat errezatzen dut
aingeruen izenean.

Aingeru baten doaia zer dan
ez dago esaten errez.
Zerbait itz egin nai dun orduan
erabat dago negarrez.
Nor ez litzake errukituko
bere izate samurrez?
Biotz gogorrak biguntzen ditu
poz eztiaren adurrez.

Zer begiramen gozoa dezun
asten zeranean irriz,
zure amaren bular gozoen
sentimenaren egarriz!
Ama on batek asetzen zaitu
azken gabeko negurriz...
Lo eztitsu bat igaro arte
etzera esnatzen berriz.

Zer zoramena zuri begira
jartzen zeranean lotan!
Zeruan bertan bizi zeraden
ni nago errezelotan.
Zure izena baiño besterik
amak ez dabil agotan,
Jesus Belenen izan zan baiño
adore ederragotan.

Zeiñek ez dio ainbat maitasun
aingeru edo aurrari,
izarren pare argi egiten
bazaude gure lurrari?
Naiz ta nekeak sortuerazi
bizimodu laburrari,
askotan poza sortzen diozu
gure biotz samurrari.

Zurekin degu itxaropena,
geroko etorkizuna.
Orain ez dago esaterikan
zer dan gero nai dezuna.
Ezagututzen badezu iñoiz
gurasoen maitasuna,
izango al zera gure zor danak
ordainduko dituzuna.

Zorionean aurkitzen giñan
aingeru baten bearrez,
biotz gaixoak osatuzeko
zure dizdira edarrez.
Beraren amak esaten zidan
pozez ta erdi negarrez:
- gure etxeak bete bear du
maitasunaren indarrez.

Ala bearrez izen polit bat
jarri zioten: Nerea.
Gorputz odolak gureak ditu,
baiña izena berea.
Zeruko Aitak emango al dio
luzaroko adorea,
etxeke izar izan dezagun
mantxa gabeko lorea.

Sor Bitoria, herriko monja langile eta laguntzaile
haundiari eskeini zizkion ondorengo hauek, Jonek.

Gure erriko alaba batek
badu bere historia:
lekaipe edo monja bat degu,
izenez Sor Bitoria.
Urtez aurrera dijoa baiña
emakume dotoria.
Jaungoikoaren serbitzurako
usain gozozko loria.

Berrogeita amar urte beteak
ordenako serbitzari.
Zeiñek erantzun orrenbestean
gure Jaunaren itzari?
Neke astunik eman diozu
ortan zure bizitzari!
Egunen baten egingo zera
zeruetako giltzari.



Jon eta Nerca
umetan

Bilboko gaixotegian edo
berdin da ospitalian,
gau eta egun lanaren mende
or dabil egiñalian.
Zure langintzak mesede truke
oi dira jeneralian...
Orregatikan maitatzen dute
baserrian ta kalian.

Gure parean zer gertatu zan
esan gabe badakizu:
neure lelengo ama bezela
beti maitatzen zaitut zu.
Nik egindako mesede aundirik
jasotzerik ez daukazu,
baiña sinestu: Jaunarengandik
danak jasoko dituzu.

Erri osoa zurekin dago
bai zar eta bai gazteak.
Poz berezi bat sortutzen digu
zu errian ikusteak.
Emen ez dira iñoiz aztuko
zure esku-erakusteak...
Nik biotz onez eskertzen zaitut,
ta nik bezela besteak.

Esker utsakin ezin ordaindu
irabazi dezun dana.
Nik ondo dakit bizi guztiko
zorretan bizi gerana.
Erritar beste zabaldu dezu
biotz aundiaren fama...
Dudarik gabe zu izan zera
gure erriaren ama.

Etxean seme-alaba gazteak izan eta haien lagunak ere bai hurbil. Ez da, bada, harritzeko Mugartegik gaztediaren kezka eta poza berebaitan izatea. Horrela adierazten du *Gaztediari* izenburuz egindako ondorengo bertso hauetan.

Gazteak baditugu
zintzo ta gordiñak.
Kale ta baserriko,
geienak bardiñak.
Lorategi eder bat
jazteko egiñak,
erle askorentzat
gauza atsegiñak,
doai aundikoak ta
kalidadez fiñak.

Oso dotoria da
gaurko gaztedia,
erri baten ispillu
bezela baitia.
Jardin bat osatzeko
zer lorategia!
Berrittun daukaguna
txukun ta argia,
erri maitalea ta
oituraz garbia.

Emen arazo batzuk
zuen esku daude,
lanean jarraitzeko
gustora bazaude.
Gure bearrik bada
beti emen gaude.
Nundik nora ibilli
iñori ez galde...
Al dan guztia egin
erriaren alde.

Konturatua nago
gazte jatorretan,
nagusi zeratela
olako obretan.
Alegintzen zerate
neke gogorretan.
Iñork ez du zalantzik
egingo orretan.
Aspaldian nengoen
zuekin zorretan.

Gazteak beti daude
sendo almenetik,
osatutzen badira
osasun onetik.
Etorkizun bidea
alderdi danetik.
Gure izkuntza maitatuz
guztien gaiñetik,
bildurrik gabe segi
bide zuzenetik.

Iñoiz sortuko dira
arazo gogorrak,
oso neketsuak ta
gaiñera legorrak.
Ez dira errez betetzen
erri baten zorrak.
Baiña gorde ezker
oitura jatorrak,
asko egin lezake
gaztedi bizkorrak.

Bere sorterriari dion maitasuna eta miresmena aipatu ditu lehen ere Jonek, liburuaren hasieran. Baina kasettean argitara emandako saio honetan behin eta berriz errepikatzen du maitasun hori. Irakurri eta kanta itzazu honako bertsuok, eta ikusiko duzu.

Ain maite dedan erri polita
izenez Berriatua.
Une onetan egin nai dizut
egizko begiratua.
Zu izan zera nere gai edo
lurralde aukeratua.
Biotz osoa jarri nai nuke
zugana urreratua.

Baserri-erri polita degu,
argia eta txukuna,
bere magalan babes gozoan
ondo gordetzen gaituna.
Begiratutzen jarri ezker
zorion asko dituna...
Zenbateraiño maite zaitugun,
gure sorterri kuttuna!!!

Alde batetik Txindurri eta
bestetik Kala mendia...
Bien erdian dagon Berritu
bezelakoak nun dia?
Zar eta gazte, erri geiena
euskal kutsuko jendia...
Onako erri txiki batentzat
au da zorion aundia!

Kale modura dotore dago,
baditu ainbat baserri.
Lan egiteko tokiak ere
ez dituzte gaizki jarri.
Erri txikian zorion danak
ez dira ikusten sarri,
baiña Berrittu dagon moduan
ez daukagu lotsagarri.

Eragozpenak izan zituen
Ondarruaren aldetik,
ustekabeen ateratzeko
bere amaren magaletik.
Zirikalari edo etsaiak
bazirala egaletik...
Bizi estuan jarri ginduzten
biziera zabaletik.

Danak batera galdu zituen:
mamiña eta azala.
Uste genduen bizi guztiko
umezurtz gelditu zala.
Orain Ondarru azaldu zaigu
guztizko eskuzabala...
Esan digute berriz Berrittu
guria izango dala.

Uste ez degun gorabera asko
gertatzen dira munduan.
Orrelako bat berrittuarrok
emen ikusi genduan.
Lengo izenez jabetzen bada
esan diguten moduan,
umezurtz orrek gozatuko du
bere amaren onduan.

Erri txiki au beti izan da
baketsua ta isilla.
Erriko jende geientsuena
zintzua eta umilla.
Orain or dabiz legegizonak
lengo zorionen billa.
Erri osoa zain dago eta
ondo etorri dedilla.

Juan Jose Malasetxebarria mutikoari jarri zizkion on-
dorengo bertso hauek Jonek. Herrian oso maitea eta esti-
matua duten mutikoa da, izan ere. Eta bertsolariak badaki
hori.

Bertsoak kantatzeko
atzeratu bati,
biotzean baditut
lau arantza zati.
Maitasunezko itza
ez dago urruti.
Ezbearren mirabe
or zaude bildurti;
orregatik biotzez
maite zaitut beti
orregatik biotzez
maite zaitut beti.

Biotz samurra daukat
atzeratuentzat,
gai artua baidaukat
gaurkoan neuretzat.
Pixu aundia dala
aita ta amarentzat.
Maitasunen ispillu
beste askorentzat.
Nork ez dauka biotzik
olakuarentzat
Nork ez dauka biotzik
olakuarentzat?

Atzeratu maite au
nai det zoriondu.
Nere iritzirako
ondo merezi du.
Itzik ez dauka baiña
ondo entzuten du.
Jauna, adimen ori
ez zaiozu kendu.
Luzaroan gurekin
bizitzen lagundu
luzaroan gurekin
bizitzen lagundu.

Gaitz ori badaukazu
sortu ziñanetik,
edo gaixo gogor bat
izan zendunetik.
Elbarri gelditua
gorputz ta senetik,
baiña oso bizkorra
zaude osasunetik.
Jaunak laguntzen dizu
bide zuzenetik
Jaunak laguntzen dizu
bide zuzenetik.

Itz egin nai ta ezin,
gauza neketsua.
Bestela biziera
oso baketsua.
Maite ditu lagunak,
maite du bertsua.
Askoren bistarako
aingeru sutsua.
Edozein ez da gero
ain zoriontsua
edozein ez da gero
ain zoriontsua.

Zure izena degu
askoren pozgarri.
Augatik zorionez
nai zindudan jarri.
Gurasoen biotzak
zurekin ezarri...
Maitasuna agertuz
danen ezaugarri,
auxe eskeintzen dautzut
neure oroigarri.
auxe eskeintzen dautzut
neure oroigarri.

Bederatzi anaia-arreba izan ziren Patroikuan, eta zor-tzi bizi dira gaur egun. Izan ere, Paskual anaia, 1980ko apirilaren 5ean hil zen, emaztea hiru hurrekin utzita. Pazku zapatu gaba zen, eta mindura gogorra sortuerazi zuen horrek familian. Honako bertso hauek jarri zituen Jonek.

Milla bederatzireun eta
larogeiko apirillak,
Pazku zapatu gaba zan bera,
bost egun zituen illak.
Azken agurra egin zenigun
gure anaia umillak.
Uste gabeko atsekabean
gelditu giñan isillak.
Larritasunik asko bazuen
neronen biotz debillak.

Egun osoa igaro gendun
alkarren aldamenian,
ala ibiltzen giñadelako
sarri edo geienian.
Gure arteko kontu kontari
oi daneko egoniam...
Ezeren kezka aundirik gabe
oso patxara onian.
Atsekabeak etortzen dira
pozaren ondorenian.

Apirillaren bosgarrena zan,
Pazku aurreko eguna,
Paskual gure anaia maite,
mundua utzi zenduna.
Iru aingeru odolekoak
eta emazte kutuna...
Lagunentzako egun samiña,
sendiarentzat illuna!
Jaungoikoaren deia da emen
danok epaitzen gaituna.

Guraso batek aldegitian
etxea izten du utsik.
Zeiñi ez dio olako batek
minberatuko biotzik?
Ordu askotan pentsatzen degu
ez dagola eriotzik...
Berriz ez nuke nai ikusterik
ain eriotza zorrotzik...
Baiña Jainkoak ala nai badu
ezin erantzun ezetzik.

Atsekabeak samintzen gaitu
mundu ontatik joatiak.
Ni ala jarri niduen beintzat
neronen anai maitiak.
Berrogeita iru urtez bakarrik
ordu guztiak betiak...
Beste gauzarik ez du eskatzen
Jaunaren borondatiak:
gu ere laister gera bidean,
zabaldu goiko atiak.

Mundualdi au laburra dala
danok gaude jakiñean.
Danak utzita aldegin bear
usterik gutxienean.
Bizi geranok zor ori degu
bakoitzak bere soiñean...
Jaun Zerukoak gorde zaitzala
betiko zorionean.
Alkar ikusiko degu berriz
azkenengo egunean.

Bederatzi puntuko bertsoak, kantatzeko eta idazteko ere zaillak dira, noski. Baina behin Bilbon neurri horretako bertso-saria irabazi zuenez gero, neurri horretako bertsoak egiten askotan saiatu da. Euskal Herriari jarri zizkion hauek ere bederatzi puntuan egin nahi izan zituen.

Euskalerriai nago
begira jarria,
pixka bat asetzeko
neure egarria.
Lurralde onek badu
bere oinarria...
Ondo begiratuta
estimagarria;
zure negurria,
ez da bigurria,
gauza pozgarria
ta ikusgarria.
Olakoxea degu
gure aberria
olakoxea degu
gure aberria.

Oso polita zera,
guztiz aberatsa.
Zeiñek ez dizu artzen
zeru baten antza?
Aspaldian badabil
naikoa mudantza...
Ez ote gera jeitsi
pixka bat berantza?
Au komeri latza!
Bada naiko saltsa.
Ezin gera altza
lurretik gorantza.
Obeto ikusteko
badet esperantza
obeto ikusteko
badet esperantza.

Lengo Euskalerrria
ez dala gaurkua,
au da sentimentu bat
neure barrukua.
Oraingoa ez al da
moda berrikua?
Aurrerapen pixka bat
ezarritakua?
Lengo erakua,
neurri berekua
da zure kolkua,
gure sor lekua.
Baiña beti etzera
danen gogokua
baiña beti etzera
danen gogokua.

Ondo begiratuta
badu gauza fiñik,
naiz ta ezin billatu
gure atsegiñik.
Zer zorion daukagun
nor dago dakiñik?
Neretzako ez dago
onako jardiñik...
Konpondu eziñik
ainbat utsegiñik
zer geran jakiñik,
nork ez dauka miñik?
Alan da ere ez dago
lurrealde berdiñik
alan da ere ez dago
lurrealde berdiñik.

Bere kabuz nahiz inork eskatuta jarritako bertsopa-
per gehiago ere badu berriatuarrak, askotxo galdu dituen
arren. Gorde zituen asko, noiz jarri zituen urte eta egunik
jarri gabe, data jarri gabe gorde ditu. Bizkaiko trikitilari
gazteentzat jarritako koplak hauek ez dira aspaldikoak
izango, ez. Baina noizkoak diren ezin esan, halare. Bi saio
ezberdin zeuzkan gordeta. Trikitia eta porrusaldarako ja-
rritakoak, hain zuzen. *Porrusalda bat* eta *Porrusalda bi*, Sa-
kabi zenak esango zukeen bezala. Begira.

Trikitilariak gera
Bizkaiko gazte berriak.
Soiñu, pandero ta abesti
lotura baten jarriak.
Erriaren gustagarri,
oso estimagarriak.
Zuek alaitutzera gatoz,
entzule maitagarriak.

Soiñuaren irrintzia:
pandero zintzarri otsa.
Esku bizkorrez ikutuz
eragiñaldi zorrotza.
Irribarre gozo eta
erriarentzat aotsa.
Aupa gazteak, zuekin
daukagu gure biotza.

Ateraldi atsegiñik
badago lengo zarretan.
Erriak gozatutzeko
doiñu alai, ederretan,
gazteak ere badatoz
Euskadiko bazterretan.
Biarko etorkizuna
ez dago esku txarretan.

Aurrera segi nai degu
oitura zarreko gisan.
Gazteak geran ezkeru
bizkor ibilli gaitez.
Eskerrikasko danori,
beste itzik ezin esan.
Onekin amaitzen degu.
Agur eta ondo izan.

Beste hauek ere trikitilariarentzat egindako koplak dira, esan bezala. Garai berekoak, seguruenik. Mugartegiren paperetan bat bestearen ondoren jarrita daude behintzat.

Oraingoa dijoa
neska gaztientzat,
txori bizkorren billa
dabilenarentzat.
Mutillik ederrena
nai luke beretzat.
Alako aukerarik
ez dago neretzat.

Neska gazte maitea,
ez zaitetz kezkatu.
Gorputzarekin ezin
leike arriskatu.
Al badezu itxura
onian prestatu.
Laztantxo bat neuk ere
nai dizut eskatu.

Neska mutil zalia
beti dago miñez,
bere egarri ori
asetu eziñez.
Gu ere orren billa
intentzio fiñez...
Gertatzen zaiguna da:
nun dagon jakin ez.

Ortxe ikusten ditut
Joxefa ta Juana.
Kontentu bazerate
etorri gugana.
Soiñulariak ere
badaukagu fama...
Ez da gaizki egongo
biontzako bana.

Emen bukatzen dira
gure abestiak.
Batzuek alaiak ta
bestiak tristiak.
Ez dira egokitzen
nai diran guztiak...
Asko esan badegu
barkatu guztiak.

Ondoren datozen hiru bertso hauek Berriatuko neska-mutikoen lehenengo jaunartze-egunerako egin zituen:

Aldarearen aurrera nator
Jaunari erregutzeko,
lur-aingeruen biotz samurrak
bere eskuan jartzeko.
Goiangeruen laguntasuna
guregana ekartzeko,
meza santua ondo entzunda
Jauna bakean artzeko.

Elizbarruti onen zaindari
Kepa deuna doatsua,
gaur aingeruen eguna dozu
benetan zoriontsua.
Abade jaun ta guraso onak,
inguru adoretsua...
Guztion lagun izan dadilla
gure Jaungoiko altsua!

Meza santua eskeinitzera
badator abade jauna.
Al dan onduen erantzutea,
ori da guk nai doguna.
Otoitzan bidez eskeiñi nairik
Jaunari zor dioguna,
zorionean igarotzeko
gaurko aingeru-eguna.

Oraintxe pare bat urte-edo, 2000. urtean, berriz ere bertsoak eskatu zizkioten, herriko umeen lehenengo jaunartze-eguna zela-ta. Ordukoak dira ondorengo bi bertso hauek:

Gure Jauna artzeko
pozez etorriak...
Aingeruen ekintzak
zer unkigarriak,
gurasoen laztanak
ta gure irriak!
Danok zuzendu gaitu
Jaun agurgarriak.
Jesusek maite gaitu,
baita be erriak.

Lenengo Jaunartzea
guretzako sari,
Berrittuko aingeruen
mezako janari.
Erriko abadea
danon zuzendari.
Jauna guregan dago.
Zorion berari!
Guraso ta lagunak,
eskerrak denari.

Bere mundualdiari begira kantatutako hiru bertso dituzu ondorengo hauek:

Poz-naigabeak eta geiago
mundualdiak baditu.
Gauza danetan osatzen danik
iñori ez diot aditu.
Emazte onak seme-alabak
etxean gordetzen ditu...
Ni ere ez nintzan ondo izango
oiek izan ez banitu.

Gizona beti bizi izaten da
zorionaren gosian.
Atsegiñikan ez dago iñoiz
maitetasunik ezian.
Egun berri bat igaro asmoz
esnatutzen naiz goizian,
sendi danari laztantxo bana
eskeiñiteko pozian.

Mundu onetan guztiontzako
bizitza ez da bardiña.
Eruapena da nere ustez
emen gauzarik aundiña.
Sendi barruko gozotasuna
ta etxeko atsegiña...
Au da munduan gizonarentzat
neke guztien ordaiña.

Aita eta amarik ezagutu ez zuen umezurtz bat gai hartuta Mugartegik behin batean egin zituen hiru bertso:

Ni ere amak egin ninduen
beste guztien antzera.
Zoritxarrean ez naiz iritsi
ama ori ezagutzera.
Aitak azia zabaldu zuen
ondorengo bat sortzera...
Baiña oraindik ez da azaldu
nirea dan aitortzera.

Aitarik gabe ez da amarik,
amarik gabe ez aurrik.
Zainik gabeko arbola zarrak
eztu ematen intxaurrik.
Ez ote det nik ezagutuko
amaren biotz samurrik?!
Ezagutzean ez nuke izango
iltzeko ere presarik.

Aita ta ama egon ditezke
biok lurrera jausirik.
Batere ez ditut ezagututzen
neure begiz ikusirik.
Aien odolez sortua naiz ni,
badut grazi berezirik...
Ezagutzera joango nintzake
baldin balegoz bizirik!

Bertsotan behin baino gehiagotan izan zen han, eta Mallabiko herria goraldtu nahi izan zuen beste batean, San Roke jaiak zirela-ta:

Mallabiko erria
nai nuke goratu,
neure biotz samurra
zúgan inguratu.
Esan nai dan guzia
ezin gogoratu...
Usain gozozko lorez
gaur zera loratu.
Esker onaren faltaz
etzera geratu.

Erri zabala dala
ikusten da, garbi.
Kale ta baserriak
txukun eta argi.
Zuaitz ta iturriak,
solo ta belardi...
Oiz mendian barrena,
euskaldunen kabi.
Zorionaren faltik
ez dozu, Mallabi.

Ondorengo hamabi bertso hauek, Berriatuko Juan Jose Izagirrek eskatu eta Jesus Larrañaga *Txutxo* saski pilotari haundiaren gorantz egin zituen, orain dirala urte batzuk. Ez zion jarri datarik bertso paperari, eta bere horretan bildu ditugu hemen.

Asierako agur bero bat
Larrañagatar Jesusi,
mailla aundia nola daukozun
zeure doai eta guzi.
Zu baiño gizon abillagoak
asko ez ditut ikusi...
Saski pilotan izan zaitugu
errege edo nagusi.

Pilota arloan egin nai ditut,
Jesus, zure aipamenak.
Orretarako sortu bait ziran
zure kemen ta almenak.
Autsi zenduzan mundu guztiko
pilotaririk onenak...
Ori dalata eskeintzen nator
zorionik beroenak.

Gizon aundi au nungoa dogu?
Etxebarrikua semez.
Askoren aoz aipatzen zinen
abarkeruan izenez,
naiz eta zure ogibidea
lan ori iñoiz izan ez.
Aitarengandik datorrena da
nik entzun izan dodanez.

Beste izen bat ere badozu:
Txutxo deitzen dizutena.
Izen orrekin jokutzen zendun,
ori da nik dakitena.
Naizta ez izan gizonarentzat
izen ori politena,
bearbada zeuk izango dozu
gustoko edo maitena.

Bartzelonako frontoira ere
urbiltzen asi gaitezen.
Zure gustoko jokoaldirik
ez zendun izan, ain zuzen.
Bertako buru egiten zunak
atzera utzi ziñuzen...
Baiña jokoaz jabetu ziñen
urrena Kanariasen.

Andik urrengo salto aundia
Habana ta Mexikora.
Orduko nola iritsi ziñan
mailla aundiko jokora.
Amerikako zale guztiak
sartzen zenitun kolkora...
Pilotak berak jaso ziñuzen
gizonetik Jaungoikora.

Miami ere ortxe daukagu
Amerikako lurretan.
Or ere bizi ibilli ziñan
jokabide gogorretan.
Oso aundia izan zaitugu
pilotaren alorretan.
Ondorenguen eredu on bat,
dударik ez da orretan.

Euskalerria markatu zendun
ezkerretik eskubira.
Egoaldean asi ta berdin
iparreko alderdira.
Ikusle denak gelditzen ziran
aozabalik begira...
Esaten zuten: - Au dek gizona
etorri dana errira!

Gizon bezala apartekoa,
biotz onaren jabea.
Zango bizkorrak, gerri biguna,
jokatzen oso trebea.
Buru argia, errebes ona,
eskuma paregabea...
Doai guztiak dituna baiño
nor izan leike ohea?

Ez da erreza billatzen ere,
Jesus, zure bardintsua.
Pilotarien maixu izana,
argia ta jakintsua.
Etxebarriko seme jator bat,
leiala eta zintzua...
Danen gaiñetik nik opa dizut
bizitza zoriontsua.

Niretzat ez da errez izango
zure ondora joatia.
Onuntz etortzen bazara iñoiz
zabalik dago atia.
Beste gauzarik ez det eskatzen:
Jaunaren borondatia...
Komeni bada egunen baten
elkarrekin egotia.

Mundu guztia biurtu zendun
pilotazalien jardin.
Gure artean zer esanik ez,
Ameriketaldian berdin.
Agur, ta segi aurrera ere
osasuntsu eta gordin.
Zure izenik ez da aztuko
Etxebarrin ta Euskadin.

Ondorengo bertso hauek ere iñoren eskariz idatzi zituen. Shegundo Gorostola *Kakatza* probalari ezagunaren emaztea Itziarren zegoen andereño. Eta hango umeek kantatzeko bertsoak eskatu zizkion Shegundok. Ezetz esaten jakin ez, eta honelaxe idatzi zituen, noizkoak direnik apuntatu gabe, beste askotan bezala.

Agur bero bat egin nai neuke erriaren izenean,
zar eta gazte danak goratuz, ondo bide zuzenean.
Amets gozoak egiten dira gustora gabiltzanean...
Erriarekin bizi nai dogu egizko maitasunean.

Ni ere agur egiten nua, al bada neure abotsez,
entzule onak ikusirikan ain begiramen zorrotzez.
Lur onetako landare onak danok geralako sortzez.
Guk Itziarko erri polita maitatzen dogu biotzez.

Ez dakit nola egingo dodan irugarrenago agurra.
Nai ez duela bati beregan etortzen zaio bildurra.
Erriarentzat beti izango da gure maitasun samurra.
Guri etzaigu iñoiz aztuko sortu ginduazen lurra.

Ara, Itziar, beste gauza bat zuri nai dizut ezarri.
Zure izate guztia bertsoz ezin leike iragarri.
Kale modura aunditzen zoaz; linguak ainbat basarri...
Zu bezelako erri politik ez dira ikusten sarri.

Agur egiten asteko aurrez egin nai det esamiña.
Beste erri bat ikusteko ere nun dago zure bardiña?
Lurralde dena lorez jantzia, gaiñetik zeru urdiña.
Ikusgarria degu benetan gure Itziarko gaiña.

Zorionean agurtutzeko ikusten diraden danak.
Asmo orrekin etorri gera emen alkartu geranak.
Euskalerrian iraungo badu gure izkuntzaren famak,
bide ontatik zaindu gaitzala gure Itziarko Amak.

1987ko ekainaren 1ean, Mañukorta bertsolaria eta bere kinto lagunak bazkari egunerako egindako bertsoak orain. Mugartegi ez da Mañukortaren kinta berekoa, baina urtero egiten duten bazkaritarako gonbidatzen dute, bere lagunartean gozatu eta, bertso batzuk kantatzeko-edo.

Mañukorta ta bere lagunak
euren bazkari egunez,
talde polita inguratzen da
gozo ta biotz bigunez.
Eguna ondo asteko asmoz
meza santua entzunez,
euskal kutsuko izateari
gizalegez erantzunez.

Urtero beti ekainean ta
lendabiziko egunez,
ospatzen dena Bizkaia eta
Gipuzku aldeko jendez.
Batak bestea agurtutzeko
zorionez, adibidez.
Ni ere pozik aurkitutzen naiz
orrenbeste adiskidez.

Eguna ondo ospatutzeko
aukera ederra dago.
Kinto bezela artzen naute ta
orretan gustora nago.
Bertso kantari joaten naiz ni,
kintoa banintz naiago.
Baiña urtetan zarragoa naiz,
amarreko bat geiago.

Jan eta edan ondo eginda
kafian ondorenian,
Mañu ta biok bertso kantari
geure gustoko lanian.
Txandarik ere artu ezinda
egundoko jardunian...
Beti ez gera ola aurkitzen
jardun bear dogunian.

Ainbeste gauza elkarri esan,
baiña ez da arritzeko.
Oraindik bide asko ditugu
jorratu ta garbitzeko.
Biontzat ere naiko berandu
memoriak argitzeko...
Niretzat ia ezinezkoa
luzaroan jarraitzeko.

Bizitzak ditun jokabideak
ezin dira egokitu.
Baiña al bada ezer ein gabe
ezingo gera gelditu.
Nire biotzak kinto ta lagun
guztiak agurtzen ditu.
Nik joaterik ez badet ere
zuek aurrera jarraitu.

Nikolas Aldaik eskatuta, 1998ko urriaren 17an kantatu zituen bertso hauek, Euskadi Irratian. Hobeki esan, hauetako hiru bertso kantatu zituen bakarrik. *Burutik urrun, bihotzetik urruti* gaia eman zion Nikolasek, berrogeita hamar urte lehenago Arantzazuko egutegiak argitara emandako esaldi bat gogoratuz. Eta gero, handik egun batzutura, gaia asko gustatu eta beste hiru bertso erantsi zizkion irratian egindako saioari. Honatx, bada, orain sei bertsoak.

Bistatik urrun dagoenari
nai diot adierazi
oroimenaren munduak ere
baduela ainbat grazi.
Sentimentuak eskatzen duna
beti ezin irabazi.
Baiña biotzak agintzen badu
maitatzen nai nuke asi.
Maitasunaren eskeintza ori
iñork ezin galerazi.

Ain urrutian bizi zara zu,
ezin zara urreratu.
Bide ortatik pauso bat ere
ezin dozu aurreratu.
Esango nuke nitaz sekula
ez zarala gogoratu...
Argi izpi bat eskeintzea ere
ez al zaizu bururatu?
Neure sarean lotu nai zaitut
naiz ta biotza urratu.

Ez dakit aintzat artuko dozun
nik egindako aitortza.
Ez da erreza ondo negurtzen
ain eskabide arrotza.
Iñoiz amaitzen ez dan gauza da
itxaropenan morrontza.
Nik oraindikan biak bait ditut:
ikusmena ta biotza.
Zureak ere erakusteko
ez izan beldur ta lotsa.

Ori orrela izango zanik
iñoiz ez neban usteko.
Gauzak okertzen joan ziran, bai,
bateko eta besteko.
Motiboren bat izan al gendun
orrenbestian nasteko?
Bada ordua biok elkarri
aurpegi erakusteko,
egunen baten izan gaitezan
elkar ondo ikusteko.

Ez nuen uste zure aldetik
ain erabagi zorrotzik.
Aldi berean esango nuke
ez daukazula biotzik.
Une orretan ez da sentitzen
ez bero eta ez otzik.
Naiz ta sekula ez dodan egin
modu ontako aitortzik,
zure agur bat jaso ezker
biziko nintzake pozik.

Gure artean izan giñuzen
ez dakit zenbat armoni.
Gure orduko gozotasuna
biurtu zaigu agoni.
Alperrikoak izan al ziran
orrenbeste zeremoni,
argibide bat billatutzeko
garraztasun gogor oni?
Itxaropenik ez noa galtzen,
orren usteen nago ni.

Beste bertso hauek, 2001eko Gabonetan idatzi zitu-
en, Ameriketara dauden saski-pilotariei eskainita. Bere
seme Jon Miamiko pilotalekuan dabil jokatzeko, lehen
esan bezala, eta hura zuen gogoan, ziurrenik. Ez da arri-
tzeko. Honatx zortziko txikian egin eta bidali zizkien
bertsoak.

Saski pilotariak
euskaldunak sortzez,
gizaseme jatorrak
buruz ta biotzez.
Amerikara eldu
nai nuke abotsez.
Ezingo naiz gelditu
intentzio utsez.
Gabon zorientsuak,
guztiontzat, pozez.

Euskaldunak baidira
goi pilotariak,
oso bizkorak eta
guztiz ugariak.
Ar itzazue bertsoz
nire opariak,
noiznai ez dira izaten
olako opariak.
On egin deizuela
Gabon-afariak.

Pilotaren mundua
ez dabil, ez, gozo.
Ez dirade sentitzen
nai bezain eroso.
Kirolari bizitza
gogorra da oso...
Naiz ta orain ez egon
guztiz animoso,
segi bildurrik gabe
ta buruak jaso.

Etiketiko oso urrun
zuen alorretan,
nor ez da alegintzen
olako obretan.
Urtean illabete
gero oportetan.
Eskerrak ordainketa
dagon dolarretan...
Itxaropena jarri
moneda orretan.

Mundu onetan bada
ainbat diferentzi.
Ez da erreza artzen
naiko pazientzi.
Damu ez izateko
biar edo etzi,
euskaldunak nor geran
garbi erakutsi.
Iñor zapaldu gabe
goi mailari eutsi.

Zabaldu dituzue
makina bat ate.
Pilotariak ortan
grazia daukate.
Agindutako lanak,
al bada, ondo bete.
Ola ondo artuak
izango zerate.
Agur ta ondo izan.
Nai dozuen arte.



Seme Jon Milforden pilotari eta ikasle zintzo, bidebatez

Markinako eskolako gazte batzuk Santi Mamiñera egin behar zuten ibilaldirako bertsoak eskatu zizkion Murgartegiri Luis Baraiazarrak. Ez daki ziur noiz egin zituen, baina honako seiko hauxe bidali zion aipatu irakasle eta bertsozale finari.

Ibillaldi bat egin asmotan
alkartu gara guztiok.
Irakaslien ardurapean
ikasle garan bestiok,
egun alai bat igarotzeko
elkarren adiskidiok.
Goiko Jaunaren laguntasuna
eskatzten dogun anaiok.

Lendabiziko urtenaldia
Santa Mamiñe aldera,
gure aurreko oiñarri ziran
jatorrien magalera.
- Alde onetan zer ote dago? -
au da guztion galdera.
Bildu gaitez an maite dogun
txokoaren egalera.

Euskalerriko lurrak baditu
makina bat ikuskizun.
Zenbateraiño maite zaitugun
ez dakit ondo dakizun.
Bisitatzeko amets gozoa
aspaldi egin genizun...
Jakin nai dogu zorionean
zenbatek egiten dizun.

Markinaldetik atara eta
bagoaz bide luzean,
solo ta zelai, ur eta mendi
ikusteko ametsean.
Sagar ta gaztain, pago ta aritz,
piñua izan ezean...
Zoritxarrean falta ditugun
Euskadiren babesean.

Ondartza baten egokitzeko
asmo galdurik ez degu.
Bazter politak ezagutzeko
bidea jarri oi degu.
Al dan ondoen jolastutzeko
eskubidea baidegu...
Gure gustoko egun gozo bat
igarotzea nai degu.

Eguna ondo igaro eta
nai genduke etxeratu.
Jolasbideak gaiñez eginda
ez gaitezela geratu.
Eskerrik asko irakasleei,
asmo onak aurreratu.
Beste onako ateraldi bat
berriz ere aukeratu.

Ondorengo hiru bertsuok, Ondarruko Kresala elkar-
teak herriko bertso eskola zabaldu zuenean egin zituen
Mugartegik. Izan ere, eskola honen sorreran buru-bihotz
lagundu zien ondarrutarrei, eta gero ere harreman zintzo-
ak izan ditu hango irakasle eta ikasleekin. Berak gaztetan
izan ez zuen aukera izango dute bertsolaritzaren nondik
norakoak ikasi nahi dituzten neska-mutikoek orain. Eta
horrek poztu zuen Jon.

Bertsolaritza bizkortu nairik
jarri gara asmo onez,
bertso eskola baten bitartez
al dan bideko sakonez.
Naiz ta oraingoz erri osoa
itxaropentsu egon ez,
denborarekin indartuko da
aukera onak emonez.

Ondarrutarren lan bereziak
gauza asko du aitortzeko,
izkuntza zarrak falta dituen
doai batzuek lortzeko,
eskintza onen bidez gerora
emaitz berriak sortzeko...
Eta al bada erri osoa
euskalkide biurtzeko.

Denboraz jakin nai dogu zer dan:
mamia edo azala.
Baiña egiten dizugun deia
erriak entzun dezala.
Egun denetan zuen zai dago
Ondarroako Kresala.
Erantzun ona jaso nai dogu
eskeintzen dogun bezala.

Joxe Migel Iztueta *Lazkao Txiki* bertsolari haundia 1993an hil zen, gaixoaldi baten ondoren. Hamaikatxo herri eta plazatan kantatuko zuten elkarrekin, seguruenik. Eta hil zela jakin zuenean, bere gorazarrea egin nahi izan zion berriatuarrak, honelaxe:

Lazkao Txiki nolakoa zan
ez dago esan bakarrik.
Gizon bezela txiki izatea
izena zuen bakarrik.
Sentitzen zuna adierazten
bazuen modu edarririk.
Ez zuen galdu euskal giroko
zaletasun ta indarririk...
Ez dakit berriz sortuko zaigun
aren pareko izarrik.

Lazkao Txiki gogoratzean
jartzen naiz neke mingotsez,
orren gozoa eta apala
izan gendulako sortzez.
Aozabalik uzten gintuen
bere ateraldi zorrotzez.
Irudimenez argia eta
ezti samurra aotsez...
Euskalerrian inor ez dago
maite ez duenik biotzez.

Jose Migelen bizitza orrek
badauka naiko zer esan.
Entzule onak serbitzearren
erriz-erri ibilli zan.
Ura besteko artista ona
edozein ez baita izan,
lagunarteko txokoetan ta
erri, plaza ta elizan...
Zintzotasuna gordetzen zuen
gizon jakintsuen gisan.

Ur jario bat ikusten dogu
aldiro zerutik jeisten...
Bere emaitzak orrela ziran
naiz ta zailla dan sinisten.
Bertsoz ta txistez aren konporta
etzan bereala isten.
Zenbatetako doaia zuen
ez da erreza bereizten.
Beste edozeiñi kostako zaio
mailla artara iristen.

Lazkaomendiko Abaliñen
sortutako poxpoliña,
gorputzez aundi ez izan arren
izakeraz oso fiña.
Nik ez nekien gaixo zegonik,
nunbait bazendukan miña...
Ebakuntza bat egin zioten
ustez xume ta ariña.
Bertan betiko lotan gelditu,
au da ulertu eziña!!!

Etenik gabe izkuntzan alde
ibillia zan lanean.
Oitura ori gordetzen zuen
sarri edo geiengan.
Ustekabeko zoritxar batek
menperatu azkenean.
O, Joxe Migel, bilduko gera
azkenengo egunean!
Ta bitartean goza ezazu
betiko atsedenean.

Orain irakurriko dituzun bertso hauek, 2002ko martxoaren 24an Amoroton omendu zuten Santi Zabalari eskeini zizkion, ehun urte bete zituela-eta. Hobeki esan: bertso hauetako bat martxoaren 20an bidali zion, zorionak emanaz. Baina gero, laukoa osatu zuen, bakarra gutxi iruditu-ta.

Amorotoko omenaldi hura, herri mezarekin hasi zuten. Gero, Mugartegi eta Azpillaga bertsoetan. Eta trikitilariak, Laja-Landakanda, Epelde-Larrañaga, Sahatseta-Berastegi eta Tapia eta Leturia. Eta azkenik, lagunarteko bazkaria egin zuten denak batera, Oletako Epermendi jattetxean. Ehun urte haundi bete zituen Santi Zabalak merezi zuen bezelako eguna eskeini nahi izan zioten, bistan danez. Honatx Mugartegiren bertsoak:

Martxoak ogeita lau,
egun atsegiña:
bizitzak eman dizun
egunik aundiña.
Opari gisan eun
urteko adiña...
Omenaldi ederra
erriak egiña,
pixka bat alaitzeko
zure biotz fiña.

Amotoko erria
polita da berez,
orregatik baditu
millaka interes,
alkatesak jarririk
orrenbeste babes.
Erriaren aldetik
esker onak aurrez.
Obeto antolatzen
ez da izango errez!



Santi Zabala, Gorozikan 2002.03.24

Niri etzait gustatzen
izpide lizunik.
Ez det uste okerra
izango zaizunik.
Bestela ere bada,
bai, eginkizunik...
Orra, nire apurra
eskeintzen dizut nik.
Alanda ere ezin
merezi dezunik.

Eun urte dituen
gizon zintzo bati
errespeto aundia
zor diogu beti.
Ikusiak dituzu
millaka egunsenti...
Omenaldiagatik
ez jarri kezkatu.
Dana merezi dozu.
Zorionak, Santi.

Omenaldiak

HAN eta hemen, omenaldi ederrak egin dizkiote Murgartegiri azkenengo urte hauetan, maitasunaren agiri. Jakina da, bestalde, omenaldiak eta horrelako ohoreak, adinaren seinale ere izaten direla. Baina eskertzekoak dira, eta eskertzen ditu Jonek.

Nolanahi dela ere, pozik gehiena eman dioten omenak gogoratzen hasiz gero, oso gogoan eta bihotzean gordeta ditu Berriatuan, Markinan eta Donostian egindakoak. Norbere herrian eta inguruetan maitea izatea gauza haundia baita, izan ere. Eta hori ondotxo daki. Donostia-koa berriz, Euskal Herri osoaren aitormena izan zen, eta balio haundia zuen hain sentibera den bertsolari honentzat.

Banaka-banaka aipatzen hasita, Markinako omenjaialdia 1976ko maiatzaren 30ean izan zen. Lea-Artibaiko eta inguruetako bertsozaleak hantxe bildu ziren, berriatuarra omendu eta bertso saio eder bat entzun nahirik. Eta, ohi denez, jaialdiko bertso saioaren azkenean eskerak emanez bertso batzuk kantatu zituen. Han kantatu zituenak lehen aipatu dugun IZ disketxean argitara emandako kasettean jasota badaude ere, sail honetara ekartzea nahiago izan dugu, omenaldien atala osabetez-edo. Honatx, bada, lau bertsoak, han kantatu zituen bezelaxe:

Itz bi bakarrik egin nai ditut,
ez daukat egiten errez.
Biotz gaixoa erdibiturik,
begiak berriz negarrez.
Bertsolari ta gaiñontzekoak
denak eskertu bearrez,
al dan bestian egingo ditut
maitasunaren indarrez.

Zeñi ez dio itz eragingo
gaurko maitasun giruak?
Emen dagoen edertasuna
ez du ordaintzen diruak.
Berriatuko gazte ta zarrak,
denori esker beruak.
Era berean eskertzen ditut
Zerutxoko aingeruak.

Utsegiterik gertatzen bada
iñor ez dedilla mindu.
Danen biotzak ezin eskertu
naizta asko alegindu.
Egin dezuten eskeintza eder au
ez dakit nola ordaindu...
Ni zuen morroi geratutzen naiz,
nai dezutena agindu.

Agur, lagun zar bertsolariak;
agur, entzule kutuna.
Markinako erri maitagarria,
danok alkartu gaituna.
Danon zaindari artu dezagun
Karmengo Ama biguna...
Komeni bada, zorionean
igaro daigun eguna.

1982ko *Bertsolari Eguna*, urtarrillaren 17an, Donostian egin zen, Jon Mugartegiren omenez. Ohiturari jarraituz, bertsolari askok kantatu zuten bere gorantz: Joxe Lizaso, Lasarte, Ezponda, Basarri, Koxme Lizaso, Jesus Lete *Ibai-ertzek* bertso bat bidali zuen, Areitio, Argiñarena, Itsasondoko Bixente, Jose Insausti, Rufino Iraolaren bertso bat, Loidisaletxe eta Paulo Zubiarrain *Hernani Txikiak*, hurrenez hurren.

Liz: Lanean asi bearko degu
 ordua iritsi zaigu-ta.
 Iruditzen zait Euskadi dena
 emen dagola bilduta.
 Eldu zerate Mugartegiren
 umiltasunak deituta.
 Gizarajuak pozaren pozez
 biotza dauka lotuta...
 Txalo berotan aska zaiogun,
 denak merezi ditu-ta.

Las: Gaur txoko ontan ikusten det nik
 ainbat euskaldun aurpegi.
 Bein artutako bide onari
 jendeak nai dio segi.
 Erriak ola laguntzen dio
 maite dun gizon bateri...
 Jaunak egun on guztiori, ta
 zorionak, Mugartegi.

Ezp: Paregabeko gizona dago
 egun ospatzen deguna.
 Ainitzek adiskide daukate,
 beste ainitzek laguna.
 Biotzetikan azaltzen zauku
 egun eskeintzen dioguna...
 Jon Mugartegik merezi zuen
 zorionezko eguna
 zorionezko eguna.

- Bas: Gizon osua eta
izketan aingeru,
on egitekoan da
ori danen buru.
Mugartegikin konta
liteke seguru...
Jauna, au pagatzeko
nun bear aiña diru?
Olakuak ez daude
dozenan amairu.
- Kos: Jaun Mugartegi, zure aurrera
gaur agertua naiz lotsez.
Bertsolari bat aundia zera,
aundiagoa abotsez.
Euskalerrriak bear bezelako
gizona zera biotzez.
Frontoi guztia gaur bete zaigu
ezagun eta arrotzez.
- Ibai: Besarkada bat zorionakin
artzak, lagun Mugartegi.
Omenaldia gaur egin arren
iretzat eztek geiegi.
Bertsotan jarrai munduan zear
eguzki eta illargi...
Aurrera ere arreta biziz
bertsoak abesten segi.
Euskerarentzat ongarri aiz ta
ez adi biurtu nagi.

Are: Iurretarren partez nator ni,
Mugartegi lagun zarra;
zu bait zerade Bizkai aldeko
bertsolarien izarra.
Biotz barrendik eiten det nere
eskariaren diadarra:
izan daizula bertsoarako
umorea ta indarra.
Euskalerrriak badu oraindik
Mugartegiren bearra.

Arg: Oitura zar bati segiz,
atsegin zaiguna egiz,
merezitako omena dezu
nere ikuspegiz.
Ikusten dezuna begiz,
etzazu artu geiegiz...
Bertsozalerik ezta aztuko
lagun Mugartegiz
bertsozalerik ezta aztuko
lagun Mugartegiz.

Bix: Onek badu esana
makiña bat egi,
gazterik asi zan ta
ortan baitu segi.
Ondo merezia zun
gaurko omen ori.
Artu ne' zorionak,
lagun Mugartegi.

- Ins: Agur bana guztiori,
ain zorioneko giron.
Jendek ezin gaur erantzun
askoz era egokigon,
izan'e alako gizona degu
guk Mugartegitar Jon
Intxaustinak'e artu itzazu,
biotzez mila zorion.
- Ira: Beti bezala dator:
apal ta umilla,
arrokeri gabeko
gizon abilla,
ongi merezitako
sariaren billa...
Non aurkitu liteke
olako mutilla?
Leial ta isilla,
gorrotoa illa,
barrena trankilla,
naiz gorputz debilla.
Geroz osasuntsuago
izan dedilla
geroz osasuntsuago
izan dedilla.
- Loi: Milla urte ta beatzireun da
laroita bi dira, ain zuzen;
ilbeltz illaren amazpian
Jon Mugartegi omentzen.
Irabazia zeukala aspaldi
egoten nintzan pentsatzen...
Zenbat lekutan aillegatu dan
bertso ederrak kantatzen!
Ta San Antonek lagun deizula
eguna ondo pasatzen.

Her: Zuk amazazpi urte inguru
zenitubela orduan,
akordatzen naiz Berriatuan
nola kantatu genduan.
Gurekin an zan irugarrena
orain ez dago munduan...
Zein ez gera gaur egongo pozik
Mugartegiren onduan?

Barka zaidazu gaur ezpazaitut
goratzen merezi aiña;
beti izandu zera gozua
eta biotzez biguiña.
Inbiria ta gorrotu txarrik
etzan izango gaur aiña
Mugartegi dan bezelakuak
guztiak izan bagiña.

Gai-jartzaileak hauxe jarri zien Azpillaga eta Salbador Lakari egun hartan: *Berriatuko herria, bertsolari herria da. Azpillaga, Berriatuko bertsolaritzaren lehena izango da gaur; eta Salbador gaztea, oraina.*

Sal: Edadetuen ondorenean
zefon gazteen bearra.
Berriatuan bertsoarentzat
nola egon izan garra...
Gazteak bear ta itxura danez
ni sortu nintzan bakarra.
Zer iruditzen zaizu gaur zuri
postura au, maixu zarra?

- Azp: Argiak dauzkat begiak eta
 erne dauzkat belarriak,
 buru zuritzen asiak gera
 eta aultzen eztarriak.
 Gu zartzen ari bagera ere
 badatozkigu berriak,
 bertso faltarik eztezan izan
 bertsozale dan erriak.
- Sal: Azpillagaren bertsoa entzun
 danok zaudete atsegiñan.
 Eta ni ere orrena entzuten
 gogoz nengoen eskiñan.
 Aurrera irten naizela baiña
 nola ez nago jakiñan.
 Ai, maixu zarra, oraintxe nago
 benetan zure premiñan.
- Azp: Gaztetatikan kantari gabiltz,
 ez jakinduriz jantziak.
 Berriatutik asi ta bazter
 asko dauzkat ikusiak.
 Ta erriari sarri dizkagu
 biotzak erakutsiak.
 Gazteak, zuek ein itzazute
 guk egin gabe utziak.

Lopategi, Etxeberria, Narbaiza, Sardui, Agirre, Aitola, Egileor, Gorrotxategi, Olalde, Ziarda, Arregi, Jon Enbeita, Telleria, Peñagarikano, Mendizabal, Garmendia, Mitxelena, Eusebio Igarzabal, Patxi Iraola, Amuritza, Lazkao Txiki, Lazkano eta Sebastian Lizasok egin zuten gainerako saioa. Eta azkenean, Eguren berriatuarra, Balendin Enbeita, Mañukorta, Iturri II, Igarzabal *Buztarri* eta Xanpunek kantatu zuten.

Egu: Neri entzuten zauden guztioi,
 biotzez egun on bana.
 Gure lagun bat omendu nairik
 etorriak gera ona.
 Ain da, izan'e, buru makurra
 eta biotzez biguna,
 Berriatutik Donostiara
 gaur gu ekarri gaituna!

Berriatuko erri maitea,
artu nai dizut gaur kargu.
Pazientzi pixka bat artzeko
egiten dizut erregu.
Goizean bertan egiñak gera
izar eder baten eredu.
Ta emengo lanak egindakoa
berriz ordainduko degu.

Beste bat esan arte nai nuke
pixka bat aurrerantz segi,
nere biotza erdi-erditik
nola egin dan idegi.
Nere aurrian ikusten nago
ainbeste euskaldun aurpegi...
Eskerrik asko biotz-biotzez.
Zorionak, Mugartegi.



Donostiako omenaldian
Donostiako alkate Alkain jaunarekin

- Enb: Gaur Anoetan omentzen dogu
Berriatuko txoria,
Euskalerrian ezaguna dan
txori apal, kantaria,
euskera eta euskal oituren
maitale txalogarria,
bildurrik gabe egian alde
emon dabena aurpegia.
Izatez apal, egintzaz aundi,
gizonez bertsolaria...
Erriak ere baki emoten
merezi daunai saria.
Eta sinistu, Jon Mugartegi,
zugaz dagola erria.
- Mañ: Ainbat euskaldun txaluak jotzen
gure aurrean jarriak,
Jon Mugartegi zoriontzeko
danak pozez etorriak.
Lagun onetxek merezi ditu
diran zorion guztiak...
Zenbat bertso eder kantatu duan
Mugartegin iturriak!
Baiña gizona ondo eskertzen
badaki Euskalerrriak.
- Itur: Txarri-apari baten ari zan
ta nik Jon an ezagutu.
Zure bertsoa bertan entzun ta
barruan zitzaidan sartu.
Ogeita amar bat urte badira
ordutik ona pasatu;
oso gaztea nintzan ni baiña
egun ori ezin aztu.

Bus: Mugartegi, entzuidak
Bustarrik zer diñun:
Utsegite aundirik
utsegite aundirik
ez dek egin iñun.
Donostira batzeko
onenbeste lagun,
jator portau aizela
jator portau aizela
emen dek ezagun.

Lenagotikan ere
bertso auk zor nitun.
Naio nin ire amak
naio nin ire amak
gaur entzun bazitun.
Portau dituk Donostin,
ta berdin Berrittun...
Askok maite autela
askok maite autela
egon ai jakitun.

Xan: Nere aldia ez nuen nahi
gaur segur utzi galtzera
Etorria naiz haurride onak
bihotzetik agurtzera.
Bereziki zu, Mugartegi on;
anaien anai baitzera...
Iparraldetik etorria naiz
gure zorren ordaintzera.
Hain zuzen, dena bihotz-bihotzez
goresmenak eskaintzera
goresmenak eskaintzera.

Eskuerakutsi eta sari asko eman zion jendeak Mugar-tegiri: Donostiako udalak, Sendoa argitaletxeak, Berriatuko udalak, bere lankideek, Bizkaiko Aurrezki Kutxak, herriko gazteek, Berriatuko Itargi elkartekoek, Markinako Amaillotarrek, Eibar eta Mendaroko lagunak, Bertsolarien elkarteak, eta abar. Eta jaialdia amaitzeko, Jonek, bihotza bete-bete eginda eta begiak dizdiz zituela, honako bertso hauek kantatu zituen:

Bertsolari lagunak
arturik aintzako,
omenaldi eder au
neri eskeintzeko,
lagun asko izan det
onez jarraitzeko,
ainbeste oroigarri
beti oroitzeko.
Nik ez daukat gaur itzik
denak ordaintzeko.

Gaurko eginkizunak
ez dauka azkenik.
Ez det uste obeto
egin lezazkenik.
Biotzaren zati bat
emango nuke nik
iñor balego emen
artuko lukenik.
Bestela ez det pentsatzen
ordaindu leikenik.

Geiago esan bearrez
nago zuzenian:
eskerrak guztiori
maitetasunian.
Gauza bat eskatuko
nuke azkenian:
Erria neurekin ta
neu bere izenian...
Ala izan dedilla
iltzen naizenian.

Agur bat egitea
nai nuke azkenez,
denak besarkatuaz
biotzez ta senez.
Urrengo urterako
pausu bat emonez,
Xanpun lagun maitea,
or zure omenez...
Elkartu gaitezela
denok zorionez.

Seme Jon oso mutikoa zen Donostian aitari omenaldia egin ziotenean. Eta berak ez zuela bertsozik kantatu nahi esan zion aurreko egunean. Baina gero, omenaldiko giroa ikusi eta animatu egin zen mutikoa, aitari sorpresa galanta emanez. Honako bertso hauek kantatu zituen jaialdia amaitzeko.

Oraindik gaztetxo
nago adiñetik,
baiña kantuz ari naiz
neure mingaiñetik.
Asko ezin atera
zentzun ariñetik.
Erriari eskerrak
guztien gaiñetik...
Aitari zorionak,
biotz ordaiñetik.

Oitu gabea nago
bertsolari gisan.
Larritasunik asko
atzo gabaz bazan...
Abestuko al nuen
Donostiko plazan
aitak galdetu zidan.
Ezetz nion esan.
Baiña bere ordezkoi
nik nai nuke izan.



Jon Mugartegi semca bertsotan

Donostiako omenaldia zela-ta, honako lau bertso hauek kantatu zituen Mugartegik Herri Irratian, 1982ko urtarrilaren 17an.

Urtean batek izan bear du,
ni gertatu naiz aurtengoz.
Zer pentsatuko zenuke, entzule,
nire lekuan bazengoz?
Al dan ondoen erantzutea
sentimentuz edo gogoz...
Biotzak eskeintzen dun guztia
ezingo det esan agoz.

Euskalerria agurtu nai det
Herri Irratiko bidez.
Zar eta gazte, aundi ta txiki,
osatzen naiz adiskidez.
Guraso zarrak gogoratuaz
bertso giroko senidez;
biotzak ia ler egiten du,
olako baten zeïni ez?

Omenaldiak neronentzako
izango du naiko pixu.
Ez da izaten erreza ere
olako gai batean maixu.
Erregalien gaiñetik ainbat
txalo bero eta muxu...
Al dan ondoen denak artzeko,
Jauna, lagundu egizu.

Euskalerria zabala dala
ez dago esan bearrik.
Bira onetan nik ez det falta
lagun gazte edo zarrik.
Denak eskertu bearrez nago,
kezka au ez da bakarrik.
Egun onetan, al dala beintzat,
ez det egin nai negarrik.

Beste omenaldi bat gehiago aipatzekotan, Berriatuk eta, batez ere, herriko gazteek egindakoa aipatu behar dugu, ezinbestean. Izan ere, sekulako poza eman zion Joni 1987an egin zioten hark. Denentzat ez da izango, agian, baina bere herrian profeta izatea gauza haundia da, eta ondo baino hobeki zekien hori Patroikuako nagusiak. Jaialdiaren azkenean, honako bost bertso hauek kantatu zituen, denei eskerrak emanetz:

Ikusirik aurrean
ainbeste euskaldun
gogoaren indarrez
bear nuke jardun.
Baiña batek ez daki
zer moduz diardun.
Erantzungo dizuet
argi edo illun:
danekin izan nai dot
anai eta lagun.

Berriaturen aurrera
onenbeste erri
orain artean iñoiz
ez dira etorri.
Gazteak izan dira
gai orren oiñarri,
aurpegi emoteko
ainbat lan gogorri.
Nik ez daukat erreza
erantzuten orri.

Konturatuta nago
gazte jatorretan
nagusi zeratela
olako obretan.
Alegindu zerate
neke gogorretan.
Dударik iñork ere
ez dauko orretan.
Baiña neu geratzen naiz
betiko zorretan.

Ez dizuet egingo
betiko agurrik.
Ta gutxiago bertsoz
eskeintza laburrik.
Ez noa ukatzera
dakidan apurrik...
Nik ez dot ezagutu
ain une samurrik.
Ezingo dot ordaindu
artu dodan zorrik.

Berrittuko erria,
sortu ninduzuna,
lenbiziko argia
emon zidazuna,
zure magal gozoan
gordetzen nazuna,
au da neronentzako
aberastasuna:
iñon gorrotorik ez,
danen maitasuna.

Baina beste edozein bertsolari omendu izan denean ere, gehienetan hantxe izan da Mugartegi bertsoan, lagunak goraldtu eta berea emateko prest. Behin behar eta, 1984ko urtarrilaren 22an, Txomin Garmendia lagunaren omenez Donostian egin zen *XV Bertsolari Egunean* han izan zen, zuzen asko. Beti bezela, sekulako bertsolari multzoa bildu zen egun hartan ere, eta bakoitzak bereak kan-



Migel A. Lertxundik egindako bustoaren ondoan.

tatu zituen. Jon Mugartegi, Joxemari Arregi eta Joxemari Altunari gai hauxe jarri zien aurkezleak: *Arregi, aita da; Mugartegi, maixua; eta Altuna, estudiante txarra.*

Mug: Maixu izena jarri didate,
ta gai ortan nai det asi.
Aita orrentzat eskabide bat
egin nai nuke lenbizi.
Bere semeak ikastolarik
eztu nai inoiz ikusi....
Aita, al badezu seme maitea
bide onean zuk ezi.

Alt: Aita, arkittu bear ditut nik
komeni zaidan moduan.
Ñañokeria ugari orrek
baitarabilki abuan.
Ni egingo naiz tontuagua
naiz eta lendik tonto juan...
Esan zaidazu, zer demontretan
bistako naizen orduan?

Arr: Profesorea edo maixua
emen da konturatutzen,
eta semea ikaskaietan
ezta batere aldatzen.
Tonto jaio ta tonto bizitzen
gaur nai luke laguntzen,
baiña aitaren diru apurrak
badaki manejatutzen.

- Mug: Esango nuke aita-semeak
daudela ados jarriak.
Ondo pentsatzen jarri ezker
baitira negargarriak.
Errespetatu maixu zarraren
arauak eta neurriak...
Nik bide onez sortu nai ditut
geroko maixu berriak.
- Alt: Nik zer kulpa det lan egiteko
arkitzen banaiz naian?
Eskolatzeko tontoegia
berriz, ori da egia.
Komeni zaidan gauzatan ez naiz
orren aldrebesegia...
Parrandan eta neskatan egin:
arte ori da neria.
- Arr: Maixua ere malizioso
pixkat daukagu jarria.
Aita-semea une onetan
aurkitutzen da nagia,
semeak duen argitasuna
baita laneko egarria.
Nai izan ezker atara leike
laister Barandiaran berria...
- Mug: Ustekabean au da urrengo
nere dei edo abixua:
semeak duen ezjakintzea
aitak du orren pixua.
Onek aitortzen digu benetan:
tonto izateko jaixua...
Ezta makala izango, beraz,
au argitzen duen maixua.

- Alt: Begira Txomin zein listo degun,
ta etzizaigun eskolatu.
Ezjakintasun garratz orreri
ezin dezaiokegu lotu.
Bestela nola erri guztiak
egingo zuen txalotu?
Nik bere antza izan nai nuke
nola ez naizen lelotu.
- Arr: Nere seme au ez izan arren
lanean arduratsua,
nere ustean almenetikan
argi ta disdiratsua.
Maixua ere pixkat gogorra,
makila du indartsua...
Baiña, semea, al badek emen
izadi zorionsua.

1987ko martxoaren 19an, Juan Igarzabal *Buztarri* herriko bertsolaria omendu zuten Markinako bertsozaleek. Ez zuen hutsik egin berriatuarrak egun hartan ere. Eta ondorengo bost bertso hauek eskaini zizkion bere lagun zaharrari:

Arratsaldeon. Ongi etorri,
erriko ta erbesteko.
Esan didate guztien ordeztu
agur egiten asteko.
Ni ez naiz iñor beste batzuen
asmoak galerazteko.
Omenaldi bat ez da izaten
graduak irabazteko,
baizik laguna zoriondu ta
biotza erakusteko.

Zorioneko besarkada bat,
Juan adiskide miña.
Era berean artu nai nuke
zure emazte Martiña.
Seme-alabak, sendi osoa,
nola ez?, gauza jakiña,
sortu ziñaden Erlatx etxea,
erri bezala Markiña...
Zer atsegiña urte askuan
olan batuko bagiña!

Jaio ezkerro ezin ukatu
ama on baten magalik.
Sentimenari eldu ezkerro
ez dago gizon argalik.
Apaltasuna gordetzen dozu
iñor badago apalik...
Zure biotzak ez du onartzen
gorrotoaren abalik.
Ori delako artu zaitugu
guztiok beso zabalik.

Urte askuan bizi izan gara
gu biok lotura baten.
Esango neuke lokarri ori
oraindik ez dala eten.
Saiatu gara euskal giroan
errizaleak izaten.
Zenbateraiño maitatzen dogun
ez da erreza esaten.
Eredu ori or gelditzen da
gazteak jarrai dezaten.

Oraindik ere bearrezko da,
Buztarri, zure itzala.
Lagun bezala artu ninduzun
oso gaztea nintzala.
Euskaldun oso-osea zara,
jatorra ta zerbitzala.
Zure eskerrik beroenak gaur
erriak jaso ditzala...
Zorionezko bizitza batek
betiko gorde zaitzala.



Jon Mugartegi eta Juan Igarzabal Buztarri.

1987ko urtarrillaren 18an, urteroko *Bertsolari Eguna* zela-ta, Mugartegiren lagun haundia den Jon Azpillaga omendu zuten bertsozaleek Donostiako Astoria aretoan. Beti bezala, bertso saioa egin zuten bertsolariez gainera, beste 38 bertsolarik kantatu zioten bere omen-agurra. Mugartegik honako hauxe kantatu zion, txanda etorri zitzaionean:

Bertsolaritzak menderik mende
baditu ainbat jatorri.
Gaurko egun au izango al da
zorionaren iturri,
bertsozale ta bertsolarion
atsegin eta pozgarri.
Azpillagari zorionak ta
zueri ongi etorri!



Lazkao Txiki, Mugartegi eta Larrañaga Azpeitian, 1974.03.10.

1996ko azaroaren 23an, Balendin Enbeita omendu zuten Ariatza-Muxikan. Amuriza, Azpillaga eta Mugartegik egun hartan botatako zenbait bertso jaso dugu omenaldien zerrenda honen azkenean.

- Azp: Gure bisitak jakiñekoak
zelan ez diran izaten,
Ariatzara etorri gara
besarka bana emoten.
Enbeita zana ere il zan ta
aren kontuak esaten,
ta emen batu diran guztiak
gabon pasatu dezaten.
- Mug: Il zan ordutik inguratu da
bere amar urteurrena.
Au entzutean unkitutzen da
Mugartegiren barrena.
Bere oroimenez zorionean
batu gara elkarrena...
Entzule danoi opa dizuet
agurrik maitekorrena.
- Amu: Gure Balentin Enbeita zana
joana gure artetik...
Zure argazkiz orma guztiak
ikusten doguz beterik.
Ezingo dogu ukatu gure
artean falta zarenik,
baina jarraitzen dogu sentitzen
berton bazeunde lantxerik.

- Azp: Gazte nintzala ezautu neban
berbetan eta bertsuan,
kanta ta kanta or ibili zan
bere bizitza osuan.
Zenbat alditan kantau ete eban
Ariatzako zeruan?
Omenaldi bat egitekotan
arek, bai, merezi zuan.
- Mug: Balentin beti izan genduan
gizon diña ta zuzena.
Buru argia, biotz aundia,
ago fiña ta ozena.
Badakizue ni Enbeitaren
jarraitzaillea naizena.
Bera mundutik joan zan baiña
bizi da bere izena.
- Amu: Zure aitaren jarraipena ta
ondorenguen burdia.
Gerra aurretik gerraostera
zu izan ziñan zuzia.
Txapelketak be asi ziranda
a izan zan durundia!
Zugan mirestu neban Bizkaiko
lenengo txapel aundia.
- Azp: Gerra pasa ta gu asi giñan
oso sasoi beranduan.
Len ere esan det: gazte nintzala
Enbeita ezautu nuan.
Amaika bertso saio egin gendun
bata bestian oduan!
Mundu ontatik joan ziñan, baiña
eskola utzi zenduan.

- Mug: Beste bertso bat eskeiñi nairik
Balentin zanan gorantzan,
etorri gara saio polit bat
eskeintzeko esperantzan.
Nor ez litzake pozik egongo
lorea dagon baratzen?
Oraindik ere bertsolaritzak
jarraitzen du Ariatzen.
- Amu: Erreka urez datorren arte
betetan da aldapara,
gaur Balendinen lobak be emen
badiralako ilara...
Etorkizuna ezta izango, ba?
Begira tablau ontara.
Gu be ondiño martxan gabiz ta
ortik kontuak atara.
- Azp: Egia da, bai, meritua da,
oindik martxan gabiltzala.
Eta segitu bearra dago
emen nola edo ala.
Enbeita zarrak ganbara edo
teillatuko estrapala...
Bakar-bakarrik pena bat daukot:
ganora gabe il zala.
- Mug: Bere biziña bear bestean
ezingo degu sakondu.
Urtez aurrera bagoaz, baiña
oraindik ez da berandu.
Nai doguna da bertsolaritza
maillik ederrenez landu.
Guk ori egin bear genduke:
danok alkarri lagundu.

Amu: Azpillagaren buruan nunbait
ete dago talenturik?
Naiko aldrebes eritzi dautzat
eriotza gai arturik.
Ganora barik a il ete zan?
Gelditu naiz arriturik.
Bai al dago, ba, emen ganoraz
iltzeko adelanturik?!

Mugartegiren lagunak mintzo

Mugartegik lagun on asko egin du bazterretan. Batzuk bertsolaritzak eta plazaz plazako ibilerak eman dizkionak. Eta beste asko, bere bertsoak entzunez adiskidetuak. Horietako batzun iritziak jaso nahi izan ditugu azkenengo orrialde hauetan, nahiz eta gehiago ere jaso genezakeen, horretan saiatu izan bagina.

Bertsolari, bertsozale eta Mugartegiren laguna den Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Biodibertsitate sailburuorde Abel Muniategi jaunak, honako lerro hauek bidali dizkigu e:Mailaren bidez:

Jon Mugartegiri

Mugartegik errimaren egokitasuna ekarri zigun. Kantaera goxoa azaldu zuen, ritmikoa, eta ahapaldi xamurrak moldatzen zituen. Teknikaren presentzia nabarmendu zuen.

Ondarruko plazan jokatu zen Bizkaiko Txapelketaren azken saioan, 1664an, berarekin kantatu nuen. Herriko jaiak zirenez, jendearen zarata eta buila tartean, bertsolariok alkarri entzuten ez geniola ibili ginen. Bigarren gelditu zen. Durangon ospatu zen 1966ko Txapelketaren azken saioan ere alkarrekin izan ginen, goizean Astarloa zinean (epaimahaiko D. Jose Etxeandia apaizak zutik jarri eta agiraka egin zigun bertsolarioiri), eta arratsaldean Santa Mariako elizpean. "Ez Dok Amairu" ere han zen, eta biga-

rren Euskal Liburu eta Disko Feriaren jardunaldietan kantatu genuen. Lopategi, Mugartegi, Arregi eta ni, Muniategi, ginen. Gabriel Aresti poeta epaimahaian zegoen eta ea denok EGI-n sarturik al geunden galdetu zidan. Orduan ere Mugartegi bigarren gelditu zen.

Harez gero, zenbait plaza egin genituen: Matiena, Ondarru, Bedaru, Natxitu, Berriatu, Lekeitio, Mendexa, eta abar, orain gogoratzen naizenez.

Bere solteru-despedidan ere izan nintzen, Berriatun bertan. Afalondoan bertso pilo bat kantatu zen. Eta geroztik, gai-jartzaile eta epaimahaiko bezela ere tratatu dut berarekin, sarri.

Oroitzapen onak ditut. Lagun leiala da Mugartegi. Merez du liburu bat.

Zorionak, adiskide.

Abel Muniategi

2002.12.03

Markinatik jaso dudana e-Mail eder eta xehetasunez betetako ere aipagarria da, zinez. Ondo baino hobeto daki zer esaten duen karmeldar bertsozale eta langile purrukatuak, Bizkaiko bertsolaritza eta Mugartegi aipatzean. Hara hemen bere idatzia, hitzez-hitz:

Haren bertsolari-irudia osatu nahirik

Telefonoz beste aldetik dei bat jasoz, Joan Mugartegiri begira jarri naiz. Izan ere, Bizkaiko bertsolaritza berriaren zutoin tinkoetariko bat izan genuen 1959tik 1970 aldera arte bereziki, baina geroago ere bai.

Aurreko urteak ilunak izan ziren. Bizkaian bertsoa, lehenagoko koplariaren oinordeko legez, ozta-ozta zen

bizirik. Inoiz garai hobeak izan dituen arte herritarraren aztarna bezala ageri zen, han hor hemen familia nahiz eskualde jakin batzuetan belaunez belaun gordea. Eskualde horiek, Abel Muniategik 60ko hamarkadako Zeruko Argiaren ale batean idazten zuenez, Muxika-Gorozika, Berriatua-Ondarroa izan dira batez ere. Baziren hor-hemenka banaka batzuk bertsoan ibilitakoak, edota beren baitan gar horri bizirik eusten ziotenak. Baina ez zuten oihartzunik; are gutxiago, plazaratzeko aukerarik. Bizkaian ilunpetako garaian, diktadurapeko ekaitzaldian, arbasoengandik testigua jaso eta ondorengoengana iraganarazi dutenak Enbeitatarrak izan direla esan dezakegu. Hauek Kepa Enbeita "Urretxindorra" izan dute sustrai emankor eta hortik sortu dira gure garaian ezagutu ditugun bertsolari-belaunaldi batzuk. Baina Berriatua-Ondarroa aldean ere izan dira bertsozaleak, arte hori barnean gorde eta lagun artean pixka bat landu dutenak. Hau da, Jon Azpillaga, Joan Mugartegi, Jose Mari Arregi eta abar ez zirela ezerezetik sortu. Aurretiaz hazia ereina zen.

Txapelketak

1958. urtean Alfontso Irigoien, gerra osteko lehen txapelketak antolatzeko zegoentzua biltzen eta bertso-sena zuten batzuen atean hots egiten hasi zenean, adineko bertsolariak agertu ziren: Balendin Enbeita, Joan Ormaetxe "Taket", Jose Alberdi, Basilio Pujana eta abar. Adineko bertsolariak esatean mirespenez diot, zor zaiena aitortu nahirik. Hauek eta hauen belaunaldiko beste batzuk izan ziren gerra aurreko eta gerra osteko artean zubia egin zutenak. Garai hartako txapelketetan beste izen batzuk ere ageri dira; esaterako, German Uriguen, Faustino Etxebarria, Julian Martitegi, Jose Maria Gurtubai, Asensio Bidaurrezaga, Eusebio Zubiaga, Pedro Kastrejana, Florenzio Zarraga... Baina

Bizkaiko lehen bi txapelketak, 1958koa eta 1959koa Balendin Enbeitak irabazi ondoren, gazteak hasten dira gailentzen Bizkaiko bertsolaritzan. 1959an bertan, Jon Azpillaga berriatuarrak sekulako saioa egin zuen Bilboko Arenalean, epaileak txapela nori emango zalantza handitan izateraino. Azkenez, aurreko txapeldunaren, Balendin Enbeitaren, buruan utzi zuten.

Jon Mugartegi onen-onenean

1960. urtea izan daiteke, emaitzei begiratzen badiegu behintzat, Joan Mugartegiren urterik onena: eskualdeko txapelketa berak irabazi zuen Markinan, final aurrekoa ere bai Ondarroan; Bilboko zezen-plazan egin zen finala. Gainerakoak aurreko jardunaldian baztertuak izan ondoren, bi berriatuarrak gelditu ziren aurrerako; hau da, buruz buru txapela jokatzeko: Joan Mugartegi eta Jon Azpillaga. Ordena horretan jarri zituen epaimahaiak amaieran: Joan Mugartegi txapeldun eta Jon Azpillaga bigarren. Harrezkero, beti ongi eta goi-goian. Urte horietan txapelketa nagusiko hainbat finaletan izana da. Bizkaian, oraintxe esan dugunez, 1960. urtean izan zen txapeldun, baina ondorengoetan ere beti txapeldun gai edo hortik hurbil.

1961ean eta 1962an, Bizkaiko finalean bai, baina lehen bi onenen artean sartzetik ez zuen izan: 1961ean Jon Azpillaga izan zen txapeldun eta Deunoro Sardui bigarren; 1962an, berriz, Jon Lopategi txapeldun eta Jon Azpillaga bigarren. Aipatu dugu eskualde batzuen indarra bertsolaritzan. Bada, 1962ko finalean lau Muxikako eta beste lau Artibai aldeko (Berriatua eta Markina) izan ziren Bilboko finalean; Muxikakoak: Balendin Enbeitak, Jon Lopategi, Deunoro Sardui eta Ireneo Ajuria; Artibai aldekoak: Jon Azpillaga, Joan Mugartegi, Jose Mari Arregi "Altsu" eta Joan Ibarzabal "Buztarri".

1963an ez zen txapelketarik izan Bizkaian, aurreran-
tzean bi urterik behin egitea erabaki zelako, baina jendea-
ren bertso-egarria nolabait asetzeko, eskualderik eskualde
ohiko lekuetan egin ziren lehiaketa batzuk eta horietan
gailendu zirenak Bilboko Erdi Mailako Institutuan bildu
ziren. Hemen bizkaitarrak ez zirenek ere esku hartu zu-
ten. Euskal Herri osoko bertsolari ospetsuenetarikoak
gonbidatu zituzten. Bizkaikoen artean kopa bat jarri zuten
jokoan bederatzita puntukoan ondoen kantatzen zuenaren-
tzat eta Joan Mugartegi izan zen irabazle.

1964an berriro izan zen Bizkaiko txapelketa. Ohi ze-
nez, lehenengo eskualdeka; hauetan gailendu zirenak fi-
nal aurrekoa jokatu zuten Gernikan goizez abuztuaren
17an eta egun berean baina arratsaldean finala Ondarroan.
Gernikako final aurrekoa Joan Mugartegik irabazi zuen
eta arratsaldean Ondarroan egin zen finalean bigarren
gelditu zen, Jon Lopategi muxikarraren ondoren.

1966an Durangon jokatu zen finala, Astarloa zineman
goizez eta Andre Mari elizpean arratsaldean. Egund gogoan-
garria izan zen hau, urriaren 30a: Durango Euskal Herriko
hiriburu kultural bihurtu zen egun horretan: euskal liburu
eta diskoen azoka antolatzen zen lehen aldia zen eta "Ez
dok Hamahiru" taldeak ere egun horretan egingo zuen le-
hen agerpena jende aurrean; giro jantzi eta bizi horren osa-
garri izan zen Bizkaiko bertsolari txapelketaren finala.
Arratsaldeko saiorako Jose Mari Arregi "Altsu" eta Abel
Muniategi gelditu ziren aurreko txapelkunarekin eta biga-
rrenarekin, hau da, Jon Lopategirekin eta Joan Mugartegi-
rekin finaleko saio nagusiari ekiteko. Bi berriatuar ziren
laukotean, Jon Azpillaga ez baitzen agertu txapelketa hone-
tara. Gogoan dut bertsolarien izenak aipatzean Alfontso Iri-
goienek esan zuela, bertsoaren lau errimak osatzeko erako-
ak zirela haien abizenak. Buruz buru txapela jokatzeko, Jon

Lopategi eta Joan Mugartegi hautatu zituen epaimahaiak. Saio polita izan zen; garbi agertu zen lehen unetik Joan Mugartegik egun ona zuela eta estu hartu zuen aurreko txapelduna. Gure ondoan zen berriatuar batek Mugartegi izango zela txapeldun zioen, baina Muxikako bertsolaria ez zegoen inori erraztasunik emateko eta hirugarrenez jarraian jantzi zuen txapela.

Loiola irriatik 1964ko maiatzaren 17an antolatutako sariketa batean ere irabazle izan genuen Joan Mugartegi. Aurreko urteren baten bigarren izan zen.

Argi dago, beraz, goi-mailako bertsolaria izan dela bere garairik onenean; Bizkaiko bertsolaritzari batez ere indarra eta izen ona eman dizkiona. Nire iritziz, 1960an hasi eta 1976 aldera arte eman du Joan Mugartegik bere onena. Bertso-eskolen aroa etorri zenean ez zen haien onuraz baliatu, bere burua janzteko eta pixka bat egunera jartzeko. Izan ere, noizbait sumatu dudanez, berezkotasunaren aldeko sutsua dugu Mugartegi. Bertso-eskoletan, txapelketa aurreko trebatze-ahaleginetan ez duela gehiegi sinesten esango nuke. Bertsolariaren dohaina berez-berezkoa da; "daukanak dauka eta ez daukanak baleuka". Behin entzun nion, ez zaiola buruan sartzen bertsolari gazteak bertsoan egiteko beren buruak trebatzen eta prestatzen aritzea. Garai zaharretan, urriaren 12an bertsolariak bilera izaten zuten Markinako Karmeldarretan. Halako bilera batean norbaitek proposatu zuen, bertso-saioetan gaia korapilatsua denean, gai-emaileak aurrez gaia gain-gainetik adieraztea bertsolariari. Gogoan dut, Mugartegik ez zuela inola ere onartzen jokaera hori. Horrek bat-batekotasunaren araua hausten zuela eta behin horraz gero, bertsolariak ez baina bertso-jartzaileak liratekeela nagusi adierazi zuen.

Oraindik luze hitz egin genezake Joan Mugartegiri

buruz, haren bertsoen egitura, joera eta abarri buruz baina hurbilagotik ezagutu dutenei toki egitea izango da onena. Hala ere, amaitu orduko, hauxe esan nahi nuke: bertsolari gozoa, neurri eta puntuetan bertsoa ongi josten dakiena eta kantari aparta izan da berriatuarra. Dena dela, bere izaera lotsatiak (plazagizon ez izateak) eta osasunik ezak mugatu dutela esango nuke.

Lerro hauetatik neure miresmena agertu nahi diot herriaren zerbitzurako eta euskararen onerako bere sentimenduak bertsozko arte horretan biltzen saiatu den bertsolari jatorrari.

Luis Baraiazarra
Markinan 2002ko azaroa

Mugartegiren lagun laguna, mutikotatik hasi eta orainarteko laguna, Jon Azpillaga da, jakina denez. Azpillaga haundia, askok esango lukeen bezala. Eta liburuxka hau egiteko asmoa genuela eta zerbait idatziko al zuen eskatu nion. Honatx berak bidali zizkigun sei bertso:

Mila bederatzi ehun eta
berrogeita hamarrian
lehen saioa egin genduan
Amorotoko herrian.
Udaletxeko balkoitik eta
jende mordo bat aurrian,
bozgorailuen laguntza gabe
lehengo ohitura zaharrian.

Santa Eskeko koplartzatik
sortu zen gure hasera.
Gero tabernak betetzen zuten
bertso eskola papera.
Hainbeste herri bisitatzeko
izan genduan aukera...
Gure Jainkuak nahi duan arte
segiko degu aurrera.

Gorozikako auzo bat bada
Ondarruako partian,
San Juan egunez joan ginana
hogei eta bost urtian.
Ordu goxoak pasatzen ziran
halako lagun artian.
Historirako gelditzen dira.
Horrekin poztu gaitian.

Mugartegiren izaera da
zuzena eta apala.
Saioa hasi behar danean
hasiko da berehala.
Erantzuteko kezka gabea,
etorri ona daukala...
Herri danetan esango dute
formal ibiltzen ginala.

Hirurogeian Mugartegi zan
Bizkaitarren txapelduna.
Bilboko zezen plazan egin zan
urte hartako jarduna.
Bera aurrena, ni bigarrena,
orduan egin genduna.
Txapel eder bat eman zizuten
ondo merezi zenduna.

Sasoi haietan gazteak ginan
ta bagenduan kemena.
Urte mordoia igaro da ta
bidean dator azkena.
Bertso hauetan azaldutzen det
nahiz eta ez dagon dana
Mugartegi ta Azpillagaren
bertsotako laburpena.

Jon Azpillaga.
Motrikun 2002.11.15ean

Beste hauek, berriz, bertsozale, gai-jartzaile eta epai-
mahiko lanetan zebilela Mugartegi ezagutu eta lagun egin
zuen Inozentzio Olearenak dira.

Urteak dira lenengo aldiz
elkarganatu giñala,
eta orduan nere juzgua
au izan zan bereala:
estimatzea merezi zuen
gizon jator bat ziñala.
Eta uste det denborak neri
arrazoi eman didala.

Geroztik bertso eder ugari
ditut nik zuri entzunak,
ideaz oso baliotsuak
ta rimaz guztiz txukunak,
nunai giñala atsegingarri
egiten zitzaizkigunak...
Orrelakoak egiten ditu
zuk aiña balio dunak.

Izanik oso bertso egille
zuzena eta prestua,
zure bertsoak izaten dute
neurria guztiz justua.
Ipiñi dezu bide zuzena
ta bear bezin estua,
eta nai duten guztiak ezin
jarrai zure arrastua.

Belar txarren bat azi liteke
belar onarekin nasi,
eta bertsoak izan lezazke
zenbait arantza ta sasi.
Bertsoak ongi egiten iñork
nai baldin baluke asi
Mugartegiren eskola fiña
bearko luke ikasi.

Inozentzio Oleak.
Legazpitik 2002ko azaroan

1960an Euskal Herriko txapelketara etorri zenean ezagutu zuen berriatuarra Txomin Garmendiak. Geroztik, auskalo zenbat aldiz kantatuko duten elkarrekin. Honelaxe mintzatu zaigu gaur berrobotarra:

Jon Mugartegi'ren liburu bat argitaratu bear dutelata, zenbait berriketa egin ote nezaken eskatu dit Joxemari Iriondo adiskideak. Gauza aundirik ez det egingo, nere jakinduriak mugatuak diranez, baiña saiatuko naiz alegiñean adiskide miñaren gorantzan.

Gerra ondorengo urte aiek, urte illunak izango ziran bertsogintzarako. Ala ere, Gipuzkoa'ko bertsolariak bazebiltzan. Eta ez gure probintzian bakarrik, baita Bizkaia'n, Nafarroa'n, Iparraldea'n ere bai zerbait. Orduko izenak: Basarri, Uztapide, Zepai, Ernani Txikia, Mitxelena, Txapel, Loidisaletxe, Lasarte, Lizaso, Ondartza eta abar ziran. Biz-

kaia'n Balendin Enbeita izeneko bat bai omen zala entzuten gendun osta-osta. Baiña ezer gutxi geiago.

Zorionez, asi ziran txapelketak Bizkaia'n ere. Eta asiera artan Balentin Enbeita nagusitzen zala jakiten gendun. Au, gerra aurreko bertsolaria zan. Eta etorri ziran eraso aiek etzioten on aundirik egingo bertsoarako. Ala ere, bera nagusitzen zan, gaur ederbegira dabiltzanak gazte-gazteak ziralako orduan. Gazte oiek, ordea, Enbeita'k ereindako azitik sortuak dira eta berari zorretan bizi dirala esan bear.

Etorri zan Euskalerra guztiko txapelketa jokatzeko eguna ere, Donostiko Victoria Eugenia'n, 1960garren urtean, eta egun ederra izan zan bertsozaleentzat eta bertsolariantzat. Txapelketa ontarako bi bertsolari aukeratu zituzten Bizkai'tik: Mugartegi eta Azpillaga. Mugartegi, ogeita zazpi urtekoa; eta bestea, ogeita bostekoa. Gazteak, baiña Bizkaia'n gaillendu ziranak, zaar guztiak menderatuz.

Ala ere, gipuzkoar geienontzat ezezagun ziralarik, eta Bizkai'ko bertsolaritzak izen geiegirik etzeukalarik, au zan gure arteko iritzia: *Besteak beste, bizkaitar oiek zer egin bear dute Basarri, Uztapide eta oien ondoan?* Baiña, oker geundela esan bear. Atera zituzten eltzetik babak! Azpillagak irugarren saria irabazi zuan; eta Mugartegi, zortzigarren gelditu bazan ere, asko gustatu zan bertsozaleen artean.

Bizkaiko bertsolaritzza bi gazte auekin piztu zala esan bear da. Donosti'ko txapelketa artatik aurrera, Gipuzkoa'ko edozein plazatan ikusi zitezkean Azpillaga eta Mugartegi. Askoren arrazoia auxe zan: Gipuzkoa'n Lasarte zala txukuntasunean eta zuzentasunean nagusi. Eta Bizkaia'n, Mugartegi. Zerbait badala esango nuke.

Danok badegu emen zerbait, eta Mugartegiren akats bat, osasun onegirik eza izan zan. Eta askok ala uste ez badute ere, bertsoan ibiltzeko osasun ona bear da, eta or komeriak. Alare, gure adiskide miña naiko zoriontsu bizi da Berriatu'ko baserritxoan, bere emazte eta sendiarekin, li-

buru onetan irakurleak ikusiko duanez. Alaba, suia eta, batez ere, bere billobatxoak ez dauzka saltzeko.

Bere istorian egunik pozgarrienetakoak, 1960an Bizkai'ko txapeldun, eta 1964an Loiolako Irratian txapeldun izan zanean, eta 1982an Donosti'n egin zitzaion omenaldiakoak izango ziran, seguruenik.

Liburu onek ere eman dezaiola poztasun aundi bat, danak merezi ditu-eta. Eutsi goiari, zaarra!

Munduan baldin bada
gizon ondradurik,
bat Mugartegi dala
esango nuke nik.
Beti jator ta apal
nunai gertaturik,
arrokerizko griñak
an eztu lekurik.
Gaur bakan ikusten da
olako gradurik.

Txomin Garmendiak
Billabonan, 2002ko abendua

1981eko azaroaren 24an, Iñaki Eizmendi *Basarrik* Diario Vasco egunkarian idatzi zuena aipatu nahi genduke azkenik, Mugartegiri buruz:

Jon Mugartegi ondo ezaguna da bertsozaleen artean. Gizon onak asko izango dira an eta emen. Alare, gizata-sunean Mugartegiri aurea artzen ez da errez. On egiñez darama bizitza osoa, danen morroi eta serbitzari. Barrenak alaxe eskatzen dio, ta ortantxe du gozamenik aundiena.

Denbora gutxi barru, urteeroko oiturari jarraituz, Donostin omenduko dan bertsolaria Mugartegi izango da. Berak, beste bertsolari danen omenaldietan artu du parte. Odolkiak ordaiñetan izaten diralarik, euskal bertsolariak

ez dute bakarrik utziko. Pozik eta biotz zabalez agertuko dira jaialdira. Egin bear dana, edo agintzen zaietena, gogoz egingo dute.

“IZ” Disko-Etxeak bidalita, neure mendean det Jon Mugartegiren bertsoz osatutako kasete bat. Arreta biziz entzuna naiz zinta omen bidez belarriratu zaizkidan itz neurtuak.

Pertsona nolakoa, bertsolaria alakoa. Umekeririk eta arinkeririk ez dezu aurkituko egundo Mugartegiren izaeran. Ezta bere bertsoetan ere. Giarra eta mamia dute bere aleak. Sentimen aundiko bertsolaria da. Biotzak eskatzen diona esaten du beti, ez geiago eta ez gutxiago. Bertso sakon eta gustagarriak bereak. Entzule jostalari bati, agian, serioegiak irudituko zaizkio. Gizonak sentitzen duana esan bear du. Neurrira egindako trajea jantzi bear du bertsolari batek. Beste batena janzten badu, laister nabarmenduko da. Nork bere ezaugarria agertu bear du, egitazkoa izango bada. Besteren saillean sartzen dan bertsolariari urrutira antzemango zaio. Ikusten da ura ez dala atxurtzea dagokion lurra.

Jakinda nagoanez, osasunez ez da indartsu ibiltzen dana. Supritzen dakian gizona da. Pozaldi eta naigabeak kristauki artzen dituana.

Supritzen dakiten bertsolariak biotzera iristen dira. Besteak beste, auetakoak dira Manuel Lasarte eta Jon Mugartegi. Ezagun dute aiengandik datozkigun bertsoak. Daraman bizimoduak ematen dio askotan gaia bertsolariari. Bere inguruko giroak, alegia.

Idazle ta bertsolari baten lana epaitu aurretik, auxe izan bear degu gogoan: bere lana noiz egiña dan eta zer girok inguratu zuan.

Bertsolaritzari, mota edo klase guztietako bertsolariak komeni zaizkio: sakonak, pipertsuak eta jostalariak.

Aurkibidea

Hitzaurrea	7
Eskaintza	13
Mugartegiren sortxea	15
Plazan bertsotan.....	31
Bizkaiko txapelketak	45
Loiolako sariketa 1964an	51
Beste txapelketak.....	75
Santageda eskean.....	103
Bat-bateko bertsolaria.....	111
Bertso idatziak.....	159
Omenaldiak	203
Mugartegiren lagunak mintzo	233

**Auspoa-ren azken
liburuak:**

272 M. Aizpurua: *Hasi, Azpillaga*

273 E. Larre: *Ene artzain etxolak*

274 J. M. Aranalde: *Xalbadorren barrua*

275 Joxe Lizaso: *Nere aldiko kronika*

276 Jose Insausti: *Beti bertsoa buruan*

277 Manuel Matxain: *Uste gabeen*

278 I. Olea: *Ostiraleko kronika I*

279 I. Olea: *Ostiraleko kronika II*

280 S. Zafirain: *Markesgaiak / Dirua jainko*

281 A. Zavala: *Estropadak bertsoan*

282 J. M. Iriondo: *Segi, Mugartegi*

283 R. Iraola: *Nañarriri begira*



Auspoak, ale honetan, Bizkaiko bertsolari haundi baten lanak bildu eta aurkeztu nahi izan dizkizu. Aspaldi egin beharreko lana zen, seguruenik. Baina inoiz ez da berandu. Azkenean ere, Jon Mugartegi Iriondo berriatuarren bat-bateko zenbait bertso eta hark egindako bertso-paperak sortatu ditu Joxemari Iriondok liburu honetan. Nola bat-bateko hala bertso-paper asko, haizeak eraman ditu sekula betiko, zoritxarrez. Baina bildu ahal izan diren batzuk hementxe dituzu eskuartean.

Plazako lehenengo bertso-saioa Amoroton egin zuen Mugartegik betiko bertso-lagun izan duen Azpillagarekin. Hamasei urte zituen artean, baina sasoi ederra eta bertso-tarako sekulako gogoia eta grina zituen. Soldadutzatik gaixotuta etorri zen halare, lur jota. Eta hiru urte egin zituen berriro plazara irten gabe. Alabaina, 1959an Markinan egin zen Bizkaiko txapelketako kanporaketara elkarrekin joan behar zutela eskatu zion Azpillagak. Eta elkarrekin joan ziren. Hala, Markinako kanporaketa lehenengo, eta Ondarroan egindakoa hurrena, biak irabazi zituen. Erabat animatu zen horrekin. Gero, 1959an hasi eta 1976ra bitartean, asko ibili zen batera eta bestera. Etaaldi hori izan zen bere garairik oparoena, bere onena eman zuena, seguruenik. Txapelketan, lagunarteko saioetan, plazatan eta aretoetan askotan kantatu zuen. Bizkaia eta Gipuzkoako bertsozaleek oso ondo hartu zuten gainera. 1960ko Euskal Herriko txapelketa nagusirako bera eta Azpillaga hautatu zituzten Bizkaiko ordezkari. Eta inor gutxi ezagutzen bazituen ere artean, ahogozo ona utzi zuten, nola batek ala besteak. Handik aurrera, etenik gabe ibili ziren Bizkaia, Gipuzkoa eta Ifarraldeko bertso-saioetan. 1964an, Loiolako Herri Irratiak antolatu ohi zuen *Bertsolari gazteen hirugarren sariketa* berak irabazi zuen, entzuleen botoen bidez. Eta liburu honi izena ematen dion Miren Arizmendi zenaren bertsoa ere ordukoa da: "*Eta txapeldunari: segi, Mugartegi*".

ISBN 84-95378-65-5



9 788495 378651



Auspoo